

Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera*

(The Basque verb of Eibar: forms and some use of participles)

Areta Azpiri, Nerea
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia
nereareta@gmail.com

BIBLID [1137-4454 (2009), 24; 5-70]

Jaso: 2005.04.04
Onartu: 2009.09.11

Eibarko euskara jatorraren partizipio formak, fonetikaren eta morfologiaren alderditik nolakoak diren aurkezten da. Aldaerak kontuan hartuz, forma soilak aurkezten dira, amaiera bokalikoak eta kontsonantikoak banan-banan sailkatuta, baita atzizki konposatuak ere. Zenbait mailegu nola egiten/egokitu diren, eta partizipio zaharren aztarnak aurkezten dira, baita partizipio bikoitza duten aditzak, eta partizipio soilen eta aditz perifrasiari arteko "alternantzia" ere. Bideanabar, eremu semantikoak ere jorratu da.

Giltza-Hitzak: Eibarko euskara jatorra. Aditz partizipioak. Morfologia. Fonetika. Semantika. Sintaxia. Polimorfismoa. Erabilera.

Se presentan las formas del participio en el euskara original de Eibar, desde el punto de vista de la fonética y de la morfología. Teniendo en cuenta las distintas variedades, se presentan las formas puras y se clasifican individualmente tanto las terminaciones vocálicas como las consonánticas, así como los sufijos compuestos. Asimismo, se señala cómo se han producido/adecuado algunos préstamos y se indican los vestigios de los antiguos participios, así como los verbos que utilizan cada uno de los participios y las "alternancias" entre los participios puros y las perífrasis verbales. Al mismo tiempo, se estudia también el campo semántico.

Palabras Clave: Euskara original de Eibar. Participios verbales. Morfología. Fonetika. Semántica. Sintaxis. Polimorfismo. Uso.

Ce travail aborde les formes du participe en euskara original d'Eibar, du point de vue de la phonétique et de la morphologie. Compte tenu des différentes variétés, il présente les formes pures, classées individuellement, tant par terminaisons vocaliques que consonantiques, ainsi que les suffixes composés. Il montre également comment se sont produits/adaptés certains emprunts, les vestiges des anciens participes, les verbes utilisés par chacun des participes et les « alternances » entre les participes purs et les périphrases verbales. Il analyse également le champ sémantique.

Mots Clé : Euskara original d'Eibar. Participes verbaux. Morphologie. Phonétique. Sémantique. Syntaxe. Polymorphisme. Usage.

* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2003. urteko ikerketa laguntza jaso du.

SARRERA

Artikulu hau ikerketa zabalago baten zati bat baino ez da, Eusko Ikaskuntzaren “Ikerketa Laguntzak eta Bekak” deialdi baten emaitzaren zati bat, ordukoa ez dagoelako artikulu bakarrean ateratzerik. Beraz, lan osoa kontsultatu nahi duenak hango agiritegira jo beharko du osotasunez ezagutu ahal izateko, oraingoz. Artikulu honetan, metodologia eta bibliografia murriztuta aurkezten dugu; eta alderdi teorikoa eta azterketa atal batzuk ezabatu ditugu, hain zuzen, partizipioaren erabilerrari dagozkion batzuk. Zehatz esateko, atal hauek kendu ditugu: “Aditzoinaren erabilera – partizipioarekiko harremana”; “Partizipioa beste kategoria batzuen funtzioan”: izen moduan erabilita (hainbat kasu markaz deklinatuta eta osterantzeko ezaugarriak), baita izenondo moduan ere; “Partizipioa egitura berezietan”; “Partizipioa diskurtsoan, aditza jokatu gabe” eta “Bestelako berezitasun morfosintaktikoak”, ez garrantzitsuak ez direlako (izan ere, hainbat eta hainbat ezaugarri deigarri aurkitu ditugu aipatutako atal bakoitzean), lekurik ez dutelako baino: beste artikulu baten aurkeztuko al ditugu.

Helburuak

Helburu nagusia euskal gramatika orokorretako azalpenetatik, euskalki mailara jauzi egitea da, hain zuzen Bizkaieraren barruko Eibarko hizkera jatorrean oinarrituta. Gainera, gaur egungo ahozko jardunera mugatu nahi dugu. Izan ere, ez dago gai hau sakon jorratzen duen lan nagusirik ez Bizkaieraren eremuan bertan ez Eibarko hizkerarenean ere.

Helburu orokorra Eibarko partizipioen forma, erabilera eta jokaerak azaltea da, batez ere asmo deskriptiboz, preskriptibismo eta normalizazio helburuetatik kanpo. Horrekin batera, beste herri, inguru, unitate geografiko bazuetakoko mintzoekein alderatu ahal izateko baliabideak eta materialak eskaini nahi dira.

Zehazki, jatorrizko lanean, Eibarko partizipio formak, aldaerak, egiturak, perifrasiak eta abar, fonetikaren eta morfologiaren alderditik nolakoak diren aurkeztea izan da azken helburua:

Aldaerak kontuan hartuz, forma soilak aurkeztea, amaiera bokalikoak eta kontsonantikoak banan-banan sailkatuta. Amaiera bokalikoetan, berezko forma trinkoak eta atzizkidunak banatuko dira. Amaiera bakoitza banaka jorratuko da, baita atzizkien aldaerak ere (“-u, -du, -ddu, -ru; -tu, -ttu, -txu”). Areago, atzizki konposatuak ere aurkeztu nahi dira (“barriSTAU” erakoak). Zenbait mailegutun, jatorria ere kontuan hartzea; adibidez, gaztelaniako “-ar, -er, -ir” amaieradunak nola egiten/egokitu diren Eibarren erakustea. Partizipio zaharren aztarnak aurkeztea. Partizipio bikoitza duten aditzak aurkeztea. Partizipio soilen eta aditz perifrasiaren arteko “alternantzia” aurkeztea.

Hori guztiori, eremu semantikoa ere jorratuz egitea da gure asmoa. Ez dugu zehatz aztertuko aditz bakoitzak laguntzailea hartzen duenean berau zein eratakoa den (*nor*, *nor-nori*, *nor-nork* ala *nor-nori-nork*).

Metodologia

Atal honetan aurkezpen bikoitza egin behar dugu. Batetik, lan hau egilearen doktorego tesiaren ondorioz mamitu delako, eta ikerlan honetarako erabili den metodologia handik datorrena delako. Nolanahi dela ere, aditzari lotuko gataizkio bereziki, partizipioei hain zuzen ere. Izan ere, egileak bere tesiko zati baten gai hori landu du baina jasoketa mailan soilik, ez ditu jasotako datuok aztertu inondik inora ere. Tesiaren izenburua hau da: *Eibarko euskara. Morfologiako alor baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea, adjektibo sintagma eta adberbio sintagma* (2002): hemendik aurrera “tesia” aipatzen den guztietan lan honen aipamena da. Aditzaren gai zehatza tesi liburuan barik, eranskinetako CD-ROM-ean dago jasota “Korpusa” karpeta informatikokan hain zuzen. Denera, mila adibide baino gehiago dago partizipioaren gaiari eskainita, berariazko galdekizuna erabili delako informazioa lortzeko. Hor nolabait barreiatuta dagoen *corpora* gordina aztertzea litzateke ba, ikerlan honen helburu eta zeregina, ekarri aberasgarria delakoan, guztiz originala eta gaur arte egin den baino askoz zehaztasun handiagoz jorratuta. Nolanahi ere, arestian aipatutako tesian deklinabideari, adjektiboari eta adberbioari dagokionez hain zuzen, partizipioaren hainbat aipamen daude, eta oraingo lan honetan ez dugu han esandako guztia berriz errepikatuko, informazio eta alderdi berriak lantzea interesgarriagoa delakoan.

Laburbilduz, corpus bilketari dagokionez, guk egin ditugun transkribaketak fonikoak izan dira, ez fonetikoak bezain zorrotzak, baina edonola ere, Euskaltzaindiak ezarritako arauak ez dira kontuan hartu. Berariaz eraturako galdekizunaz lortutako informazioaz landa, solasaldi askez ere informazio mordoa lortu da. Horrez gain, tesirako hainbat espektrograma edo azterketa akustiko egin dira: ebaluaketa funtzioa izan dute batetik, eta laguntzaile bestetik¹. Lekukoen banaketa honela laburtu daiteke: galdekizuna landu duten zazpi **leku-ko nagusi** (*S.B.*, *kgg*, *f.a.*, *raz1*, *kmz*, *naz* eta *nme2*), eta solasaldi askez hornitu gaituzten beste ia ehun lekuko. Adibideen ondoko lekukoen kodeak interpreta-tzeko taula hauek erabili behar dira, ezaugarriak errepikatutakoan inkrementalki zenbaki bat gehitu zaiola kontuan izanda:

1. Tesiko gehigarrietan erantsi ziren espektrograma guztiak, CD-ROM osagarrian hain zuzen ere, “Bestelako emaitzak” karpetako “Material akustikoa” alorrean. Ikerlan honetan “etorri” aditzaren errealizazioa duten espektrogramen erreferentziak ezarri dira bakarrik, baina askoz ere aditz gehiago jasota eta aztertuta daude iruzkin eta guzti. Aditz horren aldaerek, batzuk guztiz bitxiak, lagun dezakete jakiten nolako errealizazio errealak egiten diren ahozko benetako jardunean.

1. taula. Lekukoen taula orokorra

Nongoa	Kodea	Sexua	Kodea	Adina	Kodea
Kalekoa	K	“mutila”, gizonzkoa	M	gaztea (25-40 urte)	G
Arratekoa (Arrate, Gorosta, Mandiola, Maltzaga bailarak)	R	andrazkoa	A	adin ertainekoa (40-60 urte)	E
Aginagakoa	N			zaharra (60 ->)	Z
Kinarra-Otaolakoa (Kinarraga, San Salbador, Otaola, Ipurua)	Ñ				

2. taula. Ezaugarrien konbinatoria lekuko bakoitzarentzat

	Kodea	Esanahia
1	KAG	kaleko andrazko gaztea
2	KGG	kaleko gizonzko gaztea
3	KMG	kaleko “mutil”-gizonzko gaztea
4	KAE	kaleko andrazkoa, adin ertainekoa
5	KME	kaleko gizonzkoa, adin ertainekoa
6	KAZ	kaleko andra zaharra
7	KMZ	kaleko gizon zaharra
8	RAG	Arrateko andrazko gaztea
9	RMG	Arrateko gizonzko gaztea
10	RAE	Arrateko andrazkoa, adin ertainekoa
11	RME	Arrateko gizonzkoa, adin ertainekoa
12	RAZ	Arrateko andra zaharra
13	RMZ	Arrateko gizon zaharra
14	NAG	Aginagako andrazko gaztea
15	NMG	Aginagako gizonzko gaztea
16	NAE	Aginagako andrazkoa, adin ertainekoa
17	NME	Aginagako gizonzkoa, adin ertainekoa
18	NAZ	Aginagako andra zaharra
19	NMZ	Aginagako gizon zaharra
20	ÑAG	Kinarragako andrazko gaztea
21	ÑMG	Kinarragako gizonzko gaztea
22	ÑAE	Kinarragako andrazkoa, adin ertainekoa
23	ÑME	Kinarragako gizonzkoa, adin ertainekoa
24	ÑAZ	Kinarragako andra zaharra
25	ÑMZ	Kinarragako gizon zaharra

Lan honen beste ekarri berri bat ere badago, beraz, soziolinguistikaren eremura ere hurbildu garen neurrian, lekuko bakoitzaren jatorri geografikoaz gain, sexua eta adina kontuan hartuta, baita ikasketak ere. Beraz, hizkuntzalaritzaren alorrean barne, dialektologiari eta soziolinguistikari so gaude oraingoan preseski eta gehienbat, bestelako sail eta jakintzak erabat bazterturik utzi gabe, noski. Hizkuntzalaritzari dagokionez, ikuspegi estrukturalista dugu batez ere.

Gaiaren deskripzioa, aldaeren enumerazio eta azterketa sistemiko-estruturala egingo da. Azterketaren oinarri nagusia, beraz, arestian aipatutako galdekinunaren inguruko lekukoen erantzun eta adibideak izan dira. Ikuspegi epistemologikotik, nolana ere, hasieratik argi gera bedi ez dugula teoria berririk asmatuko euskal gramatikagintzari dagokionez eta horrenbestez, eginiko lanetara jo dugula oinarritzko azalpenetarako.

Formari dagokionez, aldaera fonetikoak eta morfologikoak aztertu dira batez ere; erabilerari dagokionez, eremu semantikoa jorratu da batez ere, morfologiak eta sintaxiak ere lekua duten arren. Maila lexikoa ere neurri batez kontuan hartuko da, Eibarko partizipioen hiztegia egiteko asmorik ez dugun arren. Eredu, aldaera eta bitxikeria horien subjektu-erabiltzaileen berri ere emango da, zein lekukok zer darabilen adierazgarria delako benetako hizkera ezagutzeko.

Lan “dialektologikoagoa” egitea ere beste ikerketa lanen zeregina da: balizko ikertzaileak zein fenomeno-isoglosa aukeratzen duen, materiala eta aldaerak aurkeztuko dira lan honetan. Ondoko herrietako hizkeretan ere antzerako azterketa beharko litzateke, ostera, hori zuzentasunez burutu ahal izateko, datuak erkagarri gerta daitezten.

Azterketa bera morfologiako gai zehatz bati eskainiko badiogu ere, aldi oro gogoan hartuko dira beste atalekin dituen harremanak, dela fonikoa, dela morfosintaktikoa, dela lexiko-semantikoa, ez dudalako uste bereizketa garbi eta osorik egin daitekeenik atalen artean. Ez dut uste, gainera, atalen bat bestea(k) baino garrantzitsuagoa denik, guztiak elkar-osagarriak direlako nire ikuspegiz.

Kronologia aldetik, azterketa sinkronia mailan egingo da, Eibarko partizipioak gaur egun nolakoak diren eta nola erabiltzen diren azaltzekotan; erregistro alde-
tik lagunarteko askea² aukeratu da. Azkenik, eta duda dugu *muga* objetibotzat har daitekeen, lekukoek eurek ezarri dute lanaren norabidea, esparru pertzeptualak ere lekua duelako lan honetan (betiere egilearen kontzientzia sozio-linguistikoa galgatik iragazita, inoren oharrak eta argitasunak kontuan hartuta). Corpusaren iturria ahozkoa da erabat: gehien-gehiena grabatuta dago, baina badira entzunezko pertzeptioz hartutako zenbait apunte ere.

Fonetikako alorra oso baliagarria izango zaigu hainbat eta hainbat aldaera azaltzerakoan, bai soinu galeraz edo sorreraz, bai alternantziak, disimilazioz,

2. Ezagunak dira, nahiz eta ez nahikoa landuak, era honetako jardunen ezaugarri orokorrak. Euskarazko ikerketetan ere egiten da zerbait baina ikaragarria litzateke egiteko dagoena zehatz aipatzea. Pragmatikari lotuz gero hutsunea askoz haundiagoa da.

murrizketaz, hiato hausketaz, diptongo sorreraz eta abar. Zenbait erabilera sin-taxian izango dute iturria edo azalpena; beste forma batzuk deklinabidearen laguntzaz azaldu ahal izango dira; lexikoa ere batzuetan erabakior eta bereiztailea izango da, bai partizipio soilen mailan, bai lokuzio, esapide eta abarren mailan.

1. EIBARKO ADITZ PARTIZIPIOEN FORMA ETA ERABILERA

1.1. Berezitasunak partizipio amaieran

1.1.1. Partizipio zaharren aztarnak

Beste egile batzuek diotenari jarraituz, Eibarren ere erabiltzen dira forma zahar batzuen aztarnak jokatu gabeko formetan. Hain zuzen ere, **eban* partizipioaren arrastotzat jotzen dute batzuek³ “ebate-” aditz izena (gaurko partizipio arrunta “eba(g)i” da Eibarren), eta **eun*-ena “euko” geroaldiko forma (“euki” da partizipio arrunta Eibarren).

Hona hemen zein erabilera duten forma horiek:

1.1.1.1. “Ebate-” forma

Orokorrean, lekuko guztiek ezagutzen dute forma hori, baina semantika eta erabilera aldetik antzerakoa den “mostu” partizipioarekin nahasten da *kgg* lekuko nagusi gazteenaren ahotan. Izan ere, erabilera jatorra “bedar(ra)⁴ /gari(xa) /ira - iria /garo - garua (...) eba(g)i/ebate-” erakoa da, zaharrenen ahotan zalantzarik barik bizirik, baina alfabetatutako lekuko gazte kaletarrentzat zentzua galduta dauka esaera eta bizimodu horrek, “mostu” formaren alde. Hauxe da berak dioena:

kgg °uste-ot estiturasela <<bereisten>> (...) badakitx “ebagi” eitxen dala baña nik uste-ot “móstu” esate-otela (...) eske ní-dana “mostu” (...) <<desberdintze>>-doten bákarra da “bisarra kendu”, óri bai!, ori bai!

Dena dela, “ebatia” landarez bestelako kontuetarako ere erabiltzen da; adibidez, ilerako, azazkaletarako, geografiarako, jateko gauzetarako eta abar:

kaz2 °... ebági... · aistiak · isten aldia bateko · txorikópeti ebági! · da gero bésti ebatera pelukérixara juam-biar...

kaz1 °... lbur-errékiak · da- ee ebaten dau · ba · s- Gipúsua ta · Bískaixa · da · Eibár da Saldíbar, e?

kmz ogíxa ebáik <agínte eran> //kmz °bai!, daa · pikántia: kipúla-askó!; da · gibé-la ebái ess, · sekretúa san orréna, · apúrtu! gibéla..., · satí txikí-txikí-txikixak...

raz °beorrén esáun batí ank- anká bat ebai txa béstia ebáteko dao, · ddá! -f.a.”iñausi” da mendixan daren árbolei adárrak ebai (“cortar”, “kendu” esanguraz)

raz1 atzapára ebági dot (“cortar”, azaleko ebakidura)

3. J.A. URIARTE-rengandik jaso dugu gai zehatz hau, esate baterako (1995, 537).

4. Objektua mugagabe erabiltzea, ikus ARETA, N., 2003; 64-65.

“Satitxu, txikitxu” ere erabiltzen dira esangura horietarako. Adibideetan ikusi denez, “ebate-” aditz izenak kasu markak har ditzake: “ebaten, ebateko, ebatera”...

1.1.1.2. “Euko” forma

**Eun* aditzaren erabilera ezin da **eban*-enarekin alderatu, kasuistika beste era batekoa delako. Izan ere, aldea ez dago erabilera semantikoaren gain baka-rik, forma horren bizitasunean baino. Hau da, lekuko guztiek ezagutzen dute “euko” forma, baina erabileran “eukiko”-rekin txandaka erabiltzen da. Forma zaharrena “euko” izango da, baina “eukiko” lekuko zaharren ahotan ere entzun daiteke; beraz, ez dirudi gaur eguneko berrikuntza denik. Arrate aldeko *raz1* leku-koak “aukiko” aldaera fonetikoa ere badarabil.

Nolanahi ere, parametro soziolinguistikoei erreparatuz, badirudi kaletarrek, eta zenbat eta alfabetatuago gehiago, “eukiko” erabiltzeko joera handiagoa dutela, baina *kgg*-k izan ezik, denek darabilte “euko” ere. Lekuko gazte horrek, berak dio ez darabilela forma hori, eta agian galtze bidean dagoela esan daiteke, gazteenek ezagutu eta erabili ezean transmisioan galera gertatuko delako hemendik urte gutxira. Baserrietako andrak dira “eukiko” gutxien darabiltenak.

Fonetika sintaktikoz, “euko”-ren aldaerak ere jaso ditugu:

kaz2 °nik! ... bí · eukuttut ór esta?

1.1.2. Partizipio bikoitza duten aditzak

1.1.2.1. Partizipioaren amaieran bokalaren (-i /-e /-a) eta (-t(x)u /du /ru) atzikiaren arteko alternantzia

Hainbat bikote daude, baina esanguraz ere ez dira beti bat, harreman semantiko estua izan arren batzuetan. Hemen horietariko batzuk:

- “Egosi /egostu”-ren gaztelaniako kideak hauek dira: “cocer /escocer”. Kasu honetan, bai euskaraz bai gaztelaniaz kidetasun semantiko handia dago. “Egosi” forma lekuko guztiek darabilte salbuespenik barik “irakin” erako esanahia duenerako. “Egostu”-ren definizioa, herri hizkeraz:

raz1 °gorri-gorrixa inda ta, bai! “egostu” bai, “egostu”!: álaxe da orí! [azala]

Baina “egostu” forma ez dute gure lekuko nagusi guztiek ezagutu eta erabiltzen, salbuespena arrunta denez kaleko lekuko gaztea dela: ez du forma horren erabilera onartzen, eta beste forma batzuk darabiltza horren orde: “erre, urratu”. Beste lekukoek ere badute gauza bera esateko forma ugariren aukera, aurrekoek gain “mindu”, edo “komodin” generikoa erabiliz, “sertu”. “Egosi” forma bera ere erabiltzen da “egostu”-ren arlo semantikoa adierazteko. Kaletarrak, esan denez, zahar eta gazte, dira “egostu” forma gutxien darabiltenak, baserritarrek ez dutelako zalantzarik forma hori ezagutzerakoan eta erabiltzeko; kaletarrek bai oster.

- “Ausi (kom. “hautsi”) /austu” bikotearen kasua homofonismoaren bidetik hobeto azaltzen da, etimoak ere bata bestearengandik urrutiago daudelako. Izan ere, “ausi”-ren esangura apurtzea da, baina erditik bi eginda, edo etendura nahikoa garbiz. Eibarren “ausi” gauza luzexketarako erabiltzen da: egurrezko tresnak-gauzak (makilak, egurra bera, eta abar), hezurrak (arrunki “besua, eskua, ankia, bernia” izen zehatzak erabiltzen dira), eta gisa horretakoak. Gure lekuko baten ahotik jasotako definizioa:

nme2 °éuskeras “ausi” esaten da ·· “klák” eittia

Dena dela, “apurtu” sarriago erabiltzen da; eta “eten” ere erabiltzen da, soka edo gai malguz eginiko gauzetarako.

“Austu”-ren erabilera ere galtzen doala esan daiteke. Lekuko zaharrenek eta baserritarrek darabilte jator eta arrunki. Izan ere, horixe berori adierazteko beste bide asko daude: “apurtu” orokorra, “txikitxu, txiki-txiki eiñ; autz eiñ”. “Austu”-ren definizio herrikoi bat jarriko dugu, kasu praktikoa baterako:

kmz °baa, ladrillo sarrák etaa... · sementu sarra ta..., “áustu, áustu”!

“Hauts” zentzu hertsia goz, kasik des egitearen pareko, hildakoen kasuan ere erabiltzen da, baina “usteldutako” edozein gauzarekin erabil daiteke (ilea, tela, papera, erre eta forma gorde duen zerbait...), edo oso hauskorra den zerbaitekin. Adibide bat:

f.a. persónia korputza austu eitzen da

Hala ere, beste zenbaitetan bikotekideak erabat sinonimoak dira. Esate baterako:

- “Eskañi /eskeñi /eskiñi //eskindu” (kom. “eskaini”); eta honela diosku Arrate aldeko lekuko zahar batek:

raz1 °“eskiñi” ta “eskindu” bá-ta

- “Segi //segidu /segiru” formak ere erabat berdinak dira; dena dela, aditza jokaturakoa, erabilera arruntetan atzizkidun formak askoz ere gehiago erabiltzen dira; aginteetan, ostera, “segi” forma bakuna da gailentzen dena. Ez daukagu garbi, dena dela, “segi” hori aditzoin hutsa den ere, batzuetan hori dirudien arren, partizipio burutu - aditz nagusi gisa ere jaso delako. Adibidez:

kmz3 °... ápartau suan a góitxi-bera <ez du garbi ahoskatzen> eo ara gora ero... numbaitxea ta, · ségi najuan da...

rmz5 °... arrixa iruate-juen ee, amendik ara béste! ·· guk es!: guk e satí ba-pañá gu-ségi tta ségi tta ségi ee...

nme2 ségixosu órta-siar -*kmz* °bixárr alakó-ordúan, · ségi!

kmz7 °... Bergaretxe onddio be antxe, ar- atzenerarte segidu dau!

rmz °baai! Lésetabeletxen segiru juen geruao bé!: · neu-jote-nitxuam-betí anngo garíxa-betí · ni mákiñiain [sic] joten!, · beti jakiñeko bierra! -*naz* árek an segiru ... jone, etxíttun mobídu!

- "Itzuli /itzuldu", "volcar" esanguraz. Eibarko forma arrunta "itzuli" sintetikoa da, baina baserriko lekuko gazte baten ahotan "itzuldu" forma ere jaso dugu:

rmz °narra itzuli da
rag1 °[gurdia] selan itzuldu da ba?

- Atal honetan gehienbat "-i" amaieradunak aurkeztu ditugun arren, beste-lako amaierekin ere gauza bera gertatzen da, "tiratu /tiretu //tira /tiro (eiñ)" aditzarekin gertatzen denez, baita "kostau //kosta" ere. Hona nolako adibideak jaso ditugun, batzuk aurkeztearren⁵:

nme2 -se im-bi-da? ... -tirétu!
S.B. tiratu oni //tiratu neban, tíra ein netzan
S.B. tirA oni
f.a. tíra! (jatekoa ateratzeko)
kgg tírOlxosu óni
kgg -sé-im-bia-da? -tíra-iñ
kmz °a!, neré andriak ni-iltze-naixenian e · tópatzen be · kóstauko-ako, kóstau!
raz1 askó kostA-aku orí -naz asko kosta jaku ori-ittia, e?

- "Ase /asetu" bikotean forma biak erabiltzen dira, nahiz eta bizitasuna "bete"-ren menpe dagoen. Orokorrean, lekuko guztiek darabilte "ase"; eta "asetu" onartzen ez duen bakarra *kmz* kaletarra da. Osterantzean, "asebete" jaso diogu S.B.-ri, baina niri behintzat oso forma arrotza begitantzen zait (agian hobeto aztertu beharko litzateke forma horren erabilera). Jatekoz betetzeaz gain, bustiak handitzea ere esan nahi du, egurra esate baterako. Adibiderako:

rmz °a!, · óixe!: suluaa badauka sitzána ero bañá..., tiam[sic]-barrikiak etxá-kak...: as- asé, asétakuam-péau itxen dok a egúrta taa · akábo!, tao járixoik!

1.1.2.2. Alternantzia: -(t(x)/d/r)u partizipio soila/aditz perifrasiá

Kasu hau bestelakoa da, ez daudelako partizipio bi parean, partizipio bakun bat eta aditz perifrasi bat ("hitz anitzeko unitate lexikala" ere deritzona) baino. Adibide bakarra landu dugu galdekizunez, lehengo "austu /autz eiñ"-ez gainera: "biur(ri)t(x)u /biurrixa eiñ". Nolanahi ere, badira erdibideak ere: "biurritxu bat eiñ", baina kasu honetan "biurritxu" izena da, ez aditza; antzerakoa da "biurri bat eiñ". Azken finean, egitura perifrastikoan partizipioa (edo horren jatorriko unitatea) izen gisa erabilia dago, eta euskaraz (Eibarren behintzat) aberastasun handia duen bide bat sortzen da horrela. Beste aukera bat "trokau, okertu" erabiltzea da, edo "apurtu" orokorra.

Kontuan hartzekoa da "biurtu /biurritxu" bikotea erabiltzen dela, baina gai hori hurrengo atalean jorratuko dugu.

5. Hemengo adibideek beste ataletarako ere balio dute: "1.1.2.2. Alternantzia: -(t(x)/d/r)u partizipio soila /aditz perifrasiá" eta "Gaztelaniako maileguak: "-ar" amaitutako formen egokitzapenak".

Gauza malguekin erabiltzen dira forma guztiak, eta anatomian eritasuna sortzen duen arren, beste gai batzuetan teknika ere bada. Adibidez:

nme2 °ee... u- urritxa! urritxaaa... · edo sumía eró, · biúrto, · da geró bátu áre-kiñ, da txórtabarrak arekim-batuta eote-sien

Guk metodikoki jaso ez dugun arren, bestelako bikoteak ere sortzen eta erabiltzen dira: “baltzitu /baltz-baltz eiñ”, “jorratu /jorran eiñ”, “lotzatu /lotza-lotza eiñ”, “andratu /andra eiñ” erakoak, adibidez. Kasu hauetan, goian ez bezala, ez dirudi “baltz” izena denik, eta moduzko esangura du nagusiki. Beste adibidean, “jorra-” izen gisa erabil daiteke, baina ez dakigu aditzetik sortutakoa den, ala ize- netik sortutako aditza. Beste adibide batzuk: “majaderotu //majadera eiñ” (“atontarse” esateko, genero marka eta guzti); “tiratu //tira eiñ /tiro eiñ”; “kontu- ratu //kontuan jausi”, kasu honetan aditsoineko kasu markaren aldaketa dagoen arren, partizipioan adlatiboa eta perifrasiaren inesiboa; “be(g)iratu //be(g)ira egon”; “tentetu //tente ipiñi /tente jarri”; “umetu //ume biurtu /ume moruan jarri”; “gisondu //gison(a) eiñ”; “iskotu //iskua bota”; “gaixotu //gaixo jarri”; “(b)ustartu // (b)ustarrixan lotu”; “billurtu //billurra sartu /billurra emon”; “ordenau //ordenan jarri”; “setu //se-se /xe-xe eiñ”; “txikitxu //txiki-txiki eiñ”; “illundu //illun-illun eiñ”; “deitxu //diar eiñ”; “odoldu //odoles eiñ /odoles bete /odola eiñ /odola(k) urten”; “labandu //laban eiñ”; “alegindu //aleiña eiñ”; “maspildu //maspil-maspill eiñ”; “tratau //tratua euki”; “faltau //falta isen”; “gomitxau //gomitxuka eiñ”.

1.1.2.3. Partizipio amaieran -i + -t(x)t)u osagaiak azaltzea

Etimologikoa ez den -i- zatia gehitzen da aditz batzuk osatzerakoan, batez ere erroa “-tz” afrikariz amaitutakoak. Esate baterako, “baltz”-etik “baltzitu” egi- tea erabatekoa da Eibarren, “baltz”-en esangura gehientsuetarako; hemen hain- bat esanahidun adibideak:

f.a. orí e tximínixian ondúan baltzítu ein da
f.a. gólpiakin baltzítuta dákat besúa -kmz atzaskola baltz ja- baltzítu eiátak
f.a. órrek e ónuskero baltzítuko sian euskixa ártzen
f.a. pastela pasau ta baltzítu ein da

Are gehiago, aditzetik izena ere sortzen da: “baltzixuna” (kom. “beltzune”), “baltzuna” arruntaren ondoan. Nolanahi ere, bestelako partizipioak eta perifrasi- ak ere erabiltzen dira, esanahiaren arabera: “morau-morau ipiñi”, “baltz-baltz eiñ”; “morenotu”, eta abar.

“Gatzitu” da beste forma bat, baina ez da Eibarren asko erabiltzen, ezagutu lekuko nagusi guztiek egiten duten arren: “gatzetan ipiñi /jarri, gatzetan e(g)on, gatza emon, gatza eiñ” eta antzerako perifrasiak arruntagoak eta erabiliagoak dira. Adibideetan ikusteko:

S.B. bakallaua gatzítu ein bia da
S.B. urdaixa jarri bia da gatzetan //*S.B.* gatzétan ipini
f.a. úrdaixai gatzá emon bi-ako
naz bakállauai gátza im-bie-jako

Erabileran bikote honetako forma biek dute bizi handia: “ostu/otzixtu”, baina agian “ostu” sarriago erabiltzen da Eibarren, lekuko en ezaugarri soziolinguistikoa gehiegi ardura ez duela; aipatzekotan, lekuko gazteenaren ahotan “otzixtu” forma biziago dagoela, zaharren joera bestelakoa den artean (*nme2* lekukoak ez du forma hori eibartartzat ere jotzen).

Bizkaierazko beste eremu batzuetan goiko egitura hori beste forma batzuetan ere erabiltzen den arren, Eibarren *-t(x)u* atzizkia ezartzen zaio lexiari zuzenean (*-i-* gabe). Adibide batzuk ipintze aldera, “pustu” da Eibarko erabateko forma, eta “putzixtu” ez da ezagutu ere egiten; berdin gertatzen da “ustu”-rekin ere: horixe da Eibarren erabiltzen den forma bakarra, eta “utzixtu” ez da hemengoa; berdin “astu”⁶ (kom. “ahaztu”), “atzixtu”-ren lekuan (J.A. URIARTE, 1995, 538-539). Horien ondoan ezar daiteke hau ere: “pustu”; honen esangura eta erabilera pragmatikoaren berri dakarkigu lekuko batek:

naz °[sabela]”pustú” estot entzun sékula...: <erdi barrez> bai, “áixau i-jata”... ·
túbom-ba-sartu esik esim-pustu... <barrez>

Lekuko horrek dioskunez, semantikoki lotuta daude, baina ez dira bat “pustu”, “aundixtu” eta “aixau”: bakoitzak bere esangura ñabardura du. Agian hori baserrietako bereizketa izango da, sarritan gorputzak (batez ere animaliena, gaitoxotasuntzat ere hartzen delako) haizez betetakoan “aixau” terminoa erabiltzen delako; eta “aundixtu” bolumena hazitako edozer egiten da. Kaletarren artean, ostera, ez dago halako murriztapenik eta “pustu” edozertarako erabiltzen dute inongo egokitasun kezkarik barik. Adibiderako:

kmz tripía e ... pustu- pustu áta

Bestalde, *-i* berez duten formak ere badaude: “satixtu”, “txikitxu”⁷, “gorritxu”, “lodixtu /loritxu”, “garbitxu” eta abar. Hemen koka daiteke “biurritxu /bigurritxu”, eta aipatzekoa da arestian aurkeztutako “biurtu” forma dela atal honetako hasieran aurkeztu den gertakariaren alderantzizko adibidea; hau da, “berezkoa” duen *-i-* bokala morfofonetikaz kentzea (haietan erantsi egiten zen bitartean). Agian gakoa “bihurri /bihur” bikotean dago, bakoitza bere partizipioarekin. Homofonismoz, bestelakoa da “bihurtu” esangurazko “biurtu” aditza. Azken honen adibide batzuk:

nme2 Jesúkrístok, urá-ardau biurto sebán –*naz* Jesúkrístok ·· úra ep- eee... · ipiñi ·· -o”biurto” séla esangot?... ·· “biurto” sela esangot, abér?

6. Aditz honen “aistu” aldaera ere jaso dugu Aginagako *nme2* lekukoaren ahotan, baina emazte elgoibartarraren eraginez jaso duen forma izan daiteke. Gainera, lekuko horrek laneko harremanak ere izan ditu herri horretan. Dena dela, lekuko horri jaso diogu beste aldaera bat, bokal luzezkoa, baina uneko ahoskera dela uste dugu, ez aldaera sistematikoa; hona zer dioen: *nme2* “°bai, bardín da!: «”áistu”» · esaten d’amén eta or · Bískaixen “áástu” [sic]”. Esaera arrunta da zaharrenean artean honako hau: *kaz2* “°éuskeras ástu ta érderas ikasi es!”.

7. Hemengo adibideek beste ataletarako ere balio dute: “1.1.2.2. Alternantzia: *-(t(x)/d/r)*u partizipio soila /aditz perifrasiá” eta “Gaztelaniako maileguak: “-ar” amaitutako formen egokitzapenak”.

Edozein modutan, beste kasu batzuetan aditsoineko jatorriko kategoriako amaierako *-i* bokal sabaikaria galdu egiten da, hala nola “(b)ustarri- + -tu > (b)ustartu”, eta ez “*(b)ustarrit(x)u”. Horrelakoa da “neurtu” ere (“< neurri- + -tu”), baita “orrastu” (“< orratzi- + -tu”), “naustu” (“< nausi-⁸ + -tu”) eta abar. Dena dela, gertakari morfofonetiko hau euskarazkoa da gehienetan, orokorra.

Aurkeztu berri diren bi bideetatik sortutako aditz bikoteak ere badira, dena dela. Esate baterako, hemen koka daitezke “ugarri /ugeri” oinarritzat duten “ugarritxu /ugerritxu” partizipio forma osoena, zein “ugaldu /ugeldu”, amaierako bokalaren galeraz kontsonante dardarkaria albokari bihurtuta, morfofonetikaz. Biek ere esanahi beretsua dute Eibarko erabileran, zerbait geroago ugariago izatea, alegia. Adibiderako:

kmz oingo astían ugarítxu ein ditzuk · eulíxak
nme2 kótxiak ugerittu in dia, ásko ugerittu dia
nme2 “ugarittu” ero “ugeldu”, bai!: berann... bárdiñ esa-nai dau –naz “ugaldu”
ero “ugarittu” igual da
f.a. ugéldu ein dia askó e eulixak

Horrelakoa da “bistu /pistu //bisitxu” bikotea ere, “bisi-” oinarri duela.

1.2. Bestelako amaiera arruntak

Ondoren aurkeztuko ditugunak forma arruntak direnez, bai formaz bai lexikografia aldetik, Eibarren erabiltzen direnen zerrenda gisakoa ezarriko dugu; baina Eibarko partizipioen hiztegia ere ez dugu egin nahi izan, eta hemengo “zerrendak” beste lan lexikografikoago baten osatu beharko dira. Erabilera aldetik zerbait nabarmena edo aipagarria jaso dugunean zehaztuko dugu azterketa honetan; esate baterako, partizipioen aldaera morfofonetikoak. Noiz edo noiz bitxiak edo gutxi erabiliak diren aditzen adibideak ezarriko ditugu multzo bakoitzaren ondoan. Polisemia kasuak ere jaso direnez, horiek ere adierazgarriak diren neurrian aitzen emango dira. Esaerak eta antzerako lexikalizatutako egitura batzuk ere ekarriko ditugu azterketa honetara, bide batez.

1.2.1 Bokalez amaitutakoak

1.2.1.1. -a amaieradunak

Hainbat partizipio jaso ditugu, baina “bota” bereziki landuko dugu. Izan ere, aditz honek dituenetatik, jaso ditugun esangurak (gehientsuak behintzat) aurkeztuko ditugu hemen, unitate lexiko bakoitzaren benetako erabilera bizia eta aberatsa erakustekotan. Hala ere, batu dugun partizipio bakoitza horrela jorratuz gero hiztegi lana egingo genukeenez eta oraingo azterketa gehiegi luzatuko litza-

8. Hala ere, ez aditzetan, osterantzeko egoeretan baino, umeei egotzita “naus kontuak” ere jaso dugu (batez ere Aginagako lekukoaren ahotan), izena bera amaierako bokal sabaikaririk barik.

tekeenez, beste aditzen esangura zehatzak ikusteko adibidetegian begiratu baino ez da izango, han kasu bakoitzean duen esangura ñabardura ere markatuta dagoelako, nabarmena edo zalantzazko kasuetan behintzat⁹.

Beraz, “bota” aditzari ekinez, bai euskaraz orokorrean eta Eibarren ere, oso arrunta da; baina esangura eta erabilera bereziak ere baditu. “Echar” esangura zabalenean ikusteko, dituen hainbat ñabarduraren erakusgarri zenbait adibide:

“Gehitu, erantsi”, “añadir, sumar, aumentar”:

rmz °txakoliña, daukan úra, ta kítto!; sárdauai úra botatzea(k)ok, da estutu átze-ra... bóta berriro urá beste ur pixkat eta-atzea estutu!; txakoliña be txa- gurian séku-la txakoliñai e... etxako bota urík!: bera-daukana ta kítto!, akáo! úri-barik... sárdauai úra: sárdauak ura biaok, pixka-biaok! bestelaa lodíei-itxen dok eta esto-garbitzen-da amarréтик ee pááre bat ero ura biok!...

“Jaurti”, “lanzar, echar moduan”:

rmz2 °... da, · ártu geró txínga dának berák, txíngok ártu bíxok, · dá! dá! dá! lélungán da bigarrenan rékorra batídu, · d'autóridádieri, bráu! mái gáñera botá t́ín-gak ...

rmz2 °... in juén, · oin kámpo-fúbola daon lékuan, antxé-egalían, eskábadorakin sulúa iñ · bóta-arríxoi tta énterrau! ...

Zerbait norberarengandik kendu, “echar” zentzu zabalenean:

f.a. orí botaisu basurára

Gora egin, botaka egin:

raz1 bóta in dot

“Bidali” esanguraz:

kmz1 °...[eskoletan] ba bátian rebótian da béstian rebóten [sic] da béstian rebó-tian, ba balío estabena-pe orráxe botátzeitxúe [Eskola Armeriara]

“Emitir, retransmitir” esanguraz:

raz1 °baai! telebisíñua-bota dau!: oin diferénte bótatzen dau Euskálerrikúa!

“Zabaldu, sakabanatu, banatu”, “esparcir” esanguraz:

rmz °... astiam-burdiká bat eró, bóta ta-an orbel gáñian · loitxe-juen ardíxak!

Aurrekoarekin lotuta dago, baina “erein” esangura zehatzagoz jaso ditugu beste zenbait adibide; esate baterako:

9. Ohar honek atal honetako amaiera guztietarako balio du, eta ez dugu berriro errepikatuko esangura zehatzak adibidetegian aurki daitezkeela.

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

rmz °jorra- nábua jorratzen dánien, · miéstem-ba paótxa botá!
rmz °geró ba ga- garixaa jotakuan · nábu eraiñ!: labráu ta nábua bóta!

Ez gara ausartzen aditz perifrasiak direnik esaten, eta agian kolokaziotzat har daitezke “símaurra bota” erakoak. Edozein modutan ere, aurreko esangurekin lotuta dago. Adibiderako:

rae °da, seláixe-pee símaurra botá!

“Eraitsi, behea jo eragin” esanguraz (horrez gain, zerez jarduten den, apurtea ere esan nahi du):

rmz °bératxuaoo Maltzá-sar dá, a-autopístia-s- bota júan!
ñaz2 °ba, [pagadia] óndiokan séma-demporaa... bai e..., ba e...: neri be ákor-datze-ata selam-bota san dáá
kaz2 °... aítxak esatestan · o- ai!... -”óratidan nerí! · aixia-bótako au bestela ta”:
ni, ni, afankérixak eitxen! bakar-bakárrik... · béra jáusi! aixiakiñ!: béra bota! ... ta -
”bai!, ona- bóta-najóm-ba!”

“Igaro”, “pasar” esanguraz:

kmz3 °... lístia pasatzen dabénian soldaueri ba, · berátzirak ero nana[sic]-dalá!, rrá! ta ántxe!: bestei- geo játera be, geure-etxea juate-giñuan · Loyólan!, en Loyóla!, bai!: óndo bota najua-nik!, · bai ba!, jan da eran ein dda...

“Esan”, baina desafio gisa:

kmz3 °... áuxe bota étzan!: “ari naisela ... oso dotore-etorri saigu bi alkondore jantzíta”: baii... alkauetiak ikusi étzen da!, óixe bota étzan!

Jaso dugun adibidea izatez aditz izena den arren, interesgarria iruditu zaigu partizipio honen esanguren artean kokatzea, “egin”, “producir” esanahiz:

nme2 °... edoo... errés gausía botatzen dabénian eró, “orí ugeríxa da”; edoo, gausa bátek eee... abundánte urtetze-dabénian eroo-ortúan eroo erosein tokittan e, “ñó! aurtén ugeri dao”: ero frutía nai eóser gausa..., “ugéri dao”

Euria, txingorra nahiz eguraldi oso eskaserako; esaterako:

naz °[eguraldi oso iluna delako] ... au da!, au da...: estáki-se bota bie-daben, e?, s- bóta bi-dau, buenó!, púú!

Partizipio hutsa, aginte gisa, zerbaiti ekiteko. Adibidez:

kmz °... Buéno! bóta! <grabaketaldia hasteko aginduz> -*kmz1* °abér, bóta! <*idem*>

Atal honetako beste zenbait partizipio aipatzerakoan esangura aniztasunera jo beharrean, aldaera aberastasunari joko diogu. Esate baterako, “laga /laa /la” aldaera fonetikoak jaso ditugu, eta forma osoena eta murriztena, denak oso bizirik dau-

de eguneroko ahozko jardunean. Izan ere, arrunta da bokal arteko kontsonante ahostunak frikaritzea eta galtzea; bokal batuketaren ondorioz murrizketa ere gertatzen da (“laga > laa > la”). Gainera, adierazgarria da forma murriztenak lekuko zaharren ahotan bizirik egotea, hala nola *naz*, *kaz3*, *kmz3* eta *rmz*-renean; eta ikusten denez, bai baserrian bai kalean erabiltzen da horrela. Adibide batzuk:

kmz °la- lága íngotzau? –*raz* °ori lága bakían //°baái! -”...nóbixuari e lága etzála-ko · bérsuak etára-etzesen”

raz5 °... da, · bárre! béstiek eta -”bárre itxen dok? ·· así bari-laa najuan da ...”
–*rmz* °saárra <”sagarra”> batú ta, jó! · eum-báten laa ee ·· koloría-artzén da gero estútu! · da barríkaa!

naz biarra la [sic] dou erdis- erdix- erdiiska indda –*rmz* °bíxei batera lá-akuen dá!: garixa kendu sániam-ba-artua bee eee... ñ- terre- esébes!, e- erdíxa!: alpápe botá ero sekula-bear ero sélai láá! i- iñ- in sían dá! –*kaz3* °... launekin juan sa-nere aistian etxera ·· éskutatxera · da, an la sitxuen ·· a- ármak

Beste leku batzuetako “utzi, itxi” formen aldean, Eibarren “laga” da nagusi lekuko guztiengan, “itxi” ere noizbait entzuten den arren. Umore onez honela diosku lekuko batek:

S.B. “atia sabálik itxík” eta órrek txíste morúan da esaten dia órre-baña amén “laga”

Polimorfismodun beste aditz bat, “-a”-dunekin amaitzeko: “etara /atara //eta /ata” (kom. “atera”), forma osoenetik murriztena. Eibartar guztiak darabilte “etara” forma, baina forma murriztagoak ere bai. Gainera, lehen ere aipatu denez, zaharrak dira forma murriztenen erabiltzaileak; kasu honetan lekuko hauei jaso diegu “eta” forma: *rmz*, *kaz3*, *kmz3*; adin ertaineko *nme2* eta *rae* lekukoek ere badarabilte forma hori, baina jatorriz Aginagakoak direlako eta hango hizkera Eibarko murriztaileena delako orokorki. Aldaeren adibide batzuk:

kmz1 °beim-báño geixaotan esáte-júa-nik: éuskas-séñek e señék etára juan éuskería? <”asmatu, sortu”> –*raz1* °gaur goixiam-be-ederki píkatze-isen dau égoya eon da ta; geo etara dau, ifarra etara dau, e? / *nme2* bas’ónetatik egurr ásko atára dabé

rmz2 °... eta, -”éu-sé ingo euké-euré idíxekín?”, dda -”nik orrék?, idi páre batekiñ etáa!”

rae °lénao bedárronduak eta gero gari-ebatia! Geróo... · e, e, garí ontzuek ee, galtzúek e · sertú! ·· astártu tee erréta ipiñi! e náborako preparau!; gero patati etá (“atera”)! –*rmz* °formóya eee... ·· mallukiain [sic] jota ee sértzekua!, kantóyak e artú ta ítxeko tá... · formóya! Burdíxa ítxeko bee aa (?errellía sartzekó, áre-kanto-kuadruak e formoyakin etá (“atera”) bi-juek: lélengo sulua in da geróo... jan!, glá-glá ta trást!... –*kaz3* °... pístola-sa- sulópetik ándik etara sitxuan! · suelo-rrásotik eta (“atera”) sitxuan... / *nme2* am-basótik, · egurr ásko atá dabé

Aldaeren aurkezpenean zein adibideetan ikus daitekeenez, murriztapenez gain, bokal alternantzia ere gertatzen da Eibarren, bokal irekiaren asimilazioz: “Etara /Atara”, eta forma murriztetan ere alternantzia hori jaso egiten da: “eta /ata”. Guk Aginagako *nme2* lekukoari jaso dizkiogu “-a”-dun formak, eta agian ezaugarri hori Aginaga aldean egongo da bizien, baina kalean ere entzun daiteke; izan ere, hala jaso diegu S.B. lekuko kaletarrari, adinez zaharra. Dena dela, lekuko horrek “e”-dun formak ere badarabiltza, eta alternantzia banakoarengan ere gertatzen dela aipa daiteke.

1.2.1.2 -e amaieradunak

Atal honetan ez dago partizipio asko; euretariko bat: “erne”. Kasu honetan, batez ere landaretarako erabiltzen delako agian, baserrietan arrunki erabiltzen da, baina kalean galtzen doa, eta are gehiago gazteen kasuan, hain azkar eze, “ernetu” forma ere iradoki digu *kgg* lekuko gazteenak. Gainera, Eibarren “erne” landareak lurretik irtetzen duenerako erabiltzen da; baina itxuraz Biologian beste era batera erabiltzen da. Hona zein iruzkin egiten duen -Biología euskaraz ikasitakoa dela kontuan hartzekoa da:-

kgg [“ernaldu” ala “erne”] °lénao; segurasko e osea, biologian, lénao: osea, ernetzen daa así barrúan, ernetzen da ero ésta ernetzen asixa, ta gero urtengo da lándaria. Baña bueno!, osea, biologían, e?, baña bai... .. <<“ernaldu”>>, “ernétu” ... nik o- órrek selan asko erabili ditzurasen karrerán...: géixao erabilitxu-karrerán eta batuan, etxian baño, es? Etxian estaa... estáki-sékula erabili dóten, es? ... Bai-bai, baña etxian erabili-isango neban íru aldís eta karrerán erabili dot bos-miya-aldís...

“Erre” partizipioaren adibide batzuk ezarriko ditugu, esangura aberastasun eta ñabardurak erakuste aldera:

kmz °e? orújuak?: aré-pe, ggggrú! ére! [edandakoan, alegja]
asum-bátek ee ére ista, ... ére i-nau (“picar”)
kgg bombíyia ére-in da (“fundir”)
kaz1 °... Suloaganeke etxiak etá... · órre-dáánok e... · Kombéntu- Errebáleko kombéntua ta... · edifisio edárrak e, · erre sitxuen... · e-derrak erre sitxuen
kmz °es erré ta es erán! · eitxen dau árek (“fumar”)
kmz1 °... nik estáka-prixarik, nik estákat e an ser eiñ- ser eim-be...: unikamente ba txúletak erré-ero txúletendako séoser eró (“asar”)
raz1 okeliá · s- erre- ee prijiru eim-bi-da, “prijiru” ero “erre”-eró... “prijiru” ta “erre” ba- ba-ta (“freír”)
rae °umia erreta dao, oera jun biko dau (“agobiar, malhumorar”)

Beste zenbait: “bete, ase, gorde”. Esaeretan erabilita:

nme2 °léna-(?)setzena “Natúbittete [sic], asé ta bété”

1.2.1.3. -i amaieradunak

Kopuruz aurreko amaieradunak baino gehiago dira. Aditzen batzuk gehixeago garatzekotan, “jaiki /jagi” bikotearekin ekingo diogu. Izan ere, Eibarko forma hedatu eta arruntena “jaiki” da, baina mendebalderago ere arrunta den “ja(g)i” ere jaso dugu, hain zuzen, *raz*-ren ahotan, eta ziurrenik beste batzuen ahotan ere forma hori erabiliko da. Adibiderako:

raz °... eske írurak ingurua eskéro nik ési-neban ein lorík, esi-nében [sic] ein lorík, ta jagi-itxe-nitzan
raz °... níik írúra-pásauta ta juate-ee, ni oéti-jai [sic] txa ni járrí órtxe!: ni- amaika jertzí ein dó-nik or!, a e éureri sañ! //raz °... eún batén atía itxí be-eiétzen onék e?, ta ní jaí txa-atía sabáldu!: onék atía itxí be-iétzen, e? ... Onék e atía itxí!

“ibilli /ibili /ibiyi” aditzaz hainbat gauza esan daiteke. Polimorfismo fonetikoa-ri dagokionez, kontsonante albokari sabaikaria da formarik arruntena Eibarren, baina albokari soila ere erabiltzen da. Bestalde, “yeismo” delakoa Eibarren ere gertatzen da, baina hori “ll /y” banaketa soziolinguistiko orokorrenarekin lotuta dago. Izan ere, gu konturatu garenez behintzat, afrikaridun aldaera (“ibiyi” alegia), *kgg* lekukoari jaso diogu bakarrik, baina entzun, gazte jendearen artean geroago sarriago entzuten da. Hemen diogunak “ll /y” alternantziadun beste aditz guztietarako balio du. Hauxe dio *kgg* berak bikote horren erabilera idiolektalaz:

kgg °bixak; segurasko geixao e/ekin eyekin baño, baña... .. nik uste dot... está-ki-dan bixetara ero bixen arteko náste bá-baña... es, bixetara

Beste aldaeren adibide bana:

rmz °e, gure- nerekim-batera es baña ibilli órre-pe ortxe! dánok!, · Félixa be or ibiliko súan dá, dának!

nme2 “juen día, koltxói méyetara jo- ee jolástera · -ero- ibiltzerá”. · °Oĩñ ónek e gasté barrixo-”jolástu” esaten dabe ta nu- guk lén Eibérrem-ba [sic], <”jugar”> “ibilli” esate-gendúan

Bestalde, aditz horrek esangura eta erabilera arruntez gain, badu aparte esatekorik. Izan ere, ziurrenik bere murrizketaz sortutako homofonismoz izango da, baina gaur egun “ibilli” sarri entzuten da “erabili” esanguraz. Esate baterako:

kmz1 °ta-á <<ísketía>>, · está galdú á, á gal- a beti án-(?)... <<ísketía>> ibíli dá! (“erabili”)

nme2 irú mendittako arríxa · ibili dou (“erabili”, “usar”)

Esaeretan ere erabiltzen da, hain ezaguna den “ondo ibili” gjsakoetan. Adibiderako:

kmz °<emazteari> adióxx!, ondo ibillí!

“Jarri” aditzak ere esangura asko ditu, baina agian aipagarrienak “eseri”, eta landareak landatutakoan gogortu eta hazten hasitakoan esaten denean da. Osterantzean, “poner” esanguraz Eibarren sarriago erabiltzen da “ipini /ipiñi” aditza, biak erabiltzen diren arren. Esangura batzuk erakusteko adibide batzuk:

kmz °járri ári! ··· ner- nerbióso ipíntze-nok-etá! –*kaz2* °... jári nitzan da, · <oso baxu> biarra in da biarra in da biar... · jó saspírak eta · bierrien! · e?, dómekia ta saspírak eta bierrien... (“eseri”)

raz1 °... ain delikáua-járrí gara-ain delikaua-jarri gara danók...! //raz1 °... gure bárixua gránde jarri da, amengó · tallárra t’amengo bertedérua ta... –*ena* °ba, San Jun kalía dotore jarriko da! (“volverse, ser”)

rmz °bai!, idíxa ee, lotuta eotia ok ónena! ··· léngo moruan!, lem-biarra ta biarra ta biarra itxe-juen da idíxa eote-suam-ba gógor!, góor!, e antxee jarritxa júuasen araxe ta, · eun gustia lotuta!, eun gustia lotuta ta baa, eun gustian lotutakuan aaa... a jarritta daok (“ohitu, hezi”)

kmz sein jarí do-telefonuan? //sé? moréno jarriñxuk alá? –*nme2* neréé neure gain dao · posí-jarí edo es ··· -eo- posí-jártzia //nme2 abér! ··· jári sutík! –*naz* dána-tente jarri sien //naz ori jarri da txarri batenn tamáñan lodittuta (“ponerse”, ñabardurak ñabardura)

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

kmz1 °... eta ba, · eitxen da kóntuoi tta gu- millá peséta badá ba igual e seiréun peséta eee ero jarri... (“ipini, bota”)

kaz3 °... gisonana be · ibiltzeko gausa estala jarri nitzanian jua- · la netzan jua- tiari gisonána be... (“geratu”)

kmz10 “...Gero hortik grupotik, hori ekin zetsenetik, formau zan UGTia eta al mismo tiempo bertan egunian, jarri zan bai Partido Sozialistia ...” (“sortu”, “fundar”)

kmz °járriko da? <hezurra apurtuta duen idia, ea sendatuko ote den>

raz1 °bai baa, oixe! bíxa-dia, e? ... “lurrá-artu dabe” ta “jarri dia” bat-ta, e?

“Ipiñi /ipini //ifini /ifiñi” aldaerek batez ere bokal arteko “p /f” alternantzian erreparatu eragiten dute. Afrikaridun aldaera Kinarraga-Otaolakoei entzuten zaie gehien, baina kaletar batzuek ere noiz edo noiz badarabilte¹⁰; Arrate eta Aginaga auzoetan ostera, oso arraroa da, orain hilda dagoen *raz5* lekukoaren ahotan sarri jaso dugun arren (Maltzagakoa denez, agian Kinarraga-Otaolako eragina izan dezake), leherkariduna baino.

“Eratxi”-ren definizio garbi bat jaso dugu:

nme2 °erástia da makílliakiñ eró · jóta s- sagárrak eta e- “erátxi” ori da; · ta, eraittia da ·· “sakudir”

Dena dela, aditz honek bizitasun txikia duela esan daiteke, kaletarrek ez dutelako erabiltzen (*kmz*-ren kasuan, esate baterako), edo ezta ezagutu ere, *kgg*-ren esanak aintzat hartuz gero, argi dago ez dakiela zer esan gura duen eta nola erabiltzen den:

kgg “eratxii”, °beixak estia erásten?, es? [“jatxi”, “ordeñar”-ekin nahasten du] ... baña bueno!, batúan “eratxi”, es? <barrez>, bue! “eratzí”, bai. Buó!, bíxak, e?, “jeitzi” ero “eratzí”

“Jo ta eratxi” esaera legez ere erabiltzen da borroka giroan, bestea menpean hartu dela adierazteko. Adibiderako:

S.B. burrukan jo ta eratxi!

Hain zuzen ere, “jatxi” (kom. “jetzi, eraitsi”) da *kgg* lekuko gazteak ondo eza-gutzen ez duen beste aditz bat, eta berari jaso dizkiogu “jeitxi” eta “jaitxi” formak, baina alfabetizazioarengatik egiten ditu horrela, noski. Izan ere, “ordeñar” eibartar dioten denek “jatxi” darabilte. Jardun askeko adibide baten ikusiko dugu nola erabiltzen den era jatorrean:

nme2 °... lem-bei- esníaa · kaléra erute-sanian, · aitte-sána-jatxí tta · baldátik e ·· “errobérua” esate-akon!, esné berúaa jatxí tta..., seláko trágu-jote-gendusén! da · guk es genduan eser eukitzen...

10. Eguneroko jarduna entzutean konturatu gara adin ertaineko kaletar batzuen aldaera bakarra hain zuzen “ifini” dela, eta agian banaketa geo-soziolinguistikoa hobeto aztertu beharko litzateke galdeketa zabalagoa eginez. Dena dela, alderdi fonetikoan aztertzeko gai bat da, alternantzia hori beste berba batzuetan ere gertatzen delako.

Aditz horren traza fonetiko handia duen “jaitxi /jeitxi //jatxi /jetxi” forma (kom. “jaitsi”), ostera, ez da oso erabilia Eibarren; izan ere, lekuko zahar batek dioskunez:

kmz °gú-“bájau” esaten dou ... baña “jeitxi” be ondo- ondo esanda dao

Hala ere, darabiltenek jator darabilte, “bajau /bajatu” bikoteak indar handiagoa duen arren, eta hori adibideen bitartez ikusten da ondo. Gainera, “jatxi /jetxi” forma murriztuak ere jaso ditugu, *yod* bakoak. Adibide bana:

naz séñ aritxétaraño jáitxi daa suá? –*rae* °goiko puntara jatxi arte esan trankill eon (“llegar” esanahia du adibide bietan, eta gainera azken honetan hain zuzen ere “bajatu”-ren antonimoa da)

raz1 °be bai, “jatxi” txa “bajatu” ígual

nme2 °jéitxi” ero “jeitxi”, íguél da, · bat esa-nai dau

Nolanahi dela ere, alfabetizazioak ere eragin handia du lekuko gazteek erabiltzeko; hala ere, forma murriztua inoiz ez baina *yod* delakoaz darabil beti *kgg* lekuko gazteak:

kgg “jaitxi”: °eske bíxak; ta mendítxi-“jeitxi” be bai, “jeitxi” ero “jaitxi” ero...: géixao e-rutz, bíxak

“Erabagi” forma da Eibarren erabat erabiltzen dena. “Erabaki” forma ere jaso dugu, baina hain zuzen oso ondo alfabetatutako lekuko gazteen ahotan; beraz, Eibarko forma jatorra barik, eredu estandarraren eraginezkoa dela dirudi.

“Iñausi” aditza batez ere baserrietan dago bizirik; eta definizioa hauxe izan daiteke:

f.a. “iñausi” da mendixan daren árbolei adárrak ebai

Lehen ere aurkeztu dugun “itxi” formak homofonismoz esangura nagusi bi ditu; bata “ireki”-ren antonimoa (kom. “itxi”), eta bestea “laga”-ren sinonimoa (kom. “utzi”). Adibide batzuk, bakoitzaren esangura eta erabilera erakusteko:

rmz °[Lasueneko taberna] a itxi juen eta-akabo!, itxixa itxi! (“itxi”)

naz ee ástu jakon moruen itxi dau · poltzia baña bera-nai dabela itxi dau (“laga”)

Erabilera txikiko beste aditz bat aurkeztuko dugu: “esarri”¹¹ (kom. “ezarri”). Izan ere, egitura jakinetan (“zerbaiti hagina ezarri” adibidez, baina zerbait arrunta baino gogorragoa-zailagoa dagoenean) eta esaera gisakoetan erabiltzen da erabiltzekotan. Gainera, baserritarrek erabiltzen dute sarriago, edo kaletarrek baserritarrei barre egiteko. Gazteek apenas ezagutu ere egiten duten. Adibide batzuk:

11. “Jesarri” forma ere jaso diogu *kmz*-ri, baina ez Eibarko forma jatortzat, euskaraz entzundakoa baino.

raz1 ° oní sagarroni esi-ako a- agiñi-sartú “: bíxa-ba-tia órrek! ... “esarri” ba, or sáártu im-bitzasu-tá!, baai .. okeliai be bárdiñ ... salla bada ba... -f.a. oní okelioni agíña ési-leixo esárrri
kmz “basárrri!: ·· mókua-kendú ta · fráketan esárrri!”

Eibarren “esi” (kom. “hezi”) batez ere animaliekin erabiltzen da, baina baita pertsonekin ere: jokabideak irakatsi-ikasteari esaten zaio, zailtzeari orokorrean, batez ere fisikoki (eta nahitaez animikoki) eusten jakiteari. Baina bizitasuna baserrietan dauka batez ere, eta lotura semantikoa duen arren, ez da gaurko bizimoduan eta euskara estandarrean erabiltzen den “hezkontza”-ren guztiz parekoa. Adibiderako:

rmz °[idiak] seaa... badakisu séla este-sian!, oingótxe moruan!: lótu ta erabilli tta lotu ta erabilli tta lotu ta erabilli tta ba, ési!
raz1 órre-mu- mutilok e- esi eim-bie-dabe ónddiok, ési!

“Irakorri” ere Eibarren bizirik dago; araututako modua, “irakurri”, jaso diogun lekuko bakarra *kgg* da. Baina aditz hori darabilten beste guztiek “-o”-dun forma erabiltzen dute; beraz, alfabetizazioz ikasi duen forma dela argi dago. Nolanahi ere, Eibarren askoz ere arruntagoa da “leidu /leiru” aditza, bestea denek edo gehienek ezagutzen duten arren. Eibarko eraren adibiderako:

kmz °e? ·· Billálbara!; eta-ándikan goóra, ·· ta · nobélia irakórri: ···· bakéruen · nobélak

Eibarko “asi”, homofonismoz, estandarreko “hasi” zein “hazi” da. Erabilera eta esangura arruntez gain, enumerazioei hasiera emateko erabiltzen da, nahiz eta zerrenda osagai bakarrekoa izan. Zenbaitetan, muga, abiapuntua ere ezartzen du: Adibidez:

rmz °... ostian danian emen idixak!: ási Umáixon ee ·· Barrundíxan, Aikitxetan, ·· Argiñaon, · danien! danien! // *rmz* °a, aararixak emén!?: gurian e-sékula!, gurian estok arari-sekula!, Léstam-bes!: bañ’asi Léstabeletxia-Náárru!, Narruu... bétí!, Nárrunian..., Erdíko, ·· daa... bo- Páulo e, e, Asítxaiñ... · buenó!, · daa Eujenio Arikixá! ·· ararixa?!: bétí ari-topekia!, ási ee... · Plaentzian arari-topekiaa... · ólan ari-tope- o- on- obe-txuaua daueniam-ba... · bénga!
ñaz2 °bai!, errékati-trembiréra bitxártian, asi... ási amén daa · Samákolanekoo páperañoik: (?)oixé san orí, sirrindára! extú-extua, e?

“Hazi” esanguraz, konparazio politak egiten dira pertsonak eta landareak parekatuz; hona adibide batzuk:

f.a. porrua moruan así da
f.a. txopua-moruan así da

Galtzeko gutxi falta duten formak ere jaso ditugu, ez direlako kasik entzun ere egiten eguneroko jardunean: “jarki”, “erei” (kom. “ireki”; Bizkaian “irai” forma ere entzun dugu, Ondarroan hain zuzen), “gatxetxi” (kom. “gaitzetsi”, idatziz gero, baina bestelako esanguraz):

rae °eta selan jarki jakon?!, esan giro inguruan... (“oponerse, sublevarse”)

kaz5 “... behetik aldabia jo. Bestiak atia erei da ura ...” –nme2 “eraiñ” · bai!, eske atía “eréi” · iseten da · sabáldu “eréi”!; eta “eraiñ”, “forzar”, bai!

nme1 °“gaxetxi” esaten da amiak bere umia artzen estabienian, orduan ba bibe-roia ero emon biar...

Gutziz bitxia da “eskurri” forma gaztelaniako “escurrir” esateko; raz1-en ahotan jaso dugu, eta ziurrenik forma idiolektala izango da.

Talde honetako beste zenbait: “jausi”, “etorri /torri”¹², “erabilli /erabili /erabiyi”, “ikusi”, “ekarri /karrri”, “josi”, “euki /auki”, “ebagi /ebai”¹³, “irabasi /idabasi //irebasi /idebasi”, “egosi”¹⁴, “i(g)arri /i(g)erri”, “ikasi /ikesi //kasi /kesi”, “erakutzi /irakutzi¹⁵ //eakutzi” (kom. “erakutsi”); lehenago aurkeztutako “eskañi /eskeñi /eskiñi”; “igurtzi”, esangura mailakatuarekin, “frotar”, “aplicar” eta “acariciar” hain zuzen; “iritxi /eretxi /eritxi” (kom. “iritzi”), “erosi”, “eutzi /autzi” (kom. “eutsi”), “busti”, “esegí /exegí” (kom. “eseki”), “itzuli”¹⁶, “etzi” (kom. “etsi”), “jantzi”, “erantzi”, “iruntzi /iruntxi” (kom. “irentsi”), “jaurti”, “bisi”. Adibide batzuk, horietatik:

raz1 °biarrak itte-sianian, -artúa bakísu, mall- burúa?...- da bátu burúak e serían! · kámpuan ero, solúan!; ka- ekárr! burdikária! dának itzúli serían gámbaran! -gámbarape-edérrak danían ordúan...- · da, da-afaldutakuan, afaldútakuan, e- ausóra! txándan!, ausóra! s- surítzera! -“surítzu” bakisu ser dan?- surítzera!; d’ántxe! o-ántxe, óras muer-tas ántxe, kónttua-kontáu t’áann...

f.a. orrék asko irabasi dau (“gizendu”)

naz °bisí b’ementxe! Emétxee, exkólan ikési, · ementxee ee komúlgau taa emé-txe-exkondu ta emetxe bisí! ... Bai, dána osóik!

kmz3 °... alkondaa · edarra erúaetzak · -“jantzik auxe!” · jántzi etzan alkondarioi baña ...

kmz °ess, ni ess! Beim-bákarri-ja jantzi nabe!: · sei-saspí urte-ero nekaséla, · bakéro!, sombréruakin-da, pístoliakin da..., jóé!, á san emosiñua! (“disfrazatu”)

nme2 °baai-baai-bai-bai-bai! · báaa! ttaa... · sú! len kostumbree séra-sían e · iguél e laroi urteko gíson sárra mesetara jun da-an saiñ, elíxondúan, · eta-abade gasté bat igul

12. Tesiko emaitzetan hainbat erreaziazioaren azterketa fonetiko akustiko egin genuenez, aditz honi dagozkion espektrogramak aipatuko ditugu hemen: “kmz, 12A187, torri(ar)iona”, “kmz, 15B86, torri ai ona”, “kmz, 34B61, torri barrixa da ori”, “kmz, 45B393, torri ona”, “naz, 1A237, etor die,dia le-”, “nme2, 1A206, (makal-mak)ala etor da”, “nme2, 1A224, (gison aundi) bat etor da”, “nme2, 4A184, -kas tor nais”, “nme2, 4A342, -tig etorri die, dia”, “nme2, 7B192, -ar’etorri dia, -are torri dia”, “nme2, 7B193, -dir’etorri dia, -dire torri dia”, “raz1, 13A339, mendiretorri dia, mendira torri dia”, “raz1, 13A340, mendire torri dia”, “raz1, 16B216, bostan etorri da (bostetan etorri da)”, “raz1, 22B385, bixar etorre nei-”, “raz1, 2A53, gisona torri da”, “raz1, 5A369, autobusjen torri gara”, “raz1, 5A381, trenie torri naix (trenien)”, “raz1, 5B115, sue lagunai etorri naix (sure lagunakin etorri)”, “raz1, 8B311, sureitig-etorri gara ona”. Aniztasun hau beste edozein aditzen erreaziazioan ere gertatzen da, aldaera bitxiak ere asko direnez.

13. Ikus aurkezpen zabalagoa “1.1.1.1. “Ebate-” forma” atalean.

14. Ikus aurkezpen zabalagoa “1.1.2.1. Partizipioaren amaieran bokalaren (-i /-e /-a) eta atizkiaren arteko (-t(x)u /du) alternantzia” atalean.

15. Harrigarria da “irakutzi” aldaera kaleko lekuko gazte biren ahotan jaso izatea, kgg eta kag hain zuzen ere: kaleko gazteen aldaera ote da? Edonola dela ere, biek darabilte “e-”-dun aldaera ere.

16. Gauza fisikoetarako erabiltzen da beti, “volcar” zentzuz: burdia itzuli, kotxea itzuli...; baina ez ostera “volver; traducir” esanguretarako, euskara estandarrean egiten denez.

ogetabost urteko abadé gasté ba-lleatze-san da · dána-jaikí tta txapéla erántzii! ·· eitte-akón! · ba saludua, está?, · eta geró-or e Eiberreaa oo... · don Jóxejuan erooo... amén Eibérren dauenn abadé bat etorri san Agiñára! ·· da orrék e proibidutzen e sarrái!
ñaz5 "... txakurra ikusi genduanian, bueno, jo eta zapatia jaurti gentsan amoruakin ..."

1.2.1.4. -o amaieradunak

Talde honetan ez daude aditz asko, baina euskaraz ere horixe gertatzen da, ez dela amaiera "aberatsa", nolabait esatearren. Hala ere, daudenak batzuk eguneroko erabilera arruntekoak dira, eta beste batzuk laburrak izan arren aldaera askokoak dira. Hemen aurkezten ditugu jasotakoak: "jo", "jaixo", "jaso", "ijo /ixo" (kom. "eho"), "itxo /itto"; "lo", azken hau arrunki perifrasi gisa egiten den arren ("lo egin"). Adibiderako:

nme2 °baai, artúe be iuel da. E, artuai-itte-akon, lélenko garándu, ·· garandu! ta gero errotan ijo! -naz °oixé!: "ijó" ero "ixó", bai!
raz °... armúsau, afaldu · daa ló éuren etxétxuan eitxen dabe, ta báskaldu dána-junto

"Igo /io /iyo /igon /iyon /ion" taldean "igo" da forma arruntena, baina besteak ere bizirik daude, batez ere zaharrenen ahotan, alfabetizazioaren eraginez "io" eta "iyo" erakoak gazteenek ez dutelako erabiltzen. "-n" kontsonante sudurkari-dun errealizazio gutxi jaso dugu aldaeraz aberatsa izan arren, eta eurak ere leku-ko zahar biren ahotan eta Aginagako adin ertaineko lekuko baten jardunean; beraz zaharren eta Aginagakoaren artean bizirik dagoen forma da. Adibide batzuk:

raz1 ní-len igo dot · gorá
raz °... da Jabierrek: -"éneéé !, [gaueko] ordú bixetán! ·· Untzáán da Mendigóitxira sélan ióko na-..."; Pépek esaétzan, -"eséik e eséik ío!, néu-lagúnduko-étza-Kármeni etxérañó!"
kmz1 °e!, [umeak] báztuitxú-baa..., más nobles, jártzen dias bérbetan ó jár: arék es!, arék eskillarak iyó, ta béstia ta á ta áu ta... -kaz3 °... ekin saparradiak da, selako úúrak iyo ében!
kmz6 °... goixian dxá!, jaiki giñan, da, · ándi-gañera igón da... -nae °daa, a sera eee, ·· [eskailerak] metálikak ero seroi daoo!, góitxi-bera bajatu ta beti-gora igon itte-kó!... -naz Arráterañok iyon [sic] dou //séñek ion dau?

Ez dakigu *naz* lekukoaren ahotan jaso dugun "itxaro" formaren jatorria edo nondik norakoak: etxean ikasitakoa den, eta horrenbestez Eibarko betiko forma jator bat den; ala kanpokoei entzundakoa den, ikastolako bilobei, irratian, telebistan, inguruko herrietakoei... Hauxe jaso diogu:

naz see itxaro [sic] leiké · o- or-lako bóstetatik?

1.2.1.5. -tu //-ttu /-txu //-du //-ru //-u atzizkiz sortutakoak

Hasieratik zenbait orokortasun ezarriko ditugu, ondorik talde honetako hala-ko saillkapen bat ezartzeko.

Zalantzarik barik, multzo nagusi honetan dago partizipio gehien. Hala ere, azpi-multzoak ere egin daitezke atzizkiak zein forma-aldaera duen kasu bakoitzean. Ez gara sartuko, dena dela, atzizkiaren jatorri etimologikoan kasu guztietan, eta gaur eguneko erabilera aurkeztuko dugu, zabal hartuz gero Mendebalde osoan moduko banaketa dagoela esan badaiteke ere. Hau da, sarritan Erdialdean, gure berbetaren auzoa den gipuzkerako hizkeretan eta hemen alderantzizko bideak egiten dira atzizkia bokalez amaitutako aditzoinetan ezartzerakoan: “lotzatu” hemen eta “lotzau” han; “asmau” hemen eta “asmatu” han. Antzeratsuago ezartzen dira atzizkiak euskaraz orokorrean aditzoinaren amaiera kontsonantea denean (“argaldu” orokorra, zein “aspertu”, adibidez). Dena dela, hori aztertzea lan dialektologikoago baten zeregina dela uste dugu, norbaitek heldu nahi badio aztergai horri.

Esan beharra dago, bestalde, Eibarren –eta uste dugu inguruko herrietan ere antzera gertatuko dela– partizipio bakun estandar batzuk ez direla erabiltzen, eta joera arrunta perifrasiak erabiltzekoa da: “dantzatu”-ren ordez, “dantzan eiañ”; “lapurtu”-ren lekuan, “lapurretan eiañ”; “usaindu” barik, arruntagoa da “usaiñ(a) eiañ /artu”, eta abar. Beste zenbaitetan, maileguetara jotzen da, euskaratutako formak erabiliz: “nekatu”-ren ordez “kantzau”, adibidez; nahiz “sikatu” “liortu”-ren lekuan. Esate baterako:

raz1 oin dántzan! dántzan eim-biou oiñ!

raz1 bíxa-dia órrek ... “sikatu” ta “liortu” ba-dia ... orí serói lúrra, e?: “sikatu” itxen dia éropak... orí sera [“liortu” esan nahi du, noski, baina erabilera ezak ez dio ahoskatzeko biderik ematen], orí lurrári-itxe-ako, e?

Osterantzean, batzuetan alternantziak ere gertatzen dira atzizkien artean Eibarren bertan, eta baita osterantzeko amaieren artean ere, lehen aipatu denez¹⁷. Atzizkidun formak banatuta aurkeztuko ditugu, beraz:

1.2.1.5.1. -tu amaieradunak

Oinarrian zer hartzen duen, aditzoina ere aldatu egin daiteke. Gai hau oso estu lotuta dago batzuetan adjektiboaren “generoarekin”¹⁸, bai euskarazko formetan –“mosolo-tu” gizonaezkoei eta “mosola-tu” andrazkoei, “potolo-tu /potolatu”–, bai gaztelaniatik hartutakoetan –“tonto-tu /tonta-tu”, alegia–. Baina kasu batzuetan gaztelaniazko generoa ez da kontuan hartzen, ezta maileguetan ere, eta adibide bat ipintzearren, “flakatu /plakatu” erabiltzen da edozein generorako, beti alegia. Hauxe diosku *raz1* lekukoak horren inguruan:

raz1 °... ba oiñ esaten da ba “flakatu in da” ... oingua erresaua da, “flakatu”, etakisú [sic]? · kontájixua érderatik... .. bai-bai! “flakatzia” da kontajixua da! ... orí bestiori da lengua! ... “argaltzia” baai: esaisu [sic] oingo gastieri, · h! “argaltzia” se dan!: séro! Oiñ! a- líburutik ikesten (?)daben-dana-aukottú ta...

17. Ikus “1.1.2. Partizipio bikoitza duten aditzak” atala.

18. Gai hau egilearen tesian aurkeztu zen, “Izenondoan generoa” atalean hain zuzen (ARETA, 2002, 489-490); eta han esandakoek honako ere balio dute.

Bestalde, aditzoinaren amaierako bokalaren alternantzia errotik bertatik ere etor daiteke, generoa ezertarako kontuan izateke. Izan ere, arruntak dira honelako bikoteak: “sulotu /sulatu” (kom. “zulatu”), “lusetu /lusatu” (kom. “luzatu”), “asarretu /asarratu” (kom. “haserretu”), aditzoinaren bokalaren alternantzia duela, morfofonetikako polimorfismoz.

Beste zenbaitetan, eratorpenean erroko bokala aldatu egiten da beti. Esate baterako, hori gertatzen zaio “soro- + -tu > soratu” (kom. “zoratu”) erabat Eibarren, genero marken aztamarik barik, morfofonetika hutsez; berdin “amorro /amorro- + -tu > amorratu”, “sendo- + -tu > sendatu¹⁹”, “joko- + -tu > jokatu”, “siku /siko- + -tu > sikatu”, “goso- + -tu > gosatu”. Ez da -o > -a bilakera morfofonetiko hori gertatzen, dena dela, aditz guztietan; esate baterako, “bero + tu” ez da Eibarren “*beratu” egiten, azken forma honek guztiz bestelako zentzua duelako –uretan edo likidotan biguntzea hain justu–. Beste erdiko bokalarekin ere gauza bera gertatzen da batzuetan: horrela sortutakoa da “merkatu” forma, “merke- + -tu”-tik.

Atal honetan “-tu” atzizkidun formak jorratzen dira, baina amaieran alternantzia dagoenez, “umau /umou //umatu /*umotu” taldea ere hemen koka daiteke²⁰.

Alternantziez landa, hala ere, euskaraz orokorrean gertatzen diren gertakariak Eibarren ere gertatzen dira; adibidez, aditzoinak atzizkia hartzerakoan, jatorriko amaierako silaba galtzea. Esate baterako, hemen eta euskaraz “ustartu /bustartu” (<*(b)ustarri-tu). Deigarria da, gainera, atzizkia kontsonanteari atxikitu izan zaiola, ez delako “*ustarttu /*ustartxu” erako formarik egiten, *(b)ustarritu > eta sabaikaritze automatikoz *(b)ustarrittu > *(b)ustarritxu.

Orain arte jorratutakoa morfofonetika sailari dagokio, eta ez da gure zeregina alor hori zehatz eta mehatz azaltzea, lan fonetikoago batena baino. Orain arte bide horri heltzeko zertzelada batzuk aurkeztu ditugu.

a) Bokalez amaitutako aditzoinei ezarrita

a.1) Aditzoinaren jatorria kategoria gramatikal “garbi” bat dela

Oinarrizko kategoria arruntenak izenak eta izenondoak dira, baina aditzondoak eta adizlagunak ere izan daitezke: “lotzatu”, “andratu”, “aiskiratu /aixkiratu //aixkiretu” (kom. “adiskidetu”), “lumatu” (“desplumar”), “laixatu”, “goldatu”, “aratu”, “pillatu /pillau”; “itxuratu”, “arduratu”, “flakatu /plakatu”, “makillatu” (porruei eta antzerako landareei zila egitea), “loratu”, “sikatu /siketu”, “gosatu” (“endulzar” nahiz “acomodar(se)"); “jokatu”, “amorratu”, “sendatu /sendotu” (kom. “sendotu”), “soratu”, “txoratu”; “urreratu”, “atzeratu”, “goratu”, “bistartatu”, “benderatu”, “bururatu”, “oeratu”, “lotaratu”, “eure(g)anatu”; “meetu

19. Lekuko zahar bati jaso diogu forma hau; hain zuzen ere, *raz1*-i.

20. Ikus baina, erabileraren azalpena beste atal honetan: “1.2.1.5.7. Alternantziak partizipioen atzizki amaieran”.

/metu” (kom. “mehetu”), “tentetu”, “gastetu”, “asetu”²¹, “iñusentetu”, “setu”²² /seetu” (kom. “xehatu”), “aletu”, “maitxetu /maittetu”, “diferentetu”, “jabetu” (“konturatu, antzeman, igarri”), “merketu /merkatu”, “aguretu”; “rarotu”, “berotu”, “gaixotu”, “ixotu”, “ganorabakotu”, “gaistotu”, “astotu”, “arrotu”, “lañotu /lañutu”, “pasmotu”, “orixotu /olixotu”; “potolotu /potolatu”, “morenotu /morenautu”, “listotu”, “tontotu /tontatu”, “majaderotu /majaderatu”, “txotxotu”; “damutu”, “berandutu”, “estutu /extutu”, “karutu”, “sutu”, “burutu”, “narrutu” (kom. “larrutu”; “despellejar”, larrua kendu); “lautu”. Horietatik, adibide batzuk:

raz1 orrembéste karamelo jatem-bosu · sendátu ingo sará (“gizendu”)

/naz ori sendótu in dda

raz °... ei san gisón bat!, isen ei san-nóbliauá bañá, · burúa jua-ákonían gaistótu

/raz1 °[zauriak] “gaistotu” ta “soldu”, bai! bixa-dia ... “soldu” da e, · e táka! taka! taka! joten dau ba sek-, bakisu está? axé... · á soldutakuan ya, · er- sertu itxen da, · ssabal- sabaldu itxen da, da ya ortxe orduan, trunkildu itxen da ...

rmz °[soloko lanak] gero labráu lélenko goldátu eró ta geroo... eee... <hazia> · nábue-moruan! · eráindda!: a gero arátu!

kmz í es ári estútu orreáitxik, ... etxó-merési (“preocuparse”)

/rmz °[sagardoa egiteko] saárra batú ta, jó! · eum-báten laa ee · koloría-artzén da gero estútu! · da barríkaa! ... estutu prensán! ··· ur píxka-bóta géro ta, béste-estutú bat ero bí eró... (“prensar, apretar”)

nme2 °bueno! [behiak txahala] “maittetu dau” iseten da · iuál · béste batenaa ero, sertutakuan: berak- beránaa, txála beria bada “maitté dau” ero “estau maitté”, · eta gero iuel báta dala o béste dala eró, bere- beria-akabau ta béste bat ekartzem-bada eró... · eta geró ba lelengotan iuel es da gero pixka-sertzen dabenian da-ásten danian... “ba maittétu dau”

nme2 °báaa!, ogíxa bee... · laako su itteko, oríe indekuann... da ba, “óntxe arrótu da”: ya, ee labí erréta badao ba di-da! ogíxak ein da sártzeko, arrótu! ein de, baai...

nme2 °kalétarrak e, · mákiña bat aldís esauskue gu · idie síkétu ta · etxea ekár-tzen, está? ta, -”sé? ide-bérdetan sabisi alá?”... · oláko séra-paai baña... · órrek ee, éstaukes... · órre-sustansia bakoo · bérba-dia! ... bai! bai!: “idá-bérdetan”!...

naz ee letxugak · burútu dia

naz askeniem-baa, éureanatu aittue (“convencer”)

f.a. ik dának txoratuta daukásas ik (“maiteminduta”)

f.a. °Tolosa ... oin diferéntetu ein da

Hor aipatutako aditz batzuekin osatutako egitura batzuk aurkeztuko ditugu ondorik; esate baterako “lotzatu bez!”, gaztelaniako “no tener ni vergüenza”-ren parekoa:

kmz °<txantxetan, biloba eta telebistako iragarkia imitatuz> olaa! Jabier náix, irurogetamaika urte dákaras, · da sígarrua espanían: · lo- lotzátu bés!

Beste esaera bat, “andratu” erabiliz:

raz1 °bai, esaten da “enéé! orí andratu don oná!”. Bai, potolátu ero...

21. “1.1.2.1. Partizipioaren amaieran bokalaren (-i /-e /-a) eta atzikiaren arteko (-t(x)u /du) alternantzia” atalean zehatzago.

22. *kgg* lekukoari “xetu” aldaera ere jaso diogu, baina ziurrenik alfabetizazioaren eraginez egiten du horrela, kontsonante sabaikariduna ez delako forma arrunta Eibarren.

“Es (+ agintezko adizki laguntzailea) estutu!” sarritan erabiltzen da aginte erretoriko gisa; hau da, ez da beti lasaitzeko mezua, ziurtasuna adierazteko esatera baino. Esate baterako:

raz1 °... bai, jángou! jángou! · es estútu!, baátos-Sanjuána-bé-tá! (esaera gisa)
naz árek eruengun líburua, e?-esaittee... es ári extútu! ... es ári preokupau
(esangura arruntez)

“Umetu” aditza pertsona nagusiekin erabiltzen da, umekeriak egiten hastean. Esaera moduan erabiltzen da aginte eran, eta *raz1*-ek ederto azaltzen du nola erabiltzen den eta zein egoeratan:

raz1 °“amá! esaitxe umetu, e?” ... ori sarr- sárrei esate-akue. Bai etxékueri, kámpokuei es bañá... · Eske sártu, métu, ta rárotu ta dána ... bai, orí normála da!, erropiai-itxe-akona!

“Lusetu /lusatu” bikotean, Eibarren gehien erabiltzen den forma “lusetu” da, lekuko gehienek darabiltelako; baina “lusatu” ere jaso dugu, eta hain zuzen ere, alfabetatutako kaletar biren ahotan, S.B. eta *kgg*. Zenbait adibide:

kmz lusétu eim-biestás · ónek a- · frákok -*nme2* °bai! Markíñan ee... · Markíñem-be ba... p- ee...: Markíñen sé- sé diferentzia i-tten dabe ba gurekiñ?! bér-betan!? ... a, ori askeneko lussioi! joteutze órre-Bískaixam-betí orí askenaa lussétu pixkát!, baai... bañá, es e, dife- g- améndi-Markíñá estao-orrembeste diferéntzia!
S.B. umé orí lusatu ein da asko -*kgg* óne-frako(k) lusátu biestasus

“Asarretu /asarratu” bikotean, lehenengoa da erabiliena, lekuko gehientsuek darabiltelako; baina “asarratu” ere bizirik dago Eibarko hizkeran, lekuko hauen ahotan hain zuzen ere: *kmz*, *kmz5*, *kaz2*, *kgg* eta *raz*. Beraz, bigarren aldaera hori kaletarragoa da bestea baino.

“Iskotu” aditza, ostera, guztiz baserri girokoa da. Esangura etimologikoa idiskoa behiari botatzea da, eta horrela arrunki esaten da baserrietan, paradako idiskoa erabiltzen denean; baina ganaduen eremutik atera eta metaforikoki pertsonentzat ere erabiltzen da. Honela dio *rae* lekukoak:

rae °<eskolan, mutilek neska bat> biolau im-bi-bela...: biolau es!, “iskotu”!, iskotu im-bi-bela...

“Inguratu” formaren jatorrian oinarri bi daudela pentsa daiteke. Batetik, ize-na (edo postposizioa) dela aditzoina: **inguru-tu* > bokal disimilazioz *ingura-tu*; edo bestetik, agian oinarrian adizlaguna dagoela, silaba galeraz: **ingurura-tu* > **ingurua-tu* > *inguratu*. Dena dela, baserritarrek darabilte forma hau, eta kale-tarrek (*kmz*-k adibidez) ez dute aditz arruntzat jotzen. Adibidez:

f.a. len e ume bátzuk ingurátu-ákus -*nme2* “inguratu” ero “urreratu” · berdin da

Aurreko horren antzerakoa da “begiratu /beiratu” partizipioa. Izan ere, ez dago garbi nola sortutakoa ote den, lexikalizatutako “begira” postposiziotik, ala “begira” adlatibo kasu markadun adizlagunetik. Nolanahi dela ere, bokal arteko

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

“-g-” kontsonante ahostunik bako forma da erabiliena eibartarren ahotan. Adibiderako:

raz °óibaa! beirátu gaur séma-sortijakin datórren guré neskía! ... éénebá!
raz °<bi urteko bilobari> gaur báño geixao jan biekosú!; gaur, · puré séñek estau jan? Umíak seáitxik estau jan puré?. Geró béitxu!, Neréa!, oné-pe bardiña dáka!, au!, · beirátu! selako...

Kaletarrek “beatu” forma murrizta ere badarabilte (baldin “begiratu”-ren murrizketa bada, eta ez Iparraldeko “behatu”-ren Eibarko aldaera), hala nola *kmz*-k, oso-oso sarri, eta *kmz4*-k eta *kme*-k ere badarabilte. Beraz, gízonezko kaletarren forma dela esan daiteke.

Bide berdintsutik sortutakoa da “konturatu /konturetu /konturau” aditza ere, baina aditzoinean adizlaguna dagoela garbiago dago. Erabileraz hauxe esan daiteke, “konturau” forma kaleko gazte alfabetizatuen ahotan entzun daitekeela bakarrik –*kgg*-k, gainera, bestearekin batera darabil–; eta Eibarko forma arrunta “konturatu” dela, nahiz “konturetu” aldaera batez ere Aginagan. Antzerako beste aditz batzuk ere aipatu dira jada.

Euskara estandarrean sarritan erabiltzen diren formak Eibarren ezagutu (eta agian ulertu ere bai) egiten dira, baina erabili ez. Horrelakoa da “nekatu” adibidez.

a.2) Aditzoinaren jatorri “garbia” ez duten aditzak

Multzo honetan kokatuko genituzke besteak beste: “jorratu” (landare arteko belarrak kendu), “saatu” (ortuaririk/laborerik bako soloan, aitzurrarekin belarrak kendu), “aldatu”, “eskatu” (gaztelaniako “pedir”), “beratu”, “ondatu”, “sakatu”, “urratu”, “bereinkatu /bedeinkatu //berinkatu /bedinkatu”, “parkatu”, “garatu” (landareak hazia egiten hastea)”, “mallatu”, “urkatu /urketu”; “ikutu” (kom. “ukitu”). Horietatik, zenbait adibide:

raz1 °... mésklia dábill, e?: esan dau gañera goixian sortziretan, egualdi eskasa datorrela, e? ... ke puede acér ga- granizo!: baña esta eón!, normáldu in dá!, normáldu in dá!, parkatu ietza! · parkátu étza o- odía -odía bakisu ser dan!, orí or · orí baltzóri, or...- arétxe-parkatu-tza (?)bestera-be · bañá, parkatu-utza ta..., batak e parkatu eskero · béstia ba · gerrári-b’esi-leike-etára!

S.B. esaisu kotxe gáñera igó, mallátu eingo da eta
naz aurtén ee pórrue-garatu in ddiá -ero- sílddu in ddiá, sílddu

“Lotu” Eibarren “atar”-en esanguretarako erabiltzen da; baina baserrietan beste esangura zehatzago bat ere badu, hain zuzen ere, “uztarrian lotu”, izenaren sinkopaz. Adibiderako:

rmz °[idiak] seaa... badakisu séla este-sian!, oingótxe moruan!: lótu ta erabilli tta lotu ta erabilli tta lotu ta erabilli tta ba, ési! // *rmz* °gurian e-sékula!, etxuee-beirik e lotú! [uztarrian] // *rmz* °bai ba!, · <leihotik erakusten du> mendítxik etortzesian areburdika garuakiñ or góitxi-bera!, góitxi-bera da gero etx- etxera juateko góóra juambier!, da-an gora eee... · béste pa- beixak ekarri, · andriak ero bátomatek, lótu bei-

xak eta ddú! –*rmz5* °lótú im-bittú-bustarríxan! · da geró · ipintze-akuesek · ori ee lotzen dana esatau “burtería”!

“Geratu /geatu” normalean “gelditxu”-ren pare erabiltzen da Eibarren. Zenbait adibide hori erakusteko:

S.B. °Suk se < <bereisketa>> eitxen dosu or? [egileari egiten dio galdera erretoriko ori]. Nere andriák esate-éstan e, Habe-ko e, e, téstak eta ipintze ditxúe ba esámiñak pasátzeko, “Éga”-rako ta abar, ta or: “geratu” ta “gelditxu”-ren arteko, bata susén da béstia óker, da... Bueno!, soratúta daos...; jentíak ásmatzen dítxu gausá bátzuek!: órrek, bíxak día bárren bardíñak!, eta bardíñ erabíltzen dítxúgu! ... Inbentuak, badakisu?, inbén-tuak; nere ústes e?, nere ústes e?, nere ústes inbéntuak ... Jentíak ásmau eitxen dítxu, ásmau eitxen dítxu aláko ... aláko legíak jentíak ásmau éitxen dítxu, e? Olan presisiñua ipíni náixan ero..., nik estakitx. Estáo bárren setán aiñ, ain presíso isán, kóntxó!

kmz °“árria”, s- kániketan dá: -“sémat?” eta · -“árra bíra geratu dok · nería” <eskuekin egiten du>: bat, bi, iru, bá!, sa- al sako. O eenn, tóka!: tókarara- tókara eró... · dirúa bótatzen e, · paretéra!, da · bat llegáu da ta béstia · árra batéra geratu san! *nme2* “nun geatu” nai “geldítu” · ba bá-ta orí be, “geratu”, “gelditxu”... //geldítu in da -ero- gerátu

kmz mákiña gerátu ein dok // *f.a.* mákiña geldítu ein da

f.a. °báaa!, ee... geatu san Gregório bákarrík!: aitxá be saártu sán... · Gregório bákarrí-geatu san, estáá?

Horregaz gain, “geatu” aldaera murrizena (bokal arteko dardarkari bakuna galduta) zaharrenean ahotan, nahiz baserritarrenean dago bizirik. Lekuko hauei jaso diogu forma hori: *kmz3*, *f.a.*, *raz1*, *rmz*, *naz*, *nmz*; *nme2*. Esate baterako:

kmz3 °... mordo bat · txókauta geatu sitxuan gure biarreas! // *kmz3* °... éne demoníua! · siñistu esindda geatu san a be...

rmz °... irú tren! · trasladua órtxe!, da merkansia berrís e geatu be itxeka! · Maltzán?!: Maltzán eee... · geatu be itxeka merkansia! · báta béstea krusau, beste-beste-bestera-bestera-besterá!

“Aitxatu /aittatu /aittetu” (kom. “aipatu”) orokorrean euskaraz erabiltzen den eran erabiltzen da Eibarren ere. Hala ere, erabilera arruntena “aitxatu be es eiñ” agínte erako egituran da (gatzelaniako “ni me lo mencionés”, “no quiero ni oír hablar de ello” aitzen emateko). Adibiderako:

rmz2 °béste bat Amasabalei etxúa-len aitxátu, Julián Laskuráñ “Amásabalei”: probalári óóna súan Eibárren, óna! <erabilera arrunta>

raz1 °dirua erabiliko dau bueltaka orre-bueltaka! · létraik ess aitxátu be iñ orrí! létrarík!... –*nme2* ori aittetu b’eseiresu iñ <esaera lako egituran>

Talde honetan dago “askatu /eskatu” (kom. “askatu”, gatzelaniako “soltar, liberar”) bikotea. “Eskatu” aldaera zaharrek ere badarabilte, baina zenbaitek argi dauke “eskatu” “pedir, solicitar” dela bakarrik (beste “eskatu”-rekin sinkretismoa, homofonismoa gertatzen delako); eta beste batzuek aldaera biak darabiltzate (adibidez, *raz1*-ek, *f.a.*-k, S.B.-k), inongo kezkarik barik. Adibiderako:

nme2 “eskatu” ess!, “askátu”! “Eskatu” da “pedír” –*f.a.* sapatillen síntxia askatu-atzu

raz1 eskátu, bai, idixa-pe-eskatu! –*f.a.* bustarrítxik eskátu bitxúu íríxak

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

Dena dela, torlojuen eta erreminten kasuan Eibarko baserritarrek ez dute onartzen “askatu /eskatu” erabiltzea (*raz1* salbuespen dela), eta “soltau” da erabateko forma; baina kalean, “taillarretan”, erabili erabiltzen dute. Adibide bana:

nme2 °guk e- amén es!, gu-”soltau” esaten dou; baña or Gipuskuem-bálitza ba-
”askátu”

S.B. tallar giruan, torlojua askatu

“Oratu /obatu” bikotean aldaera bitxiena “obatu” da, bokal arteko kontsonante ezpainkariduna. Izan ere, Arrate aldeko lekuko zahar bati jaso diogu, baina ama Bizkai aldekoa duenez, pentsatzekoa da hango eraginez sortutako forma dela. Dena dela, *raz1* lekuko hau Eibarren bizi izan da beti, eta aitaren jatorria eta bizilekua beronen jaiotetxekoa denez, ezin da ziur jakin nondik ikasi duen forma hori. Nolanahi dela ere, Elorrio inguruetan entzuten den “ebatu”-ren antz handia du, baina egitura bokalikoa guztiz “eibartarra” da. “Oratu”, ostera, denek darabilte, eta arrunki bere sinonimoa baino sarriago, “eldu” baino, alegia.

“Osatu”, ia erabat “osasurekin” lotuta erabiltzen da Eibarren, estandarrean “sendatu” esaten dena. Adibiderako:

kgg °”infectau” ... [“soldu”] ésta nik lárrei era- erabiltze-otén berbá bat, e?, geixao “infectau”; · baña erabili dotenían da entzun dotenían “infectau”, ta gero-”osátu”

Baina *nme2*-ri jaso diogu “oso-tu”-ren esanguraz ere:

nme2 “osatu”!: · osátu im-bidaa...: · e, ónyiok o- e, seosee · m- formasiño... formáá...-artu barik ero, -”on- ónyiok osátu bari-dao” (“completar”)

“Osotu” ere jaso dugu, ostera, Aginagako beste lekuko baten jardunean ere. Adibiderako:

naz osotu im-bie-da, e?, pixka-falta dau

“Esautu” forma da Eibarkoa (kom. “ezagutu”), bokal arteko kontsonante ahostun belarerik bakoa; gainera, “*-agu- > au” egiterakoan, gaur egunean lekuko guztiek diptongoz ahoskatzen dute, noizbait kontsonante belarean Eibarren erabili izan bazen, arrastorik gabe geratu da. Norbait estreinako ikustea ez eze, noizbait ikusi nahiz bizi izan, edo sakon ezagutzeaz aparte, gaztelaniako “reconocer” eta “acostumbrar, ser costumbre” aitzen emateko ere erabiltzen da. Zenbait adibide, esangurak argitze aldera:

kmz1 °... nik áitxitxa eneban esáutu: · ni jaixó nitzanían ílda ei séuan ni- ne-... baña-ámandria báí

kmz3 °... ori Erkiaga etorri atam-baten · -”Eibarren e, ontxe-esautu aitxuk · sein sein garán”

kaz2 °... esate-ban · a íixkua salá · béste plasárem-batén · bandérillautakua: bandérillak esautu itxe-sitxuala ta! · sáte-ban!

kmz °bai! gerr’áurretik!; · bombardéua-be bai · esautu nitxuan-nik · emén! Sure tíak ee esáutuu siitxúan dá

raz °... bėti esáte-ban! -"ááá!, gu an Pirinéuan da-aimbéste mendí tta bes · guré áitxa!" Esitxúan artú aman béste urté;-ené!, séma-bidár esan séban "óne-mendíkok esáutu basitxúan!"

kmz3 °... órre-dánok! desaparessiduta dáuas, órre-tallárok etaa... bastarra gustiak! dana-dana!: esautu b'esiñ iñ oñ!

kmz3 °... séiretan eo txai-se ordutan eote-suan lélengo mesía! · da · araxe be juan da, dánekin kumplídu ta... fxt!, ála! · Oñ e, alakoik etxuau esautu be itxen!

"Garbatu" aipatzea ere merezi du, Eibarren zaharrek, batez ere baserrikoek, "damutu - barkatu" zentzuz darabiltelako, eta ez dago lotuta Euskaltzaindiak aurkeztzen duen "lihoa zehatu" esanahiarekin (EUSKALTZAINDIA, 2000, 570). Euren diotenez, gainera, forma oso erabilia ei da Eibarren; guk uste dugu "zela" ere esan daitekeela, edo hemendik denbora gutxira hori gertatuko dela. Izan ere, kaleko lekuko zaharrek ere ez darabilte, nahiz eta baserrietan oso bizirik egon. Adibiderako:

raz1 °... damutzia da orí, "garbatu" ba, · ba gaixkí esandakua estakisu?, garbá-tu... ... "pido perdón" da ori erderas, está? //°garbatuta nao esanak esán

naz garbatuko jatzu orrékiñ!

nme2 "damutu" ta "garbatu" · bá-da

Aipatzekoa den beste aditz bat, andrazkoen artean erabiltzen den "nánaratu" da; dena dela, zaharren artean erabiltzen da, eta gazteek ez dakite erabiltzen denik ere. Gizezkoek ere ez dute denek ezagutzen forma hori, ezta zaharrek ere. Izan ere, piskat kokolotzea, tontatzeari esaten zaio, baina andrei gertatuta. Hona azalpen-adibidea:

raz1 °sártu eskeo nánaratu itxen da!, ori segúru-segúru!

Deigarria da amaitzen dagoen atal honetan aurkeztu ditugun aditzoin gehienak "-a"-z amaitutakoak izatea, "lo-tu"-koa eta "iku-tu" izan ezik.

b) Kontsonantez amaitutako aditzoinen ezarrita

b.1) Kontsonante dardarkariz amaitutakoak

Besteak beste hauek jaso ditugu: "kaskartu", "billurtu", "urtu", "aspertu", "apurtu", "biurtu", "ugartu /ugertu /uartu", "gogortu /goortu", "agertu", "sertu" ("zera" izen-komodinetik eratorritako aditz komodina), "sortu", "elkortu", "eskertu", "agurtu" (*kgg*-ren, *nme2*-ren eta *naz*-ren ahotan jaso dugu), "agortu", "okertu", "neurtu", "astartu" (lurra eragin, mugitu; eta aztertu), "atxurtu" ("saatu", aitzurrarekin lurra landu, kom. "aitzurtu"), "simaurtu" (simaurra bota, zabaldu; ez "simaur bihurtu"), "igertu /igartu" (kom. "ihartu"), "alkartu", "derriortu", "illuntabartu", "atertu", "biskortu /bixkortu". Horietatik adibide banakaren bat:

kmz °... batékin, kombersasiñuan see- sebísen, · -"kokóta ee, bardíndu-taa dáo ta béstia dao ta..." · -" <beste baten ahotsa imitatuz> etórrí ári! guré · gu gaosen lékura-apopílo!, ántxe gogórtuko ak-(?)kokotaa..."

kgg °nere amak esaten dau “elkortu”: patatak “elkortu” eitzen dia ... “lurra elkortu”, Sosolakueri entzu-netzen (gogortu eta sikatu)

raz5 °gero, · sertu i san da, esan ei tzan -”bájakixa-pa nik! se pasau dan”, · · -”bádakik esái-pá!” · esan i-etzan da, -”atzó Gisasólakua eon suan amén, · · Gisasólako mutilla ta, ire alabía-bayétza emon jútzan!, · · da-ain sorátu súan sé, · ártu lepúan saráixa, da Éltzartzako seláiraño jua sian!, da, kuadrilla gustian artian... <barrez>”

rae °bedárronduak eta ee...: lénao bedárronduak eta gero gari-ebatia! Geróó... · e, e, garí ontzuek ee, galtzúek e · sertú! · · astártu tee erréta ipiñi! e náborako prepa-rau!; gero patati etá! ...

/rmz2 °... da sémbat astártu doten au núndik ete datorren probá-asúntuau!?, da ésiñ iñúndik etára!

nme2 alkárrí beittutzau bañá, ees- estou agúrtu, bata béstia estou agúrtu

naz éraixosu orri eskumako idixorri, bixkortu déiñ!

f.a. ume biurtuko giñateke -*nme2* oiñ esaitte ume biurtu, e? //*nme2* bakardá-dien eotiek, askenien, · ráro biurtu san

f.a. Jesukrístok ura ardáu biurtu ebán -*naz* Jesukrístok ura · ardaos biurtu ebán -S.B. Krístok ura arda biurtu eban

Gehiago garatuta beste aditz batzuk:

“Sartu” formak homofonismoz jatorri bi batzen ditu: berezko “sartu” (“entrar” zein “meter” esanahiduna); eta euskara arautuan “zahartu” dena. Lekuko batzuek, nolana ere, bokal luzatuz darabilte azken kasu honetan, baina ez da ezaugarri sistematiko bat. Adibide batzuk:

raz1 °”amá! esaitxe umetu, e?” ... ori sarr- sárrei esate-akue. Bai etxékueri, kámpokuei es bañá... · Eske sártu, métu, ta rárotu ta dána ... bai, orí normála da!, erropiai-itxe-akona!

kmz -sé pasau ako arí balkoiari? °-séra!, sáártu!

“Ustartu /bustartu” (kom. “uztartu”) aditza lehenago ere aurkeztu dugun arren, hemen hasierako kontsonantea dela-eta aipatuko dugu. Izan ere, herri etimologiak azaltzen du zergatik ezartzen den hasierako kontsonante leherkari belare ahostuna; hemen kaletar baten burutazioak:

kmz “bustártu”: iséngo dá! //” burua” dá ta “bu- bustártu” isángo da!

Baliteke sakonean arrazoia izatea. Hala ere, lekuko horrek arrunki darabilen forma “ustartu” da, nahiz eta berak “básarríkoo · bárri estáki-txá!”. Baserritarrek, baita kaletarrek ere, normalean darabilten forma “bustartu” da, baita “bustarri” izena ere, noski.

“Artu” (kom. “hartu”) aditza arruntaren arruntez oso polisemikoa da. Hainbat esangura jaso ditugu aditz honen erabileretan. Batzuk erakuste aldera:

kmz °kuadríllara eruango saitzut · úrrenguan, da án sélan eitzen dou berbá · ártu!, mikrófonuákin! (“grabatu”) //*kmz* °ta, fílmáu etzúe? ... artú etzúen? <bilobak kantuan darrai> baai-bai!, orí badakíu baña artú etzúen? (*idem*)

kmz °[euskaraz ikasteko metodo “naturala”] “áu esáten da” ess!-séuen esáten!: eiñ eitxe-júen da · ík ártu! (“ikasi”, “percibir”)

kmz1 °[kafea] ártu júa-nik, etxúa biar ník. Ba gaur-e · erá [sic] serían júuan, amén e...

kmz1 °[telefonoa] da, andriák artu jok...

raz6 “Orduan kaleko mutillak ... basarrixan asko ibilixkakuak. Askok basarriko andrak hartu ...”

naz sélan artu saittue an? (“atender, acoger”)

raz °... Eulok eta-bé kótxia gasté-gastérik artu eben, kotxe sár bat ...

rmz °Élgoibarrea pérratzea!: artu idixak eta Élgoibarrea juan da t- perrau ta etorri átzea!

raz1 °<etxean jarraituz gero> éguardixa estakitt artúko nebán! (“bizirik irauñ”) –*kaz2* °... irurogetabi urtekiñ il san! buno! semíak e · gitxiao artu ében, e?, ... seaitxik ee, láugarrena sa-nere aítzá, .. laugárrena ... da, .. irú nausíxauak .. áurretik eruan sitxuan... (“urte gutxi hartu, bizi”²³)

rae °... béste-eum-batén, arríxak artu giñúsen!, arri-saparráriak!, da mántiakín tapauta · ge- <egileari> su txikíxa siñála!, sú · titixákiñ eta · idíxen mántiakín tapauta - esaixosu Irénei!-, idíxen mántiakín tapauta ní!, <barrez> da esaten dau -”idíxak e, ártu biko ban” da, idi bátak artu biko ban... · sa-parrária” porke ní · idi-mántiakín tapauta...

ñaz1 °[Kakalarduanekua etxea] Álfa! · dauana, Álfak ero artu eban, está?

kaz2 °da, éibala .. akábau sánian, oo aspertu sanian ero kántzau sanian .. sesenak artu eban (“harrapatu”)

kaz3 °... ákordatzé-nai · trenian doyam-bat be artu ébela íbartarra pístolekiñ! (“harrapatu, “atxilotu”)

kaz2 °urté bi: sartu nitzan .. Érreen euna pásauta! .. el día .. siete d’enero! .. grabatzen ikastera... .. Da lélengo kinsénia-artu nebán .. ándik urte birá · Gabónetan! (“kobratu”)

“Lijertu” aditzak zerbaitek errazago, arinago egitea esan nahi du. Definizioerako, lekuko biren esanak:

kmz lijertu, “suábetu”, .. “rodar”, motorr e ro-rodáo ... rodátzia, ooríxe da!, lijértzia!, pístóiak! lijertzia

raz1 lijértu: soltátzia da ba-ta lijertzia da beste bat. Bá!, bigúndu, bigúndu!

“Lapurtu” aditza, lehen ere aipatu denez, ez da Eibarko forma guztiz arrunta, batzuek ezagutu eta erabili egiten duten arren. Darabiltenen artean hauek dau-de: *kgg*, ziurrenik alfabetizazioaren ondorioz ikasita, izan ere, Eibarren erabat arrunta den “ostu” ez darabil; *naz* eta *f.a.*; baina azken honen ahizpa den *raz-k* hauxe dio:

raz °“óstu” ... “lapúrtuu” guk estóu esáten, e?, guk “óstu ein genduan” ero “óstu eiéste”-eró... “lapúrtuu” guk estou esaten: esángo dabe numbáitxen, e? baña n-guk- guk “óstu”!: “óstu eiéste”-ero “óstu ein dot”!

“Liortu /leortu” aditza eibartarrek orokorrean badakite zer den, baina erabile-ra ez da inolaz ere aberatsa: arrunki darabilen bakarra *kgg* gaztea da, eta ziurre-nik alfabetizazioa tartean izango da. Ezagutu egiten dutenen artean *kmz*, *raz1* eta *naz* dira. “Sikatu /siketu” da Eibarren erabat erabiltzen den aditza.

23. Ez dugu grabatu, baina arrunta da Eibarren eta inguruetan norbaitek itxura eskasa duenean “aurtengo Gabonak estaus artuko!” esatea; zein Gabonen lekuan beste data “garrantzitsu” edo mugakoren bat: Sanjuanak, Arratiak...

b.2) Kontsonante frikariz amaitutakoak

Talde honetan, morfofonetikaz, jatorriz aditzoinaren amaieran kontsonante frikaria dutenak eta afrikaria dutenak berdindu egiten dira, multzo biak neutralizatuz; hau da, Eibarko ahoskeraz: “-s²⁴ -tu > -stu” eta “*-tz²⁵ -tu > -stu”. Esate baterako, modu bakarrean ahoskatzen da “ostu” eta estandarreko “hoztu” (<*hotz- -tu). Hain zuzen ere, lapurretan egiteari Eibarren arrunki partizipio soil baten bitartez esatekotan, arestian zehaztu denez, “ostu”-ren bitartez egiten da. Homofonismoz, hotzaren eraginez gertatzen dena ere, “ostu” esaten da, ez bada gutxiago erabiltzen den “otzitu” forma aukeratzen behintzat. Adibide bana:

kmz3 °... óne-beste · beste gausa bat: · am-be géitxu al basam-bestiari · bestia-am-be terrenuak óstu! -*kmz7* “... BÍrian saarrak óstu, keixa sasoián keixak ostu, nai txa jan ez, óstu ...”

raz °“óstu” ... “gaur óstu ei-naix” ... “otzítxu ei-naix”: bi- bi morútará. Ero · “o- óstu ei-naix” ero-“otzítxu ei-naix”, bixétará

Adibide horren bitartez azaldu dugu berdinketa fonikoa eta ez diogu berriro helduko etimologiari, erabilerari baino. Beraz, talde honetako aditzak aurkeztuaz hona hemen zenbait: “ustu” (kom. “hustu”>), “postu” (kom. “poztu”), “pustu” (kom. “puztu”), “sorrostu” (kom. “zorroztu”), “bistu /pistu” (kom. “piztu”), “miestu” (kom. “mehaztu”), “narrustu”²⁶, “narrastu”, “garrastu”, “siñistu” (kom. “sinistu”), “trabestu”, “aberastu”, “mirristu” (“argaldu, mehetu”), “nastu”, “sapustu”. Horietatik, zenbait adibide eta “azalpen”:

raz1 °miéstu bai, etára! ... dauan lékuan etára!, miéstia oixé da. Bakísu! asko dauan lékuan e kéndu!

raz1 °sorixoneko píñuak! bátian sartú! · béstian ee... · miéstu!, béstian estaki-ser!...
nme2 askenian trabéstu naix -ero- endrédau i-naix ero...

Bereziki aipatzekotan, besteak beste “astu” aipa daiteke (kom. “ahaztu”). “Aistu” aldaera ere jaso dugu, *nme2*-ren ahotan, baina Elgoibarko hizkeraren eragina dela esango nuke forma eibartar jatorra barik.

“Mostu” aditza lehenago ere aipatu dugu, baina hemen nolako gaiekin jaso dugun aurkeztuko dugu. Besteak beste, ilea, azazkalak, sokak eta antzekoak moztzen dira. Adiera hau gaztelaniako “cortar”-ekin parekoa da. Etimologia herrikoiarekin erabileraren berri ere jasoko dugu:

24. Multzo honetan kokatzen dira euskara estandarrean “-z”-z eta “-s”-z amaitutako berba gehienak, bizkaiera osoan gertatzen den berdinketaz (edo nahi bada, frikari paradigmatikaren galeraz-murrizketaz).

25. Multzo honetan kokatzen dira euskara estandarrean “-tz”-z eta “-ts”-z amaitutako berba gehienak, bizkaiera osoan gertatzen den berdinketaz (edo nahi bada, afrikari paradigmatikaren galeraz-murrizketaz).

26. Aditzoinaren jatorria “narrutzik” aditzondoaren “narrutz-” dela pentsa daiteke (**narrutz-tu* > afrikariaren disimilazioz *narrustu*), eta ez “narru-” izenari “-s-” instrumental kasu marka erantsita (**narru-z-tu* > Eibarren fonikoki *narrustu*).

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

S.B. °"ulia mostu". "Ebai" be bai!: "ulia ebatera noya"/"mostera noya". Nik "ulia mostu" esaten dot, ta "bisarra kendú"...; "bisarra kendú ta ulia mostú" esaten dou. "Ulia ebagi" be bai e?, esaten dou. Biarbada, e "móstu" isango da biarbada sarrena olan uliari tókatzen jákona. Mótxallak baintzat e astueri e ulia mosten ibiltze-sianak, "móstalliak" sian orrek. Ortik dator "motxalla" isena, "motxallia". Mótxallak, bai, e. Mótxallak sian ba ori e "eskila-burros", e? Bai, selan jítxuak alako biarrak eitxe-sitxuen, ba gero jítxuei "mótxallak"

Edonola dela ere, "motz" izenondotik bereganatuta (Eibarren "corto" esanguraz erabiltzen da batez ere) "mostu" "acortar" aitzen emateko ere erabiltzen da: prakak, gonak eta edozein arropa luzeegi moztu egiten da neurrira ipini arte (baina ez apurtzea edo besterik barik erditik bi egitea). Adibidez:

raz ori góniori móstu eim-bie da

Baina adibide bakarrean, kaleko andrazko zahar baten ahotan, "motz" itsusi, zatar esanguraz ere aurkitu dugu:

kaz11 "... Da gaiñera lehengo plaza de toros ... Oiñ dana moztuta ta ei dau, lehen elegantia zan"

Gaztelaniako erabileraren eraginez, beste egitura batzuetan ere jaso dugu, beti ere gazteen ahotan:

kag °... ***-k* esétzan lagá!, · esétzan lága ***-i* asáltzen, se así san asáltzen · móstu in séban, berak artu seban protagonismua!, así san esáten ***-ek* · eskátzen sebána!

Goiko horren "cortar" esangura "kaskamostu /kaskarmostu /kaxkarmostu" aditzak ere jasotzen du; hain justu, ilea ebateko erabiltzen da. Ez dute, baina, lekuko guztiek erabiltzen: *kmz*-k inori entzundako forma dela aitortzen duen artean, *kgg* gazteak etxean zein lagunekin komunki darabilela dio. Jardun askean *nme2*-ri jaso diogu "kaxkarmostu" aldaera, etimologikoagoa bestea baino, "kaskarra" buruari esaten zaiola kontuan izanez gero. Beste lekukoek ere ez darabilte forma hau, *raz1*-ek onartzen duen arren; definizio hau damaigu:

raz1 ulía ondótik ebátia

"Tolostu" aditzak (kom. "tolestu"), esangura nagusi bi ditu: batetik, edozer gauza ordenean jarri, sailean, egoki behar den lekuan (baserrietan urteroko zeregina izaten da/zen belarrondo tolestea, adibidez; baina edozer gauza izan daiteke²⁷); bestetik, arropak (batez ere, baina ehunezko edozer) ahalik eta zimurrik gutxienekin doblatzea. Adibide bana:

naz tallerien ee piesak, tolostu ... tolostu im-bier iseten dia
raz1 "tolóstu": baai. Tolóstia bakisu ser dan!: bai, tolosteko isarak-eta lagum-bik!
· tiratu ta, baai... ... armaixuan ... dotore ipiñi gero ... tolostia da orí

27. *kmz* lekukoa da erabilera hori onartzen ez duen bakarra, belarrondoarena kontuan izan barik.

Aurreko horren moduan, “orrastu” aditzak erabilera nagusi oso ezberdin bi ditu. Batetik, ilea orraztea (pertsonena zein animaliena); eta bestetik, bestelako “gauzak” txukuntzea. Izan ere, baserrietan gurdia kargatuta dagoenean, bidean belarra zein belarrondoa edo dena delakoa galdu ez dadin “orrastu” egiten da, eskuarearekin edo antzerako zerbaitekin.

Euskaraz orokorrean oso arrunta den “jolastu” aditza, Eibarren apenas erabiltzen den, jendeak ezagutu egiten duen arren. “Ibi(l)li”, “fiestan ibilli /jardun”, “jolasian ibilli” dira ordezko aditz eta perifrasi arruntak. Hauxe diosku *nme2* leku-koak erabileraz:

nme2 “juen día, koltxói méyetara jo- ee jolásterá · · -ero- ibiltzerá”. · · °Oiñ ónek e gasté barrixo-”jolástu” esaten dabe ta nu- guk lén Eibérrem-ba [sic], “ibíli” esate-gendúan

Aditz bitxi bat ere jaso dugu *S.B.*-ren jardunean, “artestu”²⁸ hain justu, baina gure beste lekukoek ez dute ezagutu ere egiten; beraz, idiolektala dela esan daiteke.

d) Aditzoinaren amaieran soilketak gertatutako formak

Atal honetan honako hauek koka daitezke: “batu < *bat-tu”, bere esangura guztiekin (hau da, “recoger; levantar; reunir; envolver..”). Zenbait adibide:

rmz °[sagardoa egiteko] saárra batú ta, jó! · eum-báten laa ee · · koloría-artzén da gero estútu! · da barríkaa!
kmz6 °... ólaxe batu énduan lélengo dirua, da · · komprometiu onekin lokalóne-kiñ, au sam-bosteun milla peseta ...
rae °... baña bixkorren kargau burdixa geuk!, da ori Lésetakuk lau bat ibiltze-sien da gu... íru!: lau-bost, eta bésperan kargauta ta ero batúta ta itxeskuesan áurria-artzeco baña, guri ésiñ artu áurreik eseaixi-pe...
kaz3 °... pistolak antxé! etara sitxúen, bátu ében ... (bildu, “envolver”)
f.a. bátu biekosue dánok [argazkian] urtétzeko (“elkarri hurbildu”)
kgg °... osea, teoríxan bátu · álde darénak eta <<bultzátzeko>> pres-darénak eta · óri? (“reunir”)

e) Gaztelaniako maileguak: “-ar” amaitutako formen egokitzapenak

Atal honetan hauek ezar daitezke, besteak beste: “tiratu /tíretu //tíatu /tíe-tu”²⁹, gaztelaniako “estirar”-ekin lotuta, bai formaz bai esanahiz. Erabilera batzuen berri, adibideen bitartez:

28. P. MUGICA-k bost esangura ezartzen dizkio aditz honi, euskalki markarik barik (1981, 235).

29. Ikus bestelako formazko iruzkinak aurkeztutako beste ataletan: “1.1.2.2. Alternantzia: -(t(x)/d/r)u partizipio soila /aditz perifrasiá” eta “1.1.2.1. Partizipioaren amaieran bokalaren (-i /-e /-a) eta atzikiaren arteko -(t(x)u /du) alternantzia” hain zuzen.

kmz °eéés, kutxílluakiñ e, apúrtu!: ebái · bárik, · tirátu álan da, kráss-kráss! urté-tzen dau!, ta esponjóso-esponjóso. · Áxe!, áxe san ba!, “Ondaméndikoo gíbéla” ...
nme2 °ess, “etaraisu bá”, “tiretu”...: “etáaisu!”. · Oiñ! iuel “tirétu eure aldéra! · pixkat” eroo · fuentia eró... orí bai!

nmz °... ogeta- / maike pasau be itten zittuan, / tietu ... (“dirua jaso”)

kmz5 “... Etxetik eruete zan kardantzillo bat kaixolan da arek kantatze eban da tiratu eitxe zitxuan beste kardantzillueri” (“etorri eragin”)

Beste esanahi batekin ere jaso dugu, “disparar” hain zuzen:

kmz °[bakeroen nobeletako protagonistak] da tirátu?: · béstiak etara baño lénao tá!-tá! ta dának ílda! (“tirua jo, bota”) –*kmz3* °ollaórretan · txakúrta biao, txa-ku-rra! · txakurra oná! geo tiátu be jákiñ im-biok, e? (*idem*)

“Sikatu /siketu” “secar”-etik etorriko da, noski, baina fonikoki euskaraz oso errotuta dago. Izan ere, Eibarko forma arrunta da, “liortu”-ren orde.

1.2.1.5.2. -ttu /-txu amaieradunak

Jaso ditugun adibideak ikusirik, argi dago Eibarko atzizki nagusia gaur egun “-txu” kontsonante afrikari sabaikariduna dena. Nolanahi ere, “-ttu” ere oraindik bizirik dago lekuko zaharrenen eta Aginagakoen ahotan. Hala eta guzti ere, ezin da esan kontsonante leherkari sabaikariaren eta afrikari sabaikariaren arteko banaketa geo-soziolinguistikoa partizipioetara mugatzen denik, eta orokorrean galtzen doan “tt” kontsonantearen erabilera edozein eremutakoa modukoa da. Hemen erabilera horren parametro lauso bat ezar dezakegu; izan ere, “-txu” atzizkia lekuko guztien ahotan jaso dugu, eta esparru murriztagoa du erabilera eta bizitasun aldetik “-ttu” aldaerak. Azken hau lekuko hauen ahotan jaso dugu: *raz1*, *raz4*, *naz*, *nme2*, *kaz1*, *kaz2*, *kmz14*³⁰, *rmz6*³¹, *ñmz1*³². Adibidez:

naz botélla-garbittu bie-dabe –*kaz2* °a!, garbittuu ámak! –*nme2* sukáldi garbittu bi-da

kmz14 “... Ene, Teillar de Charden! Beittu neban eta ras!, erosi eta bolsillora- eta han dago ...” –*rmz6* “Gero, 1948xan diruari begittu barik parte hartu neban kanpeonatuan, diruari begittu barik ...”

Besteak beste, aditz hauek daude sail honetan: “loditxu /loritxu”, “txikitxu”, “gorritxu”, “isarditxu /iserditxu” (kom. “izerditu”), “aunditxu”, “satitxu”, “garbitxu”, “barritxu”³³, “ugaritxu /ugeritxu”³⁴, “geitxu”, “gitxitxu”, “amaitxu”, “aitxu”,

30. *kmz14* lekuko honen kasuan zalantzakoa da horrelako ahoskera duen; izan ere, bestek egindako transkripzioa da (horregatik dago adibidea komatxo artean).

31. *kmz14* lekukoaz esan dugunak *rmz6*-rentzat ere berdin balio du.

32. *Idem*.

33. Ikus beste atal honetan ere: “1.2.1.5.8. Atzizki metaketak partizipioen atzizki amaieran: -stau”.

34. Ikus beste atal honetan ere: “1.1.2.3. Partizipio amaieran -i + -(x/t)u osagaiak azaltzea”.

“gatzitxu”³⁵, “baltzitxu”³⁶, “txikitxu”, “prejitxu”, “oitxu”, “argitxu”, “gorritxu”, “goritxu”, “oskarbitxu”, “sutitxu”, “nasaitxu”, “bisitxu”, “urritxu”, “ispitxu”.
Horietatik, adibide batzuk:

rmz °egúrra menditxik e... ekartzte-san! · paúen adárrak! · da pao-búruak!: · áre-txikitxu! · aixkóriakiñ! // *rmz* °burdixa kompóndu ta... · egúrra-txikítu...: neúko biarra óixe! da nábu ekarri! (“partir, trocear”)

/nme2 tásia ... satika txikítu san –*f.a.* básua jausí txa txikitxu ein da (“romperse”)

kmz °bái!, oim-be badáka séose, e?, ánkak aundítu eitxe-akúes da...

f.a. aunditxuta nao lárrei janda

raz1 sukaldia garbitxu bie-da, °neu-pe Sanjuanetarako astinndu biekot! –*rmz* °mákiñiakiñ e, jóte-suan · garixá!; · geró garbítu, daa, geró errotáa! · astúakiñ artu-ta! sorrua! (“limpiar”)

/kmz8 “... ba ladrillua autsi etsan, jo ba zeban garbitxu eingo zeban ...” (“hil”)

kmz3 °... óne-beste · beste gausa bat: · am-be géitxu al basam-bestiari · bestia-am-be terrenuak óstu! –*nme2* °eee... · millé taa... e, millóí bat eta lareun mílla! · puestoo... · <<laneko>> puestuak i- geittú bittuela oiñ ee se, orrék e, · sáte-seban lénguan onék ***-ek!, · da, · tai-séma-bajatu bi dabela porsentájia ta, · baai, · da sétan eo-ais ba len lau-urtían esér eim-báik?: len lau-urtían ke- p- · paráuen porsentájia géittu in dá!, · da oiññ... · óiñ! gj- gitxítzekó?!!

rmz2 °... bañá, segía gitxítu in dok emén, bátetik · segía e ga- gastú aundíxa; da geró <<esíbiso>> gitxí txa ser gitxí txa ba gitxítu in dók

raz °trikitíxaa... da gabían esean erromérixarik Arráten: átzaldían · ta dána trikitixa · sasói baten, géro ya eón san será, baña gabían eséuan es gaupásariík, daa gabéko amárretan ero amáiketán fuéra!, · amáitxu!

kmz °... neská batek urtén da esa-ésta -”ba jeréntiakiñ e...” · san- sélan esan dau?, “reunidata- reunidata” · aitxu éztat. Baña... · táí!-sela- séla esan daben, · éuskera batuórrekiñ!

kmz okelía prejitxu eim-biar da

naz ori gaberakoo, · argítu... · es- eitten da (“espabilar(se)”)

raz1 goritxuta dao-onetxe-moruan: bai, txapia goritzen da baai, goritxu itxen da, baai... · da gorritu be bai!: bíxa-dias órrek...

nme2 °... <“leikitx” aditz laguntzailearen forma zuzenean galdetutakoan> kabí-du ingo da bañá, · amen óittu estala itten!

nme2 °... neúan da geixao esatnn [sic] da ee... · egueldi txarra dauenian da -”ñó! oskarbítu in dau ta isótza ingo dau” ero...

nme2 tornilluak e, nasáittu im-bi-dabe (“aflojar”)

nme2 °eo, baai! “esnatu” es, lotáa ess!, · ordu bátak a- ordú- baai, ori bisittu

naz °<belarrak> oin!; geroo... geró urrítuko-ya baña oñ e, ebateko...

naz ispítu im-biosu

“Suritxu” aditzak bi esangura nagusi batzen ditu, bata bestearengandik oso ezberdinak gainera. Batetik, azala kentzeko esangura du, “pelar”; eta bestetik, kolore zuria ezartzea edo jartzea zerbaiti, baita elurra egiten duenean ere. Adibiderako:

raz1 °biarrak itte-sianian, -artúa bakísu, mall- burúa?...- da bátu burúak e serían! · kámpuan ero, solúan!; ka- ekárrí! burdikária! dának itzúli serían gámbaran! -

35. Beste atal honetan aurkeztuta dago: “1.1.2.3. Partizipio amaieran -i + -t(x/t)u osagaiak azaltzea”.

36. Beste atal honetan aurkeztuta dago: “1.1.2.3. Partizipio amaieran -i + -t(x/t)u osagaiak azaltzea”.

gámbara-pe-edérrak danían ordúan...- · da, da-afaldutakuan, afaldútakuan, e- ausó-
ra! txándan!, ausóra! s- surítzera! -"surítu" bakisu ser dan?- surítzera!; d'ántxe! o-
ántxe, óras muertas ántxe, kónntua-kontáu t'áánn...

/raz1 °"pinturía" ero...: o- oin surítzia-amaitxu san!, len san surítu, i- idaltzérúa-
kin da surítu, baña oiñ e pintau, pinturía! pinturía...!, pnttau! pinturía!

"Beitxu /beittu /bettu /begittu" aditza "be(g)iratu"-ren sinonimoa da, baina agian "beitxu"-k bizitasun handiagoa dauka ahozko jardunean. Izan ere, agintezko "beitxu! /beittu!" esaera denen ahotan oso bizirik dago. Adibiderako:

nme2 béittu e?, es geixao iñ, e?

nme2 °bettu-bettu-bettu!, siárrua erré tá...!

kmz °súú!, sú béitxu!, béitxu or ser daón!: · ser dao?, · frítuak!

rae °éss!: béitxu beorri!

Baina lekuko denek ez dute onartzen esaldi arruntetan erabiltzeko, hala nola kmz lekuko kaletarrak, agintezko esaeran erabili arren.

"Gelditxu /geldittu" aditza, lehen ere esan denez, "geratu"-ren parekoa da. Zenbait adibide:

kaz1 °es! an amar urte arte; ta geró amar urtékiñ, nere ámandria il sánian · baa · básarrixa · geldittu sam-ba nere amándako · ta bere aistá batendako... -ñmz1 "... zelan ez jakixagu izenik eta apellidorik honenik?". Eta: "Ba ez jetsak ardura: Mago de Urki ipiñiko jetsaguk". Eta hortxe geldittu zan ..."

kaz2 °... béstiok an gelditxu sien!, m eskom-bárrixok! ... -raz °... da nerí eskillá-
retan kántau éstan da ni gelditxu nitzan -"aitxá!, · sé!?, léngunian áuxe t'áuxe pasau-
atan" da -"baáai!, guré · tía -estáki-sélan esáte-ben-..."

"Laskitxu" aditza zaharrenen ahotan bizirik dago ("restregar la ropa; jabo-
nar"), batez ere andrazkoen artean. Esate baterako, kmz kaletar helduak ez du ezagutzen forma hori eta osterantzeko aditzetara eta perifrasietara jotzen du, eta beste hainbeste kgg kaletar gazteak, baina beste lekuko batzuek normalki darabilte. Adibiderako, definizioen bat tartean:

kgg "laskitxu"?: estaa, sé dan bés!

f.a. "laskitxu": oiñ esta erabiltzen

raz1 °oixé da! · naástau! ... rra-rra ta, garbittu ta ségi! Orrek, órrek no-dákis örre-
gausok?! tía-tía-tía-tía-tía... "laskitxu" ta... .. ondo ero txartó, laskittu! ... áundixena
kendu ipiñi be... .. bai! rra-rra-rra ipiñi ta uretan ipiñi ta esegi ta kitto!

nme2 °<"erropak jo" eta "laskitxu" bat diren galdetutakoan> éess! "laskittu" da
jaboyakiñ · sértu!, da "errópa-jo" lén · askían onduan eote-san · losá bat · d'án jóte-
sien, d'ero lixibia ... bai! ori da "laskittu" · da bestia · "lixibia jó"

naz oriii · laskittu im-bie-da, e? ("jabonar") //naz ondo laskittu bie-da, e? ("fro-
tar") //naz erropak, laskittu taa im-bie-dabe, garbittu im-bi-dabe, bai!

"Egokitxu /eokitxu" aditza ez dago oso bizirik Eibarren. Lekuko batzuek onar-
tu ere ez dute egiten, hala nola kmz-k; beste batzuek, erabili ez arren, noizbait Eibarren entzun izan dutela diote, kgg-k legez. Beste lekukoek zuzenean galdetu-
ta (hau da, galdera egiterakoan "egokitxu" forma inkestagileak esanda) onartzen dute, baina eguneroko jardunean ez darabiltela dirudi. Zenbait adibide:

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

raz1 “egokittu”: ori elegante dao ... “okurriru” esatia morúan!, baa oixe!

naz “gaur eokittu aku etortzia”: bai!, bai

kgg °basarriren baten ... esan sésten ... <<aditz>> modúan nik estot erabiltzen “egokítxu”: “séñi egokítxu jáko?”, nik estot esáten sékula, “séñi tokáu jáko” béti, eroo- ero “señén biárria da?” eró, “séñek eim-bia-dau” ero olakórem-bat, “baña séñi egokítxu jako etórtzia?”?, prr ... san <<esáldi>> normál bat, e?, osea san berdin “tokau”, osea, nik “tókau” esáten doténa, baa “éguenetan tokátze-jaku ee lúrra garbítzia”, “egokítzen jáku”, “egokittu”, gáñera ... Barrenétxen úste-ot isan sála

“Deitxu” (kom. “deitu”) lekuko zaharrenek aditz forma soiltzat badarabilte, baina horren ordez, “diar eiñ” perifrasiá ere arrunta da bertako euskara jatorrean. “Deitxu” aditza gazteagoen ahotik sarriago entzuten da. Dena dela, adibide ugari batu ditugu:

kmz °bá!, nik dei- déitxu eingo juat iré-etxéa: -”i António!, dirúa bia-júat!”; - “Éne!, etxéa deitxu-éstak Jabierrek eta, dirúa biar ei dau ta...”: ónek ekárrí!...

nae °<jenio biziz> baña derrior etorri bi-dau!, se domeka gabiñ!, ko- ko- ártu errekaue!, geró · atzo déittu-ben árek, e?, baña a- andrik amar d’erdik aldin deittu-ben!, da torriko da!

naz bátomatek eee · déittu dau kampotik, diar in ddau kampotik

rmz6 “... deittu esten, partidua ipiñitta deittu esten ...”

raz °... -”déitxukotzat · ontxé amári, e Igártuan amári?”, txa -”bai, déitxu nái bosu, nái bosu déitxu”: enéban deitxú ...

“Arkittu /arkitxu //aurkitxu” (kom. “aurkitu”) aditza bihurkari legez erabiltzen da bakarrik, norbaitek bere burua nola ikusten duen adierazteko. Dena dela, baserrietako lekuko zaharren ahotan dago bizirik bakarrik, eta ez da sarri entzuten den adizetarikoa. Hauen ahotan jaso dugu: *f.a.*-k arrunki darabil; zuzenean galdetuta, beste hauek ontzat hartu eta darabilte: *raz1*-ek, berau da gainera “au-” diptongoa darabilen bakarra, besteek murriztutako aldaera darabiltelako; *nme2*-k eta *naz*-k. Adibiderako:

f.a. ondo arkitxu naix //f.a. ondo arkitxuko giñukiesas

naz óndo arkittu naix

raz1 “ni ondo aurkitxu naix”: bai-bai!

Lekuko bakarraren ahotik jaso ditugu “proibittu” eta “atrebittu”³⁷ formak, *raz4*-ren ahotik hain zuzen ere. Kontuan izanik oso gazterik Eibartik alde egin zuela eta gaur egun bizimodua gaztelaniaz egiten duela, ezin da erabat baieztu horiek Eibarko forma jatorrak izan direnik (gaur egun behintzat, “-du /-ru” amaieradunak erabiltzen dira erabat), baina berak azalpen hau egin zigun:

raz4 °”proibitu” bai, “proibittu”: proibittuta dao (?)ta-orduan, (?)... “proibi-TTU”! <altuxeago ahoskatzen du, markatzeko>, es “proibi-du”!: “-ttú”!, “-ttú”

raz4 °... nere aittak, (?)... geixao · esan a- atrebittu nerí kampuan (?)loitteko, e?... Es, es ébam-pentzatzen, es nik an · kampuan loingo neban, es! ...

37. K. ZUAZO-k “Debabarreneko ezaugarri kiputxak edo orokorrak” taldean kokatzen ditu horrelako formak (1999; 45, 48).

Gauza bera gertatzen da *naz*-ren eta *f.a.*-ren ahotan jaso dugun “sainttu //saintxu” formarekin ere. Lehenak senarra Azkoiti aldekoa zuenez eta bigarrenak elgoibartarra, agian haiengandik ikasitako formak izan daitezke, ala eibartarrak. Nolanahi dela ere, gaur egun forma hedatu eta erabiliena “saindu //sainddu” da erabat (kom. “zaindu”). Adibiderako:

naz geu-geure burua-be saintxu im-bittú //*naz* umia sainttu bie-da
f.a. señék saintxútxu gaur umiak?

1.2.1.5.3. -du (/ru /-ddu) amaieradunak

Kontsonante ostean automatikoki egiten da kontsonante leherkari horzkaria (“-du” atzikia, alegia).

Aditzonaren amaiera bokala denean, horren ostean gertatzen da atzizkiko leherkari /dardarkari alternantzia (“-du /-ru”). Dena dela, azken kasu honetan ez dute lekuko guztiek alternantzia egiten, eta batzuek beti edo gehienetan darabilte aldaera bata, eta beste batzuek bestea. Bietarik egiten dutenen artean lekuko hauek ditugu: *raz1*.

Bestalde, kontsonantez amaitutako aditzoinetan, atzizkiak beste aldaera bat ere badu, kontsonante leherkari sabaikaria hain zuzen (“-ddu”). Argi utzi behar da, nolani dela ere, ez dela kontsonante hori sabaikarizalea, aurreko bokal itxia baino: “-in-, -il-” aditzoin amaieren ostean gertatzen da, gertatzekotan, aldaera hau. Izan ere, zaharrak edo baserritarrak dira bakarrik “-ddu” aldaera sabaikari hau darabiltenak, hala nola *raz*, *raz1*, *rmz*, *naz*, *kmz*, *kmz3*. Lekuko gazteenek ez dute ezaugarri hori ikasi, eta aldaera hori galzorian dagoela esan daiteke, urte batzuen puruan ez da entzun ere egingo.

a) Kontsonante albokariz amaitutako aditzoinen ezarrita

Aditz hauek daude talde honetan, beste batzuen artean: “argaldu”, “sabaldu”, “normaldu”, “afaldu /apaldu”, “baskaldu”, “apaldu”, “galdu”, “saldu”, “bialdu /bieldu” (kom. “bidali”), “makaldu”, “sapaldu //sapildu /sapilddu” (kom. “zapaldu”), “asaldu”, “i(g)ualdu”, “formaldu”; “epeldu”, “eldu”, “usteldu”, “simeldu”; “trankildu”, “sildu /silddu” (kom. “zildu”), “maspildu /maspilddu”, “umildu” (lekuko nagusien artean, aditz hau onartzen ez duen bakarria *kmz* da), “saildu” (kom. “zaildu”), “ixildu /ixilddu /isildu”, “iñutilddu”, “biribildu”; “odoldu”, “soldu /soildu” (kom. “zoldu”; esangura bikoitzaz, bai sendatu bai gaiztotu); “urkuldu /ukuldu”. Adibide batzuk:

naz aurtin ee pórrue-garatu in ddiá -ero- síldu in ddiá, síldu
f.a. °Soildú <gaztelaniaz> es e, “gaistótu” ... “soldú” da, baa, se esango-pa nik?: amen sartu jata nerí estaká bat, da au gaistótu eitxen da, pasmótu eitxen da, bázuetan, da axé da “soldú” ... bueltia usteldu eitxe- e pasmúa eitxe-ako, ta geró alakon baten errémentau eitxen dau –S.B. °Soildú es, “sóldu”. Txoldarrak eta, e?, infesiño txikixak ... Oso minbera dakasunian, e?, ta gorri-gorri jartze-jatzunian, an sakatzen ibiltzia alper-alperri da. Laga orri beres ero bestela ba ipinisu seose ta ia

soltzen dan. Eta soltzen darian estutu batekin ba urtengo dau sikiñak *-raz1* “gaistotu” ta “soldu”, bai! bixa-dia ... “soldu” da e, · e táka! taka! taka! joten dau ba sek-, bakisu está? axé... · á soldutakuan ya, · er- serto itxen da, · ssabal- sabaldu itxen da, da ya ortxe orduan, trankildu itxen da *-kmz* °emén erída bāt naékan da sóldu eiá-tak ... “gaistótu”, · pasmúaa *-nme2* soldú esaten da, e infétatzen darian

raz1 °”saildu” da, s’ésangotzu-pa nik?: eiñ eim-biar eim-bie-dana... .. estákisu gánaua-pe antxé! nai ésta ta nai ésta baña-antxé, antxé... ba oríxe da “saildú”; · nai txa e gogó txarrian isén, · eiñ eim-biar... *-nme2* °”saildu gáittu-pañá, esiñ ise-juau amaittu”, bai alegiña eró, “sa- saildu gaittuk, está?, baña...”...

kmz dénda barrí bat sabaldu juek *-rmz* °áskaua- áska-pa serráuk!: tapiain [sic] serrauta!, tapía sabaldu ta, beixa!

/kmz egúna sabáldu dok

/raz1 °<erditzeko zesarea egitea> sabaldu i-ben-bai

/S.B. dana sabaldu da or siar

kmz °... da oríxe-in séban, e?, Arjentinara llegau, · guardasola ero (?)andria eró galdú ta, · Eibarréa!, or dátor! (“extraviar”)

/kmz °antes e, entrabas en kualkier barr i..., i Tríó Laspítaa ero béste batzúk eró, (?)...lokés, kantúa! ··· Oiñ, galdú da orí. ··· Oiñ álantxe, “Eibar kantúan” da ein da... ·· Ramíres da, gítárrikiñ... (“desagertu”)

/raz6 “Hori [lupua] azpaldixan eztot ikusi eztakit piñuak galdu daben ero zer” (“desagertarazi”)

/kmz °<jokoan> ess, es irabasi txa es galdú. ·· <txantxetan> Baña galdú gausá bat eitxen dau!, gisonan e afaríxa eim-barík · jua da! *-rmz* °óixe!, járxua galdu arté!

/ñaz5 “... Eta gabian dana zerkau eta deittu etsenian Etxabek esan ei etsen eze: “Bueno, ya galdu gaittuk” ...” *-rmz6* “Bueno, ba euki neban tropezo txiki bat, akzidentia. Eta hantxe pixkat galdu nintzan. Baiña ostian bastante ondo nago” *-naz* orre-txe-galdu bie-dau askenien (“estropear, fastidiar; matar”)

/naz esnia galdu in dda, ee · píkau in dda -ero- galdu in dda (“picarse la comida”)

f.a. nun apaldu dosue ba? *-rae* °... gero artua suritxú!; etaa... léku askotan Errosárixu erresau!, arto-suritzem-batera!: baai!, Errosáixu erresau!; geró ee afaldu!

raz1 apaldu in da, bajátu!

kmz án!, odóldu dósu oim-be!

raz1 erregalu bat bíaldu eskúe *-kmz6* “... poltsilluak fraketakuak etara kánpora forrua. Olaxe etara erretratua ta etxera, aixe bialdu etxerá! ...” *-rae* °... Muitzakoo Mari-Kármen etxea bieldu, · da Irének eta bíxok e, a ebai e, iñ áá-gak, eta geró, e, jó e gastañía, serákiñ! agiakiñ!, eta, sártu e ·· sakukári-artu lepuan eta jo-ta Krábéliñeaño béti-góóra!, trástiek eta sakukara kastáña... · etxéra!

kmz mallábixak e eldu-ítxuk (“madurar”)

/kmz °”lijértu” ... [engranajeak] da motórra be bai!: motorra lélengo, pistóiak, eldu eitxetzá, ta lijertu, “suábetu”, ·· “rodar”, motorr e ro-rodáo ... rodátzia, ooríxe da!, lijértzia!, pistóiak! lijertzia (“agarrar”)

/rmg °askenian, bariak eldu!

/nme2 noáñok eldú sáá?

kmz pelotárririk ónena ... primérako pelotárrixa · isáteko · geixao sail- saildú biekok *kmz* °xxx! xxx!, oiñ ixíldu!

raz1 °baré txikí bat antxé o- a- asa-ártian asáldu san!

rmz °txakoliñak estauka barrikia bete-ésta be, etxok importa!: sárdaua bet- derrior bete biok · sikiña botatzeko ·· betetzespada bestela usteldu itxen dok

kmz3 °... iñutíldu iñuasen dánok!, · eraría!

naz iualdu dou, ipiñi dou líxo

rmz °atzamarra maspiildu ingosu! *-f.a.* kotxe gáñian esaitxe ibili, e maspiildu eitxen da

Hor aipatutako aditz batzuek iruzkinak merezi dituzte. Esate baterako, lekuko gehienek “urkultu” darabilten artean, *kmz* kaletarrak eta *raz1* baserritarrak kontsonante dardarkaririk bako “ukultu” aldaera darabilte. Kaletarrak bestea ez du onartu ere egiten gainera, eta baserritarrak aldaera biak darabiltza. Adibiderako:

kgg °bábak estira urkúltzen?: urkúldu eitxen dira?, ero, alétu?, ero, sé-itxen da? ... Ta idárrak? ... nik etxian esáutu doten gausá bakárra ida- idárrak esan di- isan dira, osea, artúa es-sékula estaa neré-etxian e urkúldu ta es esér, eta bábak bés. Beti... i- idárrak bai, baña-ála ta gusti be neré amári sékula estetzat entzun “urkultu”, osea “idárrak urkultu”. Nik uste-ot “aletu” –*raz1* artúa urkúldu ... alía kendú –*raz1* urkultu bábak!

kmz ukúldu eim-biar día · bábak ... baai: idarrak, idar- illaarrak, baabak... –*raz1* bai, ukultu [sic] itxen dia idarra-pé

“Baskaldu”-ren lekuan “jan” generikoa ere sarri erabiltzen da eguerdiko jatordurako. Hau da, berdín jotén du bietariko edozeinek:

kmz nun baskáldu dosúe?

kmz nun jan dosúe?

Galdekizunez lortutako erantzunak direnez, argi eta garbi dakigu eguerdiko “comer” dela. Gainera, adibidean *kmz*-ren erantzunak jaso dira bakarrik, baina lekuko gehienek erantzun bikoitza eman ziguten.

“Eldu”-ri dagokionez ere (kom. “heldu”), beste esangurekin erabiltzea arrunta da lekuko guztiengan, baina “llegar” esanahiz kalean ez dute onartzen, ez behintzat *kmz* lekukoak. Osterantzean, “agarrar” esanahiz ere, oso egoera mugatuetan erabiltzen da, eta gehienbat bizigabeekin erabiltzen dela dirudi, bizidunekin erabiltzeko “oratu /obatu” arruntagoa delako.

“Sapaldu” aldaera ere orokorrean lekuko guztiak ezagutu eta erabili egiten dute; markatuagoa da “-i-” bokal sabaikaridun aldaera. Izan ere, “sapil(d)du” ez dute onartzen lekuko guztiak, hala nola *kmz*-k eta *kgg* kaletarrek; onartu bai baina erabili ez du egiten *raz1*-ek, eta darabiltenen artean *rag*, *nme2*, *naz* eta *f.a.* daude. Adibide batzuk:

kmz “láixetan ein” °baai! ... len eitxe-seben: · sartú, · séi eró, · saspí eró..., · batéra sartú, · ta geró, · sártu ondó, ankiakiñ sa-paldu, · -láixa, e?, es e lurrá, e?-sapálduu, sartu · da geró dána-batéra “r-r-r-rá!, buéltia! · lurrári!

nme2 “sapáldu”, “sapíldu”... · berdín da

b) Kontsonante sudurkariz amaitutako aditsoinei ezarrita

Besteak beste, aditz hauek daude talde honetan: “garandu”, “labandu”, “euregandu” (“apropiarse, apoderarse”), “alkarregandu”, “banandu” (“repartir”); “susendu” (“zuzen ipini”, alegia), “gisendu”, “kendu”, “sostendu”, “beitxendu /beittendu /beittandu” (kom. “begitandu”), “aldendu”, “lurmendu” (elur geruza urtu ostean, lurra bistaratu), “irendu”; “bardindu /bardinddu”, “astindu /astinddu”, “mindu /minddu”, “sikindu /sikinddu”, “sarrindu /sarrinddu”, “eskindu

/eskiñu”, “alegindu /aleginddu”, “txiprixinddu”, “sutindu”, “birrindu /birrinddu”; “saindu /saindudu” (kom. “zaindu”), “apainddu” (pinadia garbitu), “aindu /ainddu /anddu” (kom. “agindu”), “gaindu”; “iguindu /iguinddu /iguiñdu /igunddu /iuiddu”; “gisondu”, “eskondu /exkondu”, “konpondu”, “ondu” (markak hobetzea, kiroletan; baserriko lanetan, heldu, sikatu), “koskondu /koxkondu”, “jabondu”; “bigundu /biundu”, “illundu”, “alargundu”, “lagundu /laundu”, “urundu”. Zenbait adibide, horietatik:

nme2 °urkúldu! ero garándu! ·-tzeko, jó im-bidie bábak //nme2 artúa garandu bi da · -ero- urkúldu //nme2 °baai, artúe be iuel da. E, artuai-itte-akon, léleno garándu, · garandu! ta gero errotan ¡jo!

naz °jornadie... <barrez>, ái... Ee, sarritan e, bakisu se paseta-an [sic], e?, · ee, · burua be pixka-sértu itten da, esta?, taa, suséndu esíñ! <barrez>, baña bueno!, susentzen gá! –raz1 (“corregir, poner en regla”) °... árek séñek · suséndu? –raz5 °askó suséndu sitxuan! (balio abstraktoz, “konpondu”...)

raz °“potolotu”, gitxiao esaten dou: ero “giséndu” eroo “lorítxu”, bixe- bíxetara

kmz °Kaporálana! ··· Etxían, berándutu!, jóéé!, goixaldían!: · moskórta bañá!, sápara-kendú ta · -andriak es entzutzekó!- (“erantzi”)

/nag °<bere alabaz, gaixorik delako, “argaldu”> da eun grámo kendítxu bákarrik
/kaz2 °tre- tre- trena bátzu-bánekaseen!: eskóntzeko kéndu nitxuan... –nme2 °baa, goixien e, goixaldien ee, · Robérto etorri danien e... · edúrta jardun ei dau gogór!, · báá... · goixiam-baseuan amén e, surí-suri séuen! · ta... · <elurra urtzea> geró kendú dau pixkát

/S.B. °“ulia mostu”. “Ebai” be bai!: “ulia ebatera noya”/“mostera noya”. Nik “ulia mostu” esaten dot, ta “bisarra kendú”...; “bisarra kendú ta ulia mostú” esaten dou. “Ulia ebagi” be bai e?, esaten dou

/rmz5 °... “onek eítxuk iru métro t’erdi!”: etxítxuk iñ! · orri kendu biaok arrixa métro t’erdi bada-are-métro t’erdixa-kéndu!, orrek eítxu ee bi métro (“restar”)

kmz °... batékin, kombersasiñuan see- sebísen, · -”kokóta ee, bardíndu-taa dáo ta béstia dao ta...”

rmz °sarrák ee oi- oi esauskuan guri or e, · oñ úrrengo e, · afaríxa e, Askúena ja-genduanian: -”derríor bittuela idixa-derríor bittuela!, neu-go- gobértau ta neu-sainddu bikoittuat! berrís!”

rmz °da orbéla ekárrí! · órrendako!: páre bat-iru ba-burdí orbél ekartze-enduasen guk ee Arrátetik!, pa- pauan orbéla!, aspíxak itxekó, bestela ee, síkíndu itxe-sitxuan da. Astiam-burdiká bat eró, bóta ta-an orbél gáñian · loitxe-juen ardíxak!

kmz °bááái!, · báái!, kompónduko gára gu, e?, kompónduko-ára

f.a. probán bai, ondú bai ero es

nme2 neri es- etxata gustatzen e, illuntabartu deixen -ero- illundu deixen

rmz7 °... Artuarii · goixa-laundu bítzan!, eurixa eró..

raz1 sostendu jersixa! //raz1 °... séra! gorpútza esín sosténdu iséten dot, e? (“sostener”)

rmz °piñuak apaindduta ipiñitxa daosak an

rmz °geróó bedárrak ondú!

naz áinddutzen antxé-egoteko (“mandar, ordenar”)

/rmz °amen eukitze-itxuan árek!, igual ille bíxan ardíxek!, euneo-euno [sic]: goixian ainddú, · illúntzian, illúntabarrian, neuan · barrurá (“soltar”)

/nme2 árek aindustes maníobrak (“dirigir”)

/rmz °aindu bai, baña iñ, notxe! (“prometer”)

/naz áindittue milla peséta au máixaugaittik (“eskaini”)

kaz2 °... ni koskondu nitxuanian euan déndá bat · érropena! –raz1 °-“umía-askó koskondu don, e?” a- andrak-etá... “umía-askó koskondu don...”

rmz °bai ba, solua bardindu: erpillak eta jo..., bardin-bardin laga –*naz* bardínddu dou, ipiñi dou líxo
nme2 geuretzako banándukou (“repartir”)
nme2 artúaa · urundu bie-da
nme2 gáindu dau (“mejorar, tapar, superar”)
naz orrek kótxiorek ee ... dana txipxínddu gaittu
raz1 °baai, ja- “birrindu” jakingo esto-pa ser dan!? satíxu ... birríndu!: apúrto!, dana- daná-apurto, dana birrindu!, dana birrindu, dana birrindu... · eroser gausa birrindu! –*nme2* °birríndu” da baa, ee, artúa ero garíxa eró, · garagárra ero seosé, · urunaa, urun látza itten danien ganauei emotekoo, pentzuaa... ee... · sétzen daniam-bañá, uruna baño s- látzaua danien, ori esan dau [sic] · birríndu
raz1 sukaldia garbitxu bie-da, °neu-pe Sanjuanetarako astínddu biekot!
/f.a. elixako gausak astínduitxúu (“berba egin”)

Ikusten denez, goiko aditz gehienek euskarazko esangura eta erabilera arruntak dituzte Eibarren. Iruzkinen bat egitekotan, “sarrindu /sarríndu” aditzak mereziko luke. Izan ere, Aginagako lekukoen ahotan bakarrik jaso dugu, eta beste lekuetako lekukoek entzun ere ez dute egin forma hori. Guk geuk *naz*-ri, *nme2*-ri eta *nme1*-i jaso diegu. Haientzat ez du aparteko ezer bitxirik, gainera, ez erabileraz ez bizitasunez. Esangura, “zahartzea” da, maxkaltzea; agian “zaharkitu”-ren parekoa izan daiteke:

nme1 bai!, ori be sarrindu in dok

Horregaz gainera, “eskindu /eskiñu” bikoteko bigarren aldaerak badu zer esanik. Izan ere, lehenengoaren bilakaera fonetikoz sortutakoa dirudi, sabaikarizazioa azken muturrerainok helduta: “eskindu > *eskindu > *eskiñdu > eskiñu”, kontsonante sudurkariaren aldeko asimilaziozko murrizketaz. Aldaera murrizt hori *raz* lekukoaren ahotan jaso dugu bakarrik.

“Aldendu” aditzak esangura oso ezberdin bi ditu; batetik, “galdu”, “extraviar”; eta bestetik, bata bestearengandik alde egitea. Adibiderako:

S.B. antiájuak aldéndu játas, °gáldu: “se me an perdido, por infundamentado”
naz ésaítteeee... aldéndu, e? báta béstiagandík

1.2.1.5.4. *Gaztelaniako -ir amaieradunak (d/r alternantziari erreparatu)*

Besteak beste aditz hauek jaso ditugu: “aburridu /aburrirú”, “partidu /partirú” (“partir” eta “repartir”, esangura biak batzen ditu), “okurridu /okurrirú”, “reunidu /reunirú”, “proibidu /proibirú”, “atrebidu /atrebirú”, “sentidu /sentirú” (“notar, sentir” esanguraz; zein erditze aurreko egoera adierazteko), “sufridu”, “serbidu”, “okurridu”, “inbertidu”, “korrejidu /korrejirú”, “elejidu”, “eskribidu /eskribirú”, “repetidu /errepetidu”, “fundidu”, “segidu /segirú”, “undidu /undirú”, “kurtidu”, “diskutidu”, “pulidu”, “despedidu”, “kubridu”, “permitidu”, “reunidu”, “konfundidu”, “repetidu”, “proibidu”, “oprimidu”, “dibertidu”, “resistidu”, “lusirú”, “kumplidu /kumplirú”, “padesirú”, “dirijidu”, “kompetidu”, “batidu”, “añadidu”, “konfundidu”; “diskutirú /diskutirú [sic]”, azken hau *kmz3*-ren ahotan; “komprometirú”, azken hau *kmz6*-ren ahotan; “repartidu”, “konsegidu”, “repetidu”, “esistidu”, “esijidu”.

raz1 partiru ogixa
kaz3 °... da, gure ama ipiñi ebeen · dána-jokuan itxiaitxiik · gure amari merienda emón · úmieri partidu deixuen... (“repartir”)
kmz3 °... áixau najuam-pixkat eta prá-pa-pa-pap! sentíru najuan! –*naz* °bai! aixe bolára demas bátzuk eta sentíru nittua-neu-pe-e?, barruti-paña... –*kmz* nik etxúa-sentidu esébe
rae °beixa-pe, “sentiduta dao” esaten da txala iñ aurretik
kmz emén estao esébe ta-aburrídu!, · normala!
kmz °Páseo Sanandréstikan e, Amáña taa... uf!, Ermúrañok!, · dánaa líbre!, líbre!, kubrídu bárik · errékia! –*nme2* “eunían siar esta iñor b’etorri” °bañá, “eun gustian” esán eskero yá · · dána kubriduta geatzen da, está?
raz °Arráte-egunian bakárrik!: · da Arráte-egunian be sasói baten esán eóten · agarráurik, · bákár-bákarrik sóltia ... proibiduta éuan, s- bákarrik sóltia
raz1 °... guré gaste démporia sérixua sam-bueno... da dibertidutze-giñam-búee-nóó! dibértidu?! baña oingó gastía-baño askó-obeto, bueno! tíra-tíra-tira-tía... póó-ósi-gáñea! Asitxaiñera juan da...
raz1 ondóra juan da: “undiru” ta “ondora juatia” ba-ta, e?
raz1 °sémat eta elegantiao ipiñi ta lusíru géixao!
raz5 °bueno, baai, bañ’arekim-berba in ddaa-arék ee... dei- ee, dirijiduko gáitxu! · · obeto!
kmz3 °... mesetáa, da goixian e, séiretan eo txai-se ordutan eote-suan lélengo mesía! · da · araxe be juan da, dánekin kumplídu ta... fxt!, ála!
kmz3 °... nik ango bátzu laun i-naitxuasen! · da · jua-íñan! · s- ólaxen diskutíu sárdaua ta séla itxen dala ta... –*naz* aimbéste diskutiru genduan! · úrrengo eunian juen sam-parka éske
kmz6 °... ólaxe batu énduan lélengo dirua, da · · komprometiu onekin lokalóne-kiñ, au sam-bosteun milla peseta

Mailegu batzuk guztiz euskaratuta daude, fonikoki behintzat. Horrelakoa da “prijidu /prijiru /prejidu” adibidez (kom. “frijitu”); “erresibidu”, “errendiru /rendiru /errendidu”. Adibide bana:

naz patatak ... prijidu bie-dabe
raz1 pátata-prijiru bia-jitxunau
kmz pátata-prejidu biatxuk
raz1 °... erresibíduko sáittut, etórtzespasá ondó ibílli!
kmz3 °... guri e, · aprosimasiño bat emonda eroo · enfiñ! · a itxeko plántillak · éraitxeskuesen · sentésimiam-barruan! · · e, sentésimara! errendiru biar! //*kmz3* °... éuk e, éuk im-bia-isate-sitxuam-plántillak eta-aaxe · plántilletara gausa-asko rendíru! –*kmz12* “... sozialismua eta baketasuna aillegauko dala nahiz eta etxian sartuta geratu danok. Berez etorri bihar dok! Gizonak ez jakak beste erremedixorik, bertara errendidu eta ...” –*nme2* °baai: · · “itxosúa soseau sebánaak, soseauk’au í be”; · da “irí b’etorriko a-kanía-atebúrura” ba, · gastía ero sasoikúa eroo, estakisu?, ta baa serían, da bá, sáártxuau ero sertzen dabena-pa, · “ní errendídu nok, nerí etorri ata kaní-atebúru-t’irí [sic] b’etorriko ak!”: orí da ba-am- a- ún’amenáza!, eee... amená-siaaa... eró... · · baai...!

1.2.1.5.5. *Gaztelaniako -er amaieradunak*

Besteak beste aditz hauek ditugu hemen: “entendídu /entendíru //entenu /entenu”, “kabídu /kabríru”, “atendídu /atendíru”, “mobídu /mobíru”, “korridídu /korridíru”, “kombensídu /kombensíru”, “korridídu /korridíru”, “eskojídídu”, “ofresídu”,

“jodidu”, “agradesidu”, “entreteneru”, “bensidu /bentzidu”; “desaparesidu /desaparesiru /desaparesiu”, azken hau *kmg*-ren eta *kaz3*-ren ahotan jaso dugu; “komprendidu /komprendirú”, “padesiru /paresidu” (“padecer”), “leidu /leiru”, “defendidu”, “atrebidu”, “disolbidu”, “detenidu”, “insistidu”, “suspendidu”, “aprendidu”, “sostenidu”, “komprometidu”. Zenbait adibide:

nme2 °bátzuk “aittu” saten dabe ta béste batzuk “enteníduu”... · baa...
ñaz5 “Ba argittakua batu eta jentia datorrenari atendidu, atia zabaldu eta itxi, eta argiak emendau, eta kanpaiak jo eta ba ...”
rmz °bape mobiduitxuk itxurrixak oingo eurixekin ala? (“gehitu, nahastu”) –*raz1* mobiru bes gara eñ, amentxe-eon gara
kmz °ségun!, bákarrík: bákarrí-géixenétan! ···· Európa gustía korridu dou!
raz1 °<ume txikiaz> áre-dana-bentzídúko saítxúe! baai-bai-bai-bai... Da bentzídú gáñera, e?: bakisu ser dan “bensítzia” está?, bai-bai..., dának ántxe! -“éne! umia negarres dao” d’ántxitxiketán –*rmz* °<batu beharreko belar saila> bensiduta dakau
raz1 °... aukitze-níttuam-begonia bátzuek...! enéé... · da oná etorri · e, oná etorri tta begonia be, estaki-se pasatze-akon, · desaparesiru · bertám-beera... –*kaz3* °... gausa bátzuk ee · desaparesiuta etxetik eta... –*kmz3* °... oñ e órre-dánok! desaparesiduta dáuas, órre-tallárrok etaa... bastarra gustiak!

Gutziz euskaratuta dago “obeidu /obeiru” aditza, ziurrenik “obedecer”-etik maileguz sartuta. Baina esangura ere aldatuta dauka, eta errespetua izateari esaten zaio, batak besteari men egitea. Adibiderako:

mnaz °alkarri obeidu im-biar! // *mnaz* °len kriadiak obeidu im-biar, eta saíñ...

1.2.1.5.6. -u amaieradunak

a) Euskarazko jatorrikoak

Talde honetako aditzen jatorria euskarazko formak dira batzuetan, baina beste zenbaitetan maileguetatik sortutakoak dira, zuzenan latinetik datozen formen bilakaeraz sortutakoak esate baterako. Ez dugu, beraz, den-denen jatorria argitzen jardungo, hori lan diakronikoago baterako egokiagoa delakoan. Hemen kokatzen dira, beste batzuen artean: “asmau”, “sartau /dartau”, “billau /biyau”, “trokau” (gorputzeko atalen bat bihurtu, apurtzeke, “esguince”-a egitea), “armusau /armosau”, “aixau”, “katiau” (kom. “kateatu”³⁸), “atxikixau”, “altzau /altxau” (kom. “altxatu”), “suertau” (kom. “suertatu”³⁹), “gombitxau /gomitxau /gombidau” (kom. “gonbidatu”), “albardau” (“rebozar”), “eskutau” (kom. “ezkutatu”), “arrapau” (kom. “harrapatu”⁴⁰; “pillar” adieraz gain, “lapurtu” ere bada), “isorrau” (kom. “izorratu”), “urrustau” (*raz1*-i jaso diogu bakarrik, “kendu, zurrupatu” esanguraz), “jirau” (“agenciar”, “lortu”), “isentau” (kom. “izendatu”), “langau” (“egurretik langak egin”), “abentau” (“joan, irten, abiatu”), “erneau /erniau”

38. Jatorria, dena dela, latineko “catena” da (SEGURA, S.; ETXEBARRIA, J.M., 1996; 272).

39. Latineko “sors, sortis” izenetik datorrela kontuan hartzekoa da (SEGURA, S.; ETXEBARRIA, J.M., 1996; 225, 282).

40. Latineko “rapio”-tik (SEGURA, S.; ETXEBARRIA, J.M., 1996; 213, 268).

(kom. “ernegatu”), “abonau” (“laudatu”), “xaxau”, “susmau” (kom. “susmatu”), “moldau” (kom. “moldatu”), “sorabixau” (kom. “zorabiatu”). “Blastiau” partizipioa “blast” onomatopeiatik sortutakoa dela esan daiteke zalantzarik barik; Aginaga aldean sarri entzun daiteke, eta jaso ere, *rae* lekukoari jaso diogu: “jo, berotu, egurtu” esangura dauka; berdin, “sast” onomatopeiatik, “sastiau” erabiltzen da “pinchar” esateko. Zenbait adibide eta azalpen jarraian:

S.B. °... *Produto batekin, e?, gausa baten, esate baterako, produto on bat billatzia e?, produto on bat billatzia ba, urtietan e tallar bati bisimorua emongo-detzana oso <<sailla>> da. Ba igual ba ogei intentotitikan [sic] ba bat ero urtetzen dau. Eitxen dosu bat eta bueno! eta beia joten dosu, beste bat eta beia jo ta bueno!... Batekin, jo-ta pare-parian jo!, á sartau. Orixe da “párian jo”. Ta beste..., bai... alako idea bat euki, idea bat euki ta pare-parian jo, á sartau, á smau*

kmz no es “kritikar”: · “atxíkixau” ee daná txarto ein doula

kmz3 °... pásia eon suan · da · ollaorra-tópau nitxuan-baitxa... · piñári bat or, da béste bat amen, d’amem-bixam-bitxartian · garo sállá, · trin-trin-trin-triñ or garó-tzan

raz1 “altzau” ta “jaikí”-igual da –rmz5 °[probetako harria] etara dan lékuan!; · bestela · untzía · amaitzen dánian · makilli góra-altzau biaok –raz “jásoo” ero “áltzau”: “pakete bat áltzau ein dot” ero “jaso ein dot”, · igual détzta, “áltxau” eroo...

raz1 óla suertau da t’akábo –naz arekin suertau giñan áurres aurre · kalien

kmz °árrautzian gústua!, álbardauta!

kmz lapurrétan · árrapau juen

kmz isórrau eiátak mákiñia

kmz °“trókau” ésta · biúrtzia ... apur- apúrtzia morúan ... “trokau”, ixá-apúrtzia

raz1 áixau ... pustútzia-aixau da

raz1 makíllia ... sártau ein da

ñmz1 “... “Kaguen! Hori nun jirau ete leike?” Eta hartu diskua eta honek, Bastidak, kopixau egin zestan; diskotik etara zestan” –kmz7 “... dómeká goixé baten, bestiak mezetatik datozéla, ipiñi inglesen moruan zerák, frakok etá, biserak éta jírau ...” –kaz3 °... iñúndik iñóra esi-san jirau! erroparik itxeko, e? iñúndik iñóra bel: esseb’esseb’eseuan iñúm-be · erropárik eitxia nai basan

rae °aitxak langau!, partikak eta eitxeko...

rae °arutz abentau san

enaé °ernéau itxe-akó, es pentzáu!

nme2 °“orrek ámamaik etxaukek eta beorrek abonau bier beorrem-burúa!”

nme2 °bueno! “ámaiñ emon” · da ee, xáxau! ... edó, sólte dauela, · xáxau! · eroo ardíxetara ero gánauetara ero persóniagana ero-olluetara ero... · xáxau ee... “bénga éldu árei e-re...”, ta-amaiñ emón orí da

naz nik e sosee... · s- · susmau dot, e?, pentz- sose pentzatze-neban

raz1 “sorábixau”: bai-bai! ... betí san ori len: gerráurriam-beti san... bai-bai! ... °ori-illuntásuna ero esate-ako, está?, bai, “sorabixau” bai-bai... –naz sorabixau i-naix

Aldaera asko ditu “emetau /amatau /ametau //emendau” aditzak. Adibiderako:

kmz etxuek · argíxa emetau

raz1 argíxa estabe amatau! –nme2 nii etortze-naixenian, argíxa-amatau · eingo jonat

ñaz5 “...Gustatzen jakoz aparatuak, bueno! Hor ibiltzen da, emendau, ixotu... eta ibiltzen da okerrak egitten, ezta? ...”

“Aixau” aditzak adiera bat baino gehiago dauka. Fisiologikoki, sabela pusteá esan gura du, haizez handitzea; baina osterantzean, airera altzatzea. Esate baterako:

kmz3 °... [txoria, ezkututik] áixau najuam-pixkat eta prá-pa-pa-pap! sentíru najuan! //kmz3 °... “kauen dies... ollaorrakin dao-pál!” ta · ya · (¿)... da, áixau najuam-pixkat eta ... (mugitu eragin)
rmz °txala-aixau in san

“Abixau” aditzak homofonismoz esangura oso ezberdin bi batzen ditu. Batetik, “abiatu” esan nahi du, euskarazko errodua (kom. “abiatu”); bestetik, gaztelaniatik “avisar” euskaratuta, Eibarren “abixau” esaten da, fonikoki ere nahikoa moldatuta-bertakotuta. Adibide bana:

rmg °sasitzan gora abixau san –naz berútz abixau ganien geixao kantzau naix (“joan, abiatu”)
raz1 dánei s- abixau jutzeneu (“avisar”)

b) Gaztelaniatik maileguz sartutakoak

Multzo honetan kokatzen dira gaztelaniako “-ar” atzizkiz egiten direnen maileguak. Batzuk erraz antzeman daitezke; batu ditugun batzuk aipatzearren: “abandonau”, “abansau”, “abentajau”, “adelantau”, “adibinau”, “aflojau”, “aguntau /auantau /auentau /aguntau”, “ajustau”, “aklarau”, “akordau”, “akostunbrau”, “alkilau”, “alternau”, “alusinau”, “amaestrau”, “animau”, “anunsiauí”, “aparentau”, “aparkau”, “aplakau”, “aplastau”, “apoyau”, “apresiauí”, “aprobau”, “aprobetxau”, “apuntau /afuntau”, “armau”, “arrankau”, “arrasau”, “arreglau /arrelau” (“arreglar”, konpondu; eta hilerokoa etorri), “arrimau”, “asentau”, “asertau /asartau”, “asesinauí”, “atrasau”, “aumentau”, “biolau”, “boikoteau”, “bolkau”, “borrau”, “debutau”, “dedikau”, “denunsiauí”, “derribau”, “derrumbau”, “desakreditau”, “desarmau”, “desarrollau”, “desbiauí”, “deskuidau”, “despresiauí”, “destakau”, “destemplau”, “desterrau”, “destinauí”, “diborsiauí”, “dibujau”, “disfrasau”, “disfrutau”, “disparau”, “distansiauí”, “doblau”, “domau”, “durau”, “dutexau”, “ebitau”, “edifikau”, “ekibokau”, “eliminauí”, “enamorau”, “enbenenau”, “engantxau”, “engañau”, “enkargau”, “enrollau /enroyau”, “ensayau”, “enterrau”, “enteau”, “entregau /entreau”, “entrenau”, “entxufau”, “eskarmentau”, “eskobau”, “esplikau”, “espropiau”, “estropeau”, “falsifikau”, “faltau”, “fallau”, “fermentau”, “fijau”, “filmauí”, “firmau”, “flipau”, “formau”, “frakasau”, “frotau”, “fumau”, “fundau”, “gastau /kastau”, “gosau” (kom. “gozatu”), “grabau”, “gustau”, “imajinauí”, “imbitau”, “infe(c)tau”, “inflau”, “intentau”, “interesau”, “jabonau”, “jubilauí”, “juntau”, “julgau”, “kabreau”, “kalkulau”, “kantau”, “kapau”, “kargau”, “kastellanisau”, “kastigau”, “kejauí”, “kolokau”, “komparau”, “kompletau”, “komulgau”, “konfesau”, “konfirmau”, “konformau”, “konsentrau”, “konserbau”, “konsolau”, “kontau”, “kontestau”, “kontrolau”, “kostau /kosta”, “kritikau”, “krusau”, “kurau”, “labrau” (baserri giroan, lurra landu), “liauí”, “librau”, “ligau”, “lutexau”, “llegau /leau /leau”, “maketauí”, “manejau” (kom. “maneiatu”), “markau”, “matxakau”, “mejorau” (batez ere zaharren ahotan, “gizendu”; osterantzean, “mejorar”), “mesklau”, “modifikau”, “molestau”, “montau”, “mudau”, “murmurau”, “nombrauí”, “notau”, “obligau”, “omenajeau”, “operau”, “ordenau”, “organisau”, “pagau /paau /pau” (kom. “pagatu”), “partisipau”, “pasau”, “patinauí”, “pegau /peau”, “perrau”, “pikau”, “pintau”, “planteau”, “podau /porau”, “portau”, “preguntau /preuntau”, “preokupau”, “preparau”, “presentau”, “probau”, “probokau”, “prosperau”, “protestau”, “raspau”, “rebi-

sau”, “reklamau”, “rekomendau”, “resultau”, “ronkau”, “sakau” (“sacar”), “sagrifikau”, “salbau”, “saludau”, “santiguau”, “selebrau”, “sensurau”, “separau”, “serrau” (“cerrar”), “sobrau”, “soltau”, “sombreau”, “sospetxau”, “sublebau”, “suisidau”, “sumau”, “tardau”, “templau” (tenplean jarri), “tokau”, “trabau /tragau” (“trabar”, eta “atragantar”), “tragau”, “tratau”, “trillau”, “trituru”, “untu”, “usau”. Horietatik, zenbait adibide:

raz1 °”ixipillia”: · sueni- suek estosu jakiñ “ixipillia” baña sarra-pai! ... kendú esín gáñera!: pasmúa juate-akom-bai! · da u- auméntau! · ugarítxu!

kgg °... Elgóibarkúak deitxu séban esáten alusinauta seuala eta ...

raz5 °”... no se puede acer juicios, · ori Jangoikua-jusgauko gaitxu · góitxi-berá, · da, orí esi-leik’esán iñoaitxi-pé · txartó in ddaben da ondo in ddaben da ser in dda-ben, estakiu selan defendidu dan (?)...”

f.a. jentiakin e semat geixao tratau ta obe

raz °... -”Mendigóitxian bátembat eon san ólan ee destakádia, famosía?”, ta -”baái!, bérsuak-età...” , -”eske atzó eskilláran kantau éstes bérsuak aítzá!”

kaz3 °... pentzáisu! Ministro-fomento ta... · eibán · ejersia- · krísis aunndixa lbarren!, da, a- ari e akordau jakón · ee · pedidó bat iñ ... (otu, “ocurrir”) –*naz* °a bueno-bueno!, ségi! ségi orrí!, laga orrí... laga-laga!, ségi, es-es-es-es!-ségi-segi!... akordau... akordau barik in ddot... “konturatu”

kmz °”urebágixa” es kuando templass · un ierro, no?, témplau, gorrí- gorríxa, · gorrí daonían, urétan sartú, ero-orixótan, da ss-se rája!, “urrebáixa”

kmz °... -”<*kmz2* imitatuz> ba jua-nitzúan ee · Santaiñés da, · óian júuan-mobidu esínda, ta · béstiari e andría óperau e- jue-pa!: · énsayau ero séose kántatzeko, ta · éésebes! · aimbéste bidár kántau juau esé, ensáyuaa berá ok · naikúa!, néuk! kántauko júa-bákarrik!”

kmz °<pelotan, fueraka> jártze-saríe dánok jokúan, está?, · ta gáltzen dabénak, · a- “fuera”!: · arék estau jokutzen; da-álan elíminau arte dának. Ta dának elimínau-takuan, -”bueno!, bárru!”

kmz °e- errékia-alan dátor, está?, · da, · désbiau! · errékiá! ta emén gerátze-san potzúa, úra kendú ta · an péskia geratze-san: · agórra, agórra eitxen... · Áingirak etá!, púff!

kmz °gú-gastétan, dibújuan · ontxe- oontxé bestakitx eingo neukían!, · súbi sar bat eta basárrixakin da bátakin da... · sómbreauta gáñera!

raz °abér!, améndik ee · béste amabost urté barrú s- ein dabén béste kámbixo eitxen badau, pentzáisu sélan kámbixauko dauán- sélan kámbixauko dan... · Lén ee, · lén e nóbixuakin daa-árrimauta oinngó morúan-dá?: eske · atzamárrakin markáu!, · olakó gausá bat eíñ eskéro?!: eon san bat! –*kmz3* °... amasortzi-ogeiraa urtea-arrimau giñanian e, · geure gurasuen etxietara orraxe-Errebal kaléa ...

raz °-”estáu esistitzen infarnúa!”, -”ba ník [sic] asté bete lorík eim-barik eonitzan!, e?, gurí arék abadiak · suré-edadíán · infarnúa sélan e pintáu eskún!...”

raz °”irénduu” péntza-en [sic] dó-sála · kápau ... sékula estot ikusi baña péntza-en [sic] dot oríxe dalá: txarrí eemiári séose kendú, e matrisékoo séoser kendú o sán · “iréndu”

kgg °kónsentrauta génden itxúria!

raz1 °... gausá bat, gausa bat e, paper [sic] bá-láгатzem-bot · geró neuk esin topau! · da neu-jakím-ba nun laga dotem-bá · da, errekestau mesillia ta-”amen estao-pá!” ... juan armárixora t’ántxe!, ónetxe-moruam-bistá-bistán

raz1 i e- a- arrimau ais txakúrrganá?

raz1 °...géu-pe fálua dakau!: esin kára [sic] ikúsi, bátak amar milla pésta irabástem-baittú, · béstia e amábi es- aixé amábii-kua ero-ogeikua! axé-esin dou ikúsi!: esin dou trágau! · Baña, aberátza-dana-bat! ... géixenak, e?!

raz1 °... da e, aistia e kónserbau esínda úmiak...

- raz1* goikó bidía sérrau ein jáko
raz1 <"zoroa dagoena"> piská-fállau itxen dau
raz1 asko mejorau da ("gizendu")
raz1 istarrixan ero tragau [sic] jata okelía //rmz °[enkortxadora] ibillixan-ibillixakin, puntakua lijertu biarrian trabau im-bier ete da ba?
raz1 °bixa-ba-dia, e?, "porau" ta e... <"iñausi"> ... <sagar arbolak ere> ebagi satixa eta... kendu ta..., baai... //raz1 gastaña-pódau bitxú
rmz5 °sokiakin itxen do-ba bata kargáu ero nárdaxa lotze-akona bustarrixai, · gero soká ba-kendú eroo ipiñi ero itxeko: · idi bata obeto badabil baa béstia kargáu eroo... · ori-itxeko sokia in itxen dok!
rmz6 "... Akarregik be estu hartzen ninduan. Sakau egitten eban asko eta pelotazuak asko eta ..." ("sacar", pelotan, sakean, eta ez "sakatu = empujar")
rmz6 "... Baiña gaur ipintzen daben moduan trapua eskuetan, ezin leike pelotariak gozau pelotarik ..."
kmz7 "... Eta eurentzako errezagua zan Eibarko euskeran erderazko <<hitzak>> sartu. Hórrek izan ziran, lehelengo Eibarko euskeria kastellanizau ebenak ..."
kaz4 "... bata arreglau ta bestia arreglau ta ... Bata igual atzerau da ..." (hilero-koa etorri, "regla"-tu)
kmz3 °.. ajustajietan áste-aisenian sértzem-ba · émon itxen deuk árek e... · uésabak biarra... · báskulia ta sea ta, ásentau ...
kmz3 °... an ee... · eon súan ee... · époka bat ee... · gerri eon sana... · bertakua-súblebau ta jo-ta di-dá! ta... · buá!... · baai...
kaz3 °... ikusi genduan fúmatzen erreña-fúmáu itxen dabela ... erregia-fumáu?!!, péntzaisuu!
kaz2 °... dómekia · dóblia! · pagau sestán ... neu-pe i-neban dóblia, ee?, bañá, berá-pe · dóblia pau sestán
kaz2 °... kuadrília!: áre-pe afaltzen euasen Txómiñenian. Da-árek euasen filarmónikiakiñ... · da geroo, ármáu gendúam-báile bat!... · pú!... · de áupa Lerándio!
rmz2 °... d'Elórretako idíxak! · suertía éuki júen! lélengo "áida!" diarrían, iru mílla kíloko · arríxa sóltáu · árran, da ixá ultze-érdi éiñ!, · da geró aretxen bentajía eiñ, géixao sóltáu ésiñ!, baña-áre-pe ausíxan!, ausíxan!, tápau!, daa, páre bá-miñuttu sobráu!
rmz2 °... Mallábiko bátek esáte-ústan gáñera, -"ño!, Siriako!, etxaia [sic] probak gástáu bier estáben!, se daná ule suríxa ta kálbua ikúste-júat probá-<<tokíetan>>" ("desagertu")
naz a surekin gustau da, e? ("maitemindu")
naz °bueno!, "enámorau"... ba, etákitx... "surékin gustáuta dao, surékin gustáuta dao", bai...
naz ori dendioi, kales kam- múdau in dda
naz °buf! au samiau barris txarrixau!, buf! estaa... · esin dobláu! au · kokotál-diau...!, ser d'áu!...
naz °<barre algaraka> bueno! len abade bat e, andrasko bati lastan itten (?),ingo-bálesta, akabo! destérrauko ben e, serera oin, kárselara be!, égixa, e?: ori égixa, e?, buenó!
raz °báki!-báki!-goitxibéra-ser dián, eskúak ólan mánejau e sérekin da, ee egurrekin ólan!...: baáki-ní-goitxibéria ser dan. · Lésetakoo a- léngusuak-eta, Pépek-eta be-eukítze-ben óri! -kmz3 °... "medidas juanson" sitxuan · bóla-pe bai: asi kompañiño bateako e, amar millímetrokoa, amabikua, amalaukoa, oeikua, ótamarrekua... · dana sentésimaa · indda, esta?: aek- áetxetati-mánejuau isate-ua-nik gausa · biribil bat! · dakana ("erabili")
/naz or dabil txakurra · mánejau esindda ("dominar")
/raz1 karteria ... mánejautzue?: "manejau" bai, oixe bai "manejau"! bai! · poltzíllora!
naz askenian e saátara úsau in gara ("ohitu")
/naz orii oittúrioi emem-beti ee usau isen da

/rmz °ee... semat baa... usau gitxiao ta e obéto!, e... -kmz irú mendikó e egúrra
· úsau dou

Bitxia da, ez delako normalean erabiltzen, baina egitekotan “buscar” euskara moldatuta “buskau” izango litzakeela adibide bat:

rmz °geuré moruan!: <ordenagailuko tekladoaren onomatopeia> táka-táka-táka-táka-táka!... o... orr- ori númeroi txá <pantailako emaitza> glá!, -”bai!, auxé da bá”: · euk ee sándakuaa esáto espadao ee... · séose fállua! erroría númeroan ero séose!, buskau- billau im-biar!

Beste aditz batzuen forma erabat jatorrituta dago eta euskarazko itxura osoa dute morfologiaz gain fonetikoki ere moldatu egin delako, jatorria asmatzea erraza izan arren. Multzon honetan koka daitezke besteak beste: “kanbixau /ganbixau”, “cambiar”-etik; “saniau”, “osatu”-ren pareko; “aberixau”, “averiar”-etik; “kantzau”, “cansar”-etik; “sustau”, “asustar”-en pareko; “abixau”, “avisar”-etik; “errementau /errebentau”, “reventar”-etik, “erresau”, “rezar”-etik; “leau /alleau”, “llegar”-etik; “soseau /sosegau”, “sosegar”-etik, “pentzau” “pensar”-etik (kom. “pentsatu”); “estudixau”, “estudiar”-etik; “rejistau”, “registrar”-etik; “fastidixau”, “fastidiar”-etik; “erretirau”, “retirar”-etik; “mariau”, “marear”-etik; “pintxau /pinttau /pintau”, “pintar”-etik; “erregalau”, “regalar”-etik; “erreparau”, “reparar”-etik, “notar, fijarse”, “konturatu” esanguraz; “errespetau”, “respetar”-etik; “estreñau”, “estrenar”-etik; “errekistau”, “registrar”-etik; “pasiau”, “pasar”-etik; “arraskau”, “rascar”-etik; “kopixau”, “copiar”-etik; “domiñau”, “dominar”-etik; “fixau”, “fiar”-etik; “estropesau”, “tropezar”-etik; “pixau”, “pesar”-etik; “fusillau”, “fusilar”-etik; “meriendau /meriandau /merixendau”, “merendar”-etik; “makiñau” (“máquina” izenetik sortuta ziurrenik); “afuntau”, “apuntar”-etik; “paau /pau”, “pagar”-etik; “aumentau /aguntau”, “aguantar”-etik; “arruiñau”, “arruinar”-etik; “aprobau”, “probar”-etik; “desafixau”, “desafiar”-etik; “afetau”, “afectar”-etik; “deskantzau”, “descansar”-etik; “bisitxau /bisittau /bixitxau”, “visitar”-etik; “esfortzau”, “esforzar”-etik; “arrelau”, “arreglar”-etik; “gomitxau”, “vomitar”-etik; “kastau”, “gastar”-etik, naz-ren ahotan. “Topau”, “aurkitu” esanguraz, agian “topar”-etik etor daitezke; dena dela, Eibarren “billau”-ren parekoa edo antzerakoa da. “Gobernau” “gobernar”-etik etorriko da, baina gaur egun baserrietan oso esangura zehatza dauka: animaliak zaintzea, jaten eta edaten ematea, lo egiteko lekua garbitzea eta horrelako zereginak hain zuzen. “Apartau” aditzak ere adiera nagusi bi ditu: batetik, “apartar”, “kendu” esangurakoa; eta bestetik, aukeratzea; “separar, divorciar” esateko ere erabiltzen da. “Akabau /akaau” aditzak ere hainbat esangura ditu: “acabar” edo “amaitu”-z gainera, hiltzea ere esan gura du (batez ere baserrietan erabiltzen da, animalientzat), eta armagintza alorrean, azken ikutuak egitea. “Tapau” ere hizkera arruntean “tapar” gisa erabiltzen da; baina herri-kirol gaietan ontzea esan gura du, aurrekoen markak hobetzea. “Prestau”-k “prestar” barik, “preparar” esangura dauka. “Txokau”-k ere ez dauka “chocar” talka esangura, “extranar” baino. Horietatik, zenbait adibide:

naz eridatxua saniau jata, eskuko eridatxua...

rae °... gero artua suritxú!; etaa... léku askotan Errosárixu erresau!, arto-surizem-batera!: baai!, Errosáixu erresau!

raz1 berandu leau dia

rmz °sarrák ee oi- oi esauskuan guri or e, · oñ úrrengo e, · afaríxa e, Askúena ja-genduanian: -"derríor bittuela idixa-derríor bittuela!, neu-go- gobernau ta neu-sain-ddu bikoittuat! berrís!" // *rmz* °Potolúan ee áitxa!: idi-sále aundixa súan, dióss!, ganau-gobernatzallia-á!, arek... ganaua-gobernau?!..., da Floren sána!, Aitórrren áitxíxa! beste bat!: bí! ... báta ee góbernau ta béstia-be góbernau taa o- orrtxe betí!... · Florenn saná · da-au!

/naz a umie ondoo · gobernaut'euen, e? ("alimentar")

raz1 ya tápau in dau beitzat [sic], irabasi-in dau

nme2 °baa..., · bueno!: · eeta órrek esáera-dia, · eta "itxosúa soso- susénu <<sabánaak>>, -e?- itxosúa soséau <<sabának>>, soseauk'au í be!"

f.a. se apartau dosue? ("aukeratu, hautatu") -*kmz3* °... ápartau suan a góitxi-bera eo ara gora ero... numbaitxea ta ... ("alde egin")

/rae °geroo, artuak amaitze-sienian, gero bábak!, e-eee jo!, babá · ásko-ote-san dá!: árek ee ápartau! (onak eta txarrak bereiztu)

kmz óndiok etxuau péntzau · sé-eiñ

kmz1 °... óne-ya nausíxak, ogei urtékuak ero amasórtzi ero · emerézi urtékuak, órrek e... órrei sé importaetzé ba?: Eskola-Armerixa-ákabauta es ákabauta sé importautze ba órrei, morduári? ("amaitu, gáinditu") -*kaz2* °... klaroo!: neu · sakrifíkau nítzan! · dómeka baten juanda... · Akabau genduam-pístoliori · da...

/raz1 txakúr-ra-akabau biou, gjsáájua! ("hil") -*nme2* ["katua ill ein da" zuzenean gal-detutakoa] ess!: ganaua, · "akabau" esaten da, ta persónia "ill"... Da erlíá bé, · erlíá!, "ill" esaten da: "una kolmena · se a muerto": "ill ein dá", erlíá ill... erlíá da-animalixa bákarra, "ill" esaten dana, béste ganau danai, éuskeras "akabau" esate-ako

kmz3 °... etorri biosu! · geure sárdandeixa ikustea... · eum-baten" da, bueno! e ólaxem-péntzau enduan

kmz °ééss!, gastíak es!; sárra-pés: sárrak errétirauta dáre txikitéotik!

kmz °aa!, itxáíñ! · gáusak e préstau eim-biar día

raz1 °... uésaba!/? esin dábe ikusi a- e, auméntuakim-be-dá! ... ombre! antxiña ee estáki-ní-ser!/: ordúan erréspetau! O- oin!/: ésta-auméntuakim-bé, uésaba esin dabe ikúsi!

raz1 -°sélan da "júbilau"? ... "errétirau" iséngo dá!

raz1 orrekiñ es fixau ori pixka-peligrosua da ta

rmz7 °gámbixau eitten da ba!: aurten amen artua badao datorren urtian garixa

kmz7 °ees, foballa ikusi txa gero meriandau!

kae1 °beti · txokau jata! · sékula! ortográfíxa fálda-pes! ni *be* ni *ube* ni... sékula bes -*kaz3* °... gure ume démporan da erreíña etorri · Eskol'armeriaa... · bisítatzea ta · fúmatzen!/: · txokau jakum-barbáridaria...

kaz2 °... ápuntu giñén, · da ··· Úsartam-baskarixa! // *kaz2* °lélengo andrakumia uste dot salá · Klu-deportibuan e · áfuntuau sana!

raz5 °... -"ni serúra, an, neska-sárrekin dda, (?)... ni an eoteko enok, ni, ni orretarako enok -solia decir, Basílio solia decir...- ni neure aitan ondóra!: ni ólan daa... neska-sárrekiñ "amen-amen" Arráten ikusteitxuan moruan-neská-sarrak eta óóón-oo... ni olákuekiñ auénntau esindda!: ni ántxe!, adári-topekia, jokúan da burrúkia ta béstia ta jaléua ta...", berán aitan ondóra nai éban!

raz5 °-"eniíí!, gure alabiakiñ!/: gurian estao eser geró, ee?/: · pentzáisu, esnia paau esindda gabis da nauku esnee e- artu esindda, ogíxa be jan esindda!"

naz °a! badóyas kastauas!/, bueno!, bueno... ála ba...

Batzuetan, idatziz erdarakada handia diruditen formak ahoskatzerakoan azentuak gutziz euskaratzen ditu forma mordoa. Adibiderako:

raz1 [piezak] tallarriam-be ... kolókau ... dotore! alkarren gáñian ero... o- orde-órdenau!

Jada aurkeztutako hainbat aditz erabilera oso errotuta daude, eta esangura tinkoak dituzte; batez ere, lanen baterako esangura fosilduz geratu bada. Adibiderako, “labrau” (lurra landu), “perrau”, “sangrau” (azken hau, “desangrar” esanguraz erabiltzen da, animaliarenekin bat jateko labainaz hildakoan) eta abar. “Parau” ere ehiza munduan lexikalizatuta dagoen forma da, txakurra txoriaren edo dena delakoaren usainean gelditzea:

rmz °[probetarako] da perrauta ibiltxem-basará e, [ferra bera] serto itxen da!,
gastáu eróó áá e, barri-ttásuna juen!, ibiltxem-báda!: sémat e nekésao-obé!: perráu
e, iru bat egun áurretik eó

kmz3 °... esta?, txakurra parau ta brá! bertá urtetzen dabena...

Beste zenbaitetan jatorriko hizkuntzako esangura ere aldatuta dago, ikusi denez, eta euskaraz beste esanahi batekin erabiltzen da. Horrenbestez, “endredau /endreau /enredau /enreau”, “enredar”-etik etorriko da, baina era askotako nahasteak aitzen ematen ditu, hasi umeen okerkeriak, burua galtzea eta abar. Adibiderako:

raz1 °... ni-itxasuan eseaitti-b’enitzake sartúko. Beláune-tatik áurrera esta ese-aitxi-pe, endredauko nitzateke: es, ni kobárdia ...

raz1 °... ásko sártu da, enéé!, neu be bai tx’á be bai. Bueno! a- péntzau bés órre-bestela-akábo!: <”zoratu”> endre- enrréau! biar baño len...

Gertakari bitxia da gaztelaniatik sartutako izenei “-u” atzizki eratorlea ezarzteza, gaztelaniaz horrelako partizipiorik ez dagoela ere euskaraz arrunki sortzen direlako. Esate baterako, “eskobau” oso arrunta da Eibarren, baina gaztelaniaz ez da “escobar” arrunki esaten, euskarakadaz baino; horrelakoa da “bueltau” ere, ez dugulako “vueltar” lako aditzik ezagutzen gaztelaniaz. “Volver” esanguraz erabiltzen da; baina baserrietan, animalia emeak altan edo umeske egon ostean ez badira geratzen, “bueltau” egin direla esaten da, batez ere behiak, gai hori oso ondo zainduta egoten delako. Buelta emateari ere esaten zaio. Horrelakoa da “erderisau” aditza ere: “erdera” izena bera euskarazkoa da, eta “kastellanisau”-ren analogiaz sortuko zen aditza seguruenak. Arestian aurkeztutako andrazkoen “arreglau” ere bide horretatik azal daiteke, baita “makiñau” (“máquina”-tik; tailer giroan makinan pasatu, eta baserrietan, lurra makinarekin landu), “arenau” (“arena” izena adiztuta, harea ematea lurrean), “brotxiu” (“brocha” izenetik sortutakoa, brotxa edo zepilloa pasatzea), “airau” (“aire”-tik, altxatu), “trukau” (“trueque”-tik, ziurrenik) eta abar. Adibiderako:

kgg bérris bueltau bia-garála esa-eskúe

rae °a!, símaurra bueltau! (“buelta eman”)

kmz7 “Kanpoko jentiak erderizau eban [Eibarko euskara] ...”

kaz4 “... bata arreglau ta bestia arreglau ta ... Bata igual atzerau da ...” (hilero-koa etorri, “regla”-tu)

kmz3 °... da · kañoyan · presiua · esatetzeu “onembeste dok -esta?- · órtik aurrerakua im-biosue suek · báskulia orrí txa mákiñau ta dána!” dana!

kaz2 °... nik itxe-neban etxién ... árenau! · ur- belauniko járritxa... · árenau! ... aistíak, · brótxiau: lústria emondaa... · brótxiau! ... nik, bai, nik · sukaldi arenau da eskillári arenau; da errékauak!

rmg °tallatua airau ban (“levantar, volar”)

naz óllaskua, konejuagaitti-trukau, ori!

1.2.1.5.7. Alternantziak partizipioen atzizki amaieran

Aldaera multzoak egiten dira amaiera bat baino gehiagoko formekin. Esate baterako, honelakoak dira: “brintzau /bringau //brintzatu”. Lekukoen ahotik jasotako zenbait errealizazio:

nme2 ba “brintzau” ero “brintzatu”, bai!
f.a. [eskumuturra] brintzátu ein játa
naz makillia ... bringau in dda
naz makillia brintzau in dda

Beste kasu bat “bajatu //bajau” da. Alternantzia gizartekoa ez ezik, idiolektala ere bada. Adibidez, aldaera biak darabiltzate *kmz*, *f.a.* eta *naz* lekukoek, itxurazko banaketa logikorik barik; esate baterako:

kmz an bájaútxuk //kmz gu lénao bajatu gaitxuk
f.a. °a, kalera bajatu sien? //f.a. kaléraño bajau san
naz ara bajau- · juen dia -ero- bajatu dia

Bestalde, gu konturatu garenez, beste lekuko gehienek “bajatu” darabilte, hala nola *raz*-k, *raz1*-ek, *raz5*-ek, *raz6*-k, *rmz*-k, *ñaz2*-k, *ñaz5*-ek, *ñmz*-k, *nme2*-k, *kmz5*-ek eta *kmz7*-k adibidez. Beste batzuei “bajau” jaso diegu, esate baterako *kgg*-ri, *rmz2*-ri eta *kaz3*-ri. Guk jasotako datuen arabera, beraz, “bajatu” da sarriago erabiltzen den forma, baina zaharren ahotan biak ere bizirik daudela azpimarratzekoa da. Adibide batzuk:

ñmz °er-skérretara: Únsagara goyasela bajatu, bajatu! elixára! parrókixara bajátu, parrókixara, da geró, eskerréra, Kalbetóyan, Kátilluneko tabernia-antxe san!
-*kmz7* °... sé-esana ipiniko ete-eben eró, sea ta, · ba, · tenientetikan-nere burua kábora bajatu nebán! <barrez>
kaz3 °... ni bájau nitzanian kalera jua-nitzan aistia bisitxatzera

Multzo honetan kokatzen da “umau /umou //umatu /*umotu” aditza. Dena dela, “-u” atzizkiz sortutako forma da Eibarren erabiltzekotan gehien erabiltzen dena (“umau /umou”). Izan ere, “baserrietako aditza” da batez ere, kaletar batzuek ere ezagutzen duten arren (ez hala *kmz*-k eta *kgg*-k, azken honen esanetan, “sé dan bés estákitx”). Aditzaren esangura, ondo dakiten lekuko batzuen definizioz:

raz1 °baai, ori e estakisu ser dan?: gámbaran ipini e será, · garixa bakisu ser dan, a lotutakuak-etá, aretxek! aretxe-soltau ta ipiñi gámbaram-ba sabal-sabal e sérak, · e lastúak, d’aretxen gáñian dának ipini sagárrak... .. usáim-bat!...
S.B. °sagárrak “gánbaran, <<belarretan>>, an <<belar>> gosotan ipintzen dianian, a selako usaña egoten dan an, umotzen”, asala simeltzen

Arrate inguruko lekuko horrek bakarrik onartzen du “umatu” forma ere, baina ez ostera “umotu”, eta “umou” ere ez darabil. Beraz, aldaeren artean “umau” darabilte eibartar gehienek, eta “umou” batez ere Aginagakoek eta jatorri bizkaitarra daukatenek (S.B., kasurako), baina Aginagan ere “umau” forma darabil hangoa den *naz* lekukoak. Adibide bat ipintze aldera:

Areta Azpuri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

naz sagarra-ga- gambaran úmauta daos, °bai-bai... gosuek...

Alternantzia dago “pillatu /pillau” aditzaren kasuan ere; “-tu”-dun aldaera *nme2*-ri jaso diogu, eta “-u” hutsezkoa, *rae*-ri, biak Aginagan jaiok eta biak base-rritarrak, baina lehena gizonezkoa eta bigarrena andrazkoa; adinez ere berdintsuak dira lekuko biak, eta auzo-auzokoak gainera, “ausokourrenak”, eurek diotenez.

Lekuko zahar batzuen ahotan arrunki Eibarren entzuten ez diren formak jaso ditugu, baina ez dakigu zein izan daitekeen azalpena; izan ere, *raz4*-k Euskal Herritik kanpo urte askoan dago eta agian formak desitxuratuta gogoratzen ditu. Honakoak jaso ditugu, denak ere maileguak: “arrimatu”, “arrimau” arruntaren lekuan; “sustatu”, “sustau”-renean; “alegratu”, “alegrau”-renean. Gazteen ahotan ere jaso ditugu horrelakoak: “asmatu”, “asmau”-ren lekuan.

Alternantziak ez eze, atzizki metaketak ere jaso ditugu, neuri behintzat berez forma bitxiak begitandu arren. Esate baterako, *naz*-ren ahotan “doblautu” jaso dugu, normala “doblau” denean:

naz oingo astian, · eulixak, doblautu [sic] in dda

Beste alde batetik begiratuta, esangura berbereko aditz itxuraz nahikoa ezberdinak sortzen dira maileguaren jatorria zein den: izen edo beste kategoriako unitate batetik aditza sortu, ala zuzenean aditza euskarara moldatu. Kasu honetan daude gure iritziz “jabondu”, “jabón” izenetik abiatuta; eta “jabonau”, “jabonar” aditzetik abiatuta.

1.2.1.5.8. Atzizki metaketak partizipioen atzizki amaieran: -stau

Atal honetan ez dago adibide askorik, baina daudenak oso jatorrak dira leku-koen ahotan. Talde honetan dago, besteak beste, “barristau” aditza. “Jatorri” garbia duenez, azterketa ere hala egin daiteke; hau da, “barri” izenondoari “-s” instrumental atzizkia gehitu ondoren, partizipioa sortzeko atzizkia gehitzen zaio. Baina hemen dago ezaugarri bitxiena: zergatik “-tau” forma “-tu” hutsaren orde? Nik neuk ez daukat azalpen erabatekorik, baina agian noizbaiteko deklinabideko “-ta-” morfema mugagabetik etor daiteke; balizko formak aurkeztuz: “*barri-s-ta-(d)u > barristau”. Egia ere bada hain zuzen aditz hau osatzeko alternantzia dagoela atzizki horri dagokionez. Lekuko guztiek, *kgg*-k izan ezik, darabilte “barristau” aldaera, baina “barristu” ere orokorra da Eibarren, tarteko -a- “misteriotsu” hori bakoa, esangura berberekoa baina. Deklinabideko instrumental kasu marka bako forma ere erabiltzen da, arrunki gainera, “barritxu /barrittu” hain zuzen ere (*kmz*-k, adibidez, ez du forma hori onartzen, baina ezaugarri idiolektala dela deritzogu). Aditz honen aldaeren zenbait adibide:

kgg °gáñera, básarrixekin ibili giñanian, eta, básarri gustietan ibili giñanian Ane Sarasketa ta bíxok, <<galdéretako>> bat: pasau sesküen e <<galdetégi>> bat, es?, <<udalétxian>>, eta bateta- [sic] e <<galdéretako>> bat san ia ee nois barristu dan ero-olákorem-bat. ·· Eta óri, kónturau giñan bai guk eta baii jendiak bátzuk esáte-sébela “barritxu” ta beste batzu-”barristu” ... [“barristau”] entzungo néban, baña

óri!, sartúko neban “barristu”-n táldian. Eskes genkiún sélan- sélan <<idatz>> géro, es?: <<idásteko>>-ordúan, es genkiún “barristu” ero “barritxu” ipini ero... .. Estakitx askenían sé- sé-erabaki giñúan... -*nme2* kuarto dána-barristaittu
kmz barristu ein júe-párkia
raz1 pixka-ba- ba- serty im-biou, barrittu im-biou etxia, barritxu

Nolanahi dela ere, sail honetan aditz gehiago ere kokatzen dira, eta azalpen morfologikoaren azalpena indartzeko osagaien jatorria ez da “barristau”-ko bes-teko gardena, baina bide beretsutik sortutakoak dirudite. Esate baterako, hemen leudeke “miestau /miastau” (kom. “mihiztatu”?; “lamer”. Bigarren aldaera *kgg* lekuko gazteari jaso diogu bakarrik eta idiolektala izan daiteke), “irulistau” (“poner del revés”), “begistau /beistau” (“ver, echar el ojo”) eta “siestau” (kom. “zehaztatu”?; zerbait guztiz amaitu, arrunki jatekoa, baina baita bizitza ere, “liquidar”) aditzak. Banan-banan gehixeago arakaturaz gero, ikusiko dugu “miestau”-k ere baduela -a- bako aldaera lagun: “miestu /miastu” hain zuzen ere (baina esanguraz, homofonismoz, kom. “mehaztu”-rengandik oso ezberdina, noski); baina ez hala “*irulistu” edo “*be(g)istu”. Beste morfemari dagokionez, ordea, instrumental marka kenduz gero sortuko lirakeen “*mietau /*mietu”, “*irulitau /*irulitxu” ez da erabiltzen, baina bai ostera, “beitxu /beittu” (“be(g)iratu”-ren parekoa).

Beste alderdi batetik aztertuz gero, hau da, aditzoinaren jatorriko kategoriari, forma besteko kasuistika zabala dago. Izan ere, “barri” izenondoa da lehenengoaren oinarri, “mie(s)”-ren jatorria zein den esaten ni neu ez naiz ausartzen, izan ere, euskara normalizatuko “mihi”-tik etorritakoa izateko bilakaera fonetiko araroa du, are gehiago Eibarren “min /miñ” esaten dela kontuan hartuta; “iruli”, bera da aditz partizipio soila, beraz, “irulistau” forma kasik erredundantea dela ere esan daiteke, ez bada izentzat hartzen behintzat⁴¹; eta “be(g)i” izena da zalantzarik barik. “Sies-” “zehatz”-en errealizazioa balitz, adberbioa legoke jatorrian. Denetik dago, bada, horrelako aditzen oinarrian.

Eibarren ez da euskara estandarerako hiztegieta dauden honelako beste aditz erabiltzen. Esate baterako, Elhuyarko Hiztegian (1996) “-ztatu” amaierako 179 partizipio daude, eta horietatik “begizta(tu)” eta “mihizta(tu)”-ren parekoak jaso ditugu Eibarko hizkeran. Elhuyarko Hiztegi horretan, gainera, aditzoinen jatorriko kategoria kasu gehien-gehienetan izena da.

Talde honetatik kanpo daude, noski, gaztelaniatik maileguz hartutako hainbat eta hainbat aditz: “gastau, gustau, prestau” eta abar luzea.

Ez dakigu ziur “na(a)stau” (kom. “nahastatu”) ere multzo honetan sartzekoa den, “-ta-” artizkiak hori iradokitzen badu ere, aurreko kontsonante frikaria kasu honetan etimologikoa da, eta ez instrumental kasu markaren arrastoa (baliteke biak berdinduta bakarrean geratu izatea). Gainera, aditz horrek guztiz parekoa den “nastu” ere badauka Eibarren, azken forma hau lekuko guztiek ez badarabil-

41. MUGICA-k honela dakar (1981, 1032; I. alea): “**IRULEZTAU** B = poner al revés, invertir, volcar, trastornar” eta “**IRULI** 1. BG volcar, voltear, derribar, invertir, alterar, trastornar. 2. B batir, remover, agitar, revolver. 3. B reverso, revés, envés, dorso, parte posterior, verso (...)”.

te ere (arrunki darabilen bakarretakoa Aginagako *naz* da, besteek “na(a)stau” darabilte arrunki). Ez dago garbi, gainera, aditzoinaren oinarrian zein osagai dagoen: “na(a)si” ez da Eibarren erabiltzen, eta bai ordea “naste”⁴². Adibiderako:

kmz1 °... len pásatze-sána, lén éuskera-éuskera-éuskeras mas- errémintxei deitzézén. Geró etorri san ori báta kastilláno ta béstiak e fransés da béstiak inglés da gero ákabo!, nas- nástau!

raz1 °... Eibárren erdi euskera-erdi eusk- dána ikesi dou oixe, dána! · dána! Gero e, gerra ostiam-be ba dána! dana naástau! dána naástau!...

naz emen, dána-nastu dia

Dena dela, Eibarren erabiltzen den “isentau” aditzak ere (kom. “izendatu”) antz morfo-fonetiko handia dauka, eta baliteke tarteko “-ta-” artizki hori denetan bat izatea, analogiaz baino ez bada ere gutxienez. Hemen koka daiteke agian “gombitxau /gomitxau /gombidau” ere (kom. “gonbidatu”), “-txa-” afrikaridun aldaera Eibarren normala delako bokal sabaikariaren ostean. Gainera, bitxia da euskara normalizatuan aditz bi horiek “-da-” artizki edo dena delakoa izatea, leherkari ahostunduna, eta ez ahoskabeduna.

Oraintsuan aurkeztutako beste aditz horien adibide batzuk:

kmz míestau eiéss- eiéstak txakurrak –*nme2* txakurrak arpeixa miestauste –*naz* txakurrak arpeixa miestausta –*kgg* arpeíxa miéstau-ésta

f.a. °au irulistausta esegí biosu, es? //*f.a.* °erderas “al rebés” da euskeras “irulistausta”, alan erakutziskuen guri...

rmz °beistau, e? (“mirar, vigilar”)

rae °jo-ta dana siestau dau!, garbi! (dena jan duela, alegia)

1.2.2. Kontsonantez bukatutakoak

1.2.2.1. -n kontsonante sudurkari amaieradunak

Multzo honetan ez daude aditz anitz, euskaraz orokorrean ere ez daudelako. Hemen guk jasotakoak: “isan /isen” (kom. “izan”), “egon /eon /on”, “juan /juen /jun /fan” (kom. “joan”), “etzin /etzan /etzun” (kom. “etzan”), “jan”, “emon”, “esan /isan”, “eran /ean” (kom. “edan”), “entzun”, “eruan /eruen /iruan /iruen /erun /irun” (kom. “eroan”, “eraman”), “jakin /jakiñ”, “eiñ /iñ”, “loiñ”, “irakin /irak (e)iñ”, “urten”, “iraun”, “ekin”, “itxain /etxain /itxoin” (kom. “itxaron”), “eten”, “era(i)ñ” (1.-kom. “eragin”; 2.-kom. “erein”, homofonismoz), “jardun”, “igon /iyon /ion” (kom. “igo”). Horietariko zenbaitek aldaera mordoia dauka, ikusi denez, eta esanguraz ere aberatsak dira batzuk. Zenbait adibide:

naz ni jue-nom-bisitxátzera bañá, es aix egón –*naz1* °es-es, or básarririk sékula esan eon, e?: ba, óñ!... –*kmz3* °... serían! · Meríllan da or e Áfríkán · gerría on suan daa ...

42. Zenbait adibidetan: *nme2* “dána náste dao”, “nástian dao”. “Naste-borraste” eta “kakanaste” izenek ere horixe erakusten dute.

kmz bédartzan · etzin gaitxuk
kmz3 °... sárdaua naiiku eran da, · geuk e, éan! · amengo · euskaldunok e ...
kmz1 °... báí, gaur baa, ... sélan sortziretan ará jua bia-naixen ba, esán dó-pa gaur e · buélta bat eiñ onús-daa... (“pentsatu”)
nme2 °amáika urtekua-bíkixa-bí! · esan dau · daosela; etaa... -ba, periodikuan leidu o-nik!- · taa... · será! · -es! periodikuan es!, góóixían esán dau! telévisiñuak- · daa... · beátzi urtérik amábost e urtéra bittartekuek, tai-séma-míllla daosela, gerrillé-ruak!
nme2 °bueno! · “aittu” · da “entender”, · d”entzún” da “oír”
kmz °pégauta ero, jákiñ es · nun sartú -*kmz3* °ollaórretan · txakúrta biaok, txaku-rra! · txakurra oná! geo tiátu be jákiñ im-biok, e?
kmz °baai!, issardí baten geosen dá!, aítz- aítzá ta bíxok!: -”an iñób’estao” ta, nárrustú!, · da dzúmbaa!, uretára!: · bai u- bixkór urtén bé!, jóólín!
kmz1 °báa-alakótze gausá bat <eskuarekin egiten du keinua, ogi zati txiki bat adieraziz> óixe-etarutzen dabe serían, tabernán da! Ekíñ orduráko-ogíxa- ogí baríbetí... da oiñ ogíxa e · orí fáfuóri!...
kmz °aa!, itxiáñ! · gáusak e préstau eim-biar día -*nme2* éurek etxain dabe -*kmz5* “... ikuste genduzen txorixak batera ta bestera, da ‘pi-pi-pi-pi’. Itxoin abixeri...”
kgg “ausitxa”? : °séose, bai, noixiam-bein bai: makíyia, adarrak eta... bai ... geixa-óri, egurra taa, mákiyak eta-adarrak etá, baña, baña estotela larrei erabiltzen, géixem-bat “apurtu”. “Eten”... soká bat ero, bai
rmz °idixekin, aurrekuan itxulixan im-bie-dau, atzekuak eraiñ (“eragin”)
nme2 “eraiñ” · bai!, eske atía “eréi” · iseten da · sabáldu “eréi”!; eta “eraiñ”, “forzar”, bai!
rmz °eskondu aurretik... · oñ oétamabos bat urté-eró, orduan laako akuan gari-eraitxiai! · ero geixao!, berroei be ígual! · askénengo garixa erain sala... // *rmz* °órtxe! Sanándres ingurúan! garíxak eráñ!, daa... -*rae* °lélengo patatia sartú! Geró udebarri-xam-pa- e, garíxe · jorratu!; · geró, errómalatxa eráñ!... (“erein”)
nme2 are-jardun da jardun da eséb’estakii ostéra! (“berba egin”)

Arestian aurkeztutako zenbaiten iruzkina egingo dugu jarraian. Anitza da, kasurako, euskara normalizatuko “izan”, Eibarren “isan /isen” aldaerez egiten den aditza. Bokalen “-a /-e-” alternantziari dagokionez, badirudi “isan” aldaera batez ere kaletarrena dela, gizon eta andrazko, zahar eta gazte, eta kale ondoko baserritarrena, hau da, Otaola aldekoena. Arrate eta Aginaga aldekoek ia erabat “isen” aldaera darabilte. Hala ere, badira “salbuespenak”, edo bietarik egiten dutenak: *ñaz1*-ek, adibidez, “isan” nahiz “isen”, biak darabiz, baita *kmz*-k ere. Zenbait adibide:

kmz °baai, baai! · éé!, órrek e ogí · tróntzuok · olakoo... · básarrikúa e · morokúa baña biribilla isan barík... -*kag* °... báí?: edo ísan da- ísan leike rantxeria be báí! -*kaz1* °es-es! á etxí ísan da! -*kaz3* °Fermin Kalbeton isan san · Minístro de Fomento! -*ñmz* °... ni e, mutikua nitzana, da, konsejála ero ayuntamentukua · isán!
raz °klároó!: Míren! “Maítère”, “Maitere” ipini etzen bertán eunían jáixo sálako, bestéla isén bie-san “Míren”! Ta géro jáixo sálako ipini etzen ba · “Maitere”, e “Maria Teresa” ipi- “Teresa” ipini étzen -*raz1* au ise-sa-nere maixua -*rmz* °táki-ni-ba!, sélan isen leikien! -*nme2* ori oitturioi amem-beti · oi- ee eru- eiñ isen da, isén isen da -*f.a.* goixian férixan isen nais
ñaz1 °árek, ikusi be-ess... · estakisú?, an e, · len ésan órta-bee pásorik, daná-aménditxik isam-bá!, bákarrí-pásua!, ta-á ikusi béss...! // *ñaz1* °es-es!, kolejixokua esta isem-básarrixa, e?

Aditz horren esangurak ere asko dira, ñabardurak ñabardura. Gaztelaniako “ser” aditzaren adiera gehienak batzeaz gain, “egon” esangura ere badauka, aditz kopulatibo bien hainbat balio batuz. Gainera, aditz nagusiaren eta laguntzailearen tarteko aditz gehigarri moduan ere erabiltzen da, aspektua-modalitatea aitzen emateko (dena dela, hori beste funtzio sintaktiko-semantiko baten eremuan sartzea da, aditz nagusi – aditz laguntzaile harremanean, eta ez da hori gure oraingo gaia). Zenbait adibide:

kaz2 °daa, neu isa-naixx ·· grabadória (aditz kopulatibo gisa)

kmz °<sei urteko bilobari> gausá bat pe- pe- préguntau etzut. ·· Gausá bá-préuntau étzut, da estestásu kóntestau: · nun isan sára? –f.a. goixian férixan isen nais (“egon” esanguraz)

nme2 ori oitturioi amem-beti ·· oi- ee eru- eiñ isen da, **isén isen** da (beltzagoz markatutako bigarren kopulak aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko harremana ezartzen du, ez da erratutako erreplikapena: balio frekuentatiboa eta lehenagokoa ematen dio esandakoari)

“Juan /juen /jun /fan” laukotean ere nolabaiteko banaketa diatopikoa ezar daiteke. Izan ere, “juan” aldaera leku guztietan arrunta da (horrela egiten du bai *kmz*-k, bai *kgg*-k, *raz*-k, *raz1*-ek); baina “juen” aldaera Arrate aldekoeki jaso diegu, *rmz*-ri, *raz1*-i baita Aginagakoei ere (*nme2*-k arrunki darabilen aldaera da, baita *naz*-k ere), besteak beste. Bokal sekuentzia duten aldaerak diptongo gisa ahoskatzen dira. Bestalde, “jun” aldaera ere baserrietan nahiz kalean entzun daiteke; “fan”, ostera, Kinarraga aldekoek darabilte bereziki, hala nola *ñaz*-k, nahiz eta Eibarko Udaleko Ego Ibarako Ahozko Ondareko transkribatzaileek *rmz6* lekukoari ere horrela entzun zioten. Dena dela, polimorfismoa idiolektala ere bada; esate baterako, kaleko *kaz2*-k “fan” izan ezik, beste hiru aldaerak darabiltza:

kaz2 °... Donostiara!: óñes *juan* · da trenian etorri

/kaz2 °... es no-*jungo* biarrera” ·· eta ·· Oláberi · enitzan atreibitzen esaten éni-tzana *juango*!

/kaz2 °... étorri don asarriao Jasintó!, esaten e · bixar *jueteko* · biarrera! (kasu honetan adibidean aditz izena dago, baina zilegi da pentsatzea partizipioan ere berdin egiten duela)

Beste alde batetik begiratuta, semantikotik hain zuzen ere, “ir” baino areagoko esangurak ditu. Hain zuzen ere, “igaro”-ren eremu semantikoa betetzen du, “hil” arteraino. Adibiderako:

kmz °[euskaraz] erakúti eséuen eiñ iñók!: i eskólara es itzan juan e i- ikastólara ta!

kmz °á!, íxkuak e... <telebistako zezenen gaineko saioa>: bai baña juan día íxkuak, il dítxúe dának! (igaro-amaitu dela, alegia)

raz °[gerra ostean] mat- matrallákua! ·· “agúr” esaetzálako; ta Maitere- “Maitere” bé, orduantxe kambixau san e “Maria Teresáa” · da · geró... .. geró juan san e, “Mirentxu” juan san. Baña-á gu txingor-gáñian da ibiltze-giñanían an serían, Urkusúkoo (?)ser orí... á betí “Mirentxu” san! (“ya pasó”)

rmz °da perrauta ibiltxem-basará e, sertu itxen da!, gastáu eróó áá e, barri-ttásuna juen!, ibiltxem-báda!: sémat e nekésao-obé!: perráu e, iru bat egun áurretik eó

raz1 °baai, bañá-bañá!, á juan san-dá!: á ta gú juan gára!, · akábo! (“pasar, quedar obsoleto”)

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

raz1 °es! juan san! ilda dao, Jangoikúa-seruan deixala... –*kaz2* °... bera-pe, iru-rogetabi urte-ekasela il san, asike béstiak · gastiauak ilgo sien... .. dána-gastéri-juan dia órrek! ... sasoi · onian · juan dias... (“hil”)

Illo horretatik, “juan dan/san astian /illian /aspaldixan /... /urtian” egitura erabiltzen da “la semana /mes ... pasada/-o” esateko, aurreko unitate tenporalaz. Esate baterako:

rmz6 “... esan zesten: “Igez, fan dan urteko moduan. Entradia fan dan urteko moduan” ...”

nme2 ain játeko-onik esto-jan · jun dan aspaldíxan

nme2 jun dan egúnetati-gaos amén

nme3 °bueno, gú · bertá Uéska [sic] ordúko, · n- Jáka-aldéra, ni-(?)iru-ordutan Jákan eote-naix, e?: nii ee, jun dan eunian Jákan ise-nitzan da ...

naz juen dam-bost urtian, ántxe biarra in ddabé

naz juen dan astekoo gábetatik, sarátak entzute-sién

naz emén juen dan egúnetati-gaos

S.B. juan san asteko pastelak obiak seosen –*kgg* juan san astéko pastélak áskos obía-séren –*kmz* juan san asteko pastélak obía-jeuásasen

Aditz horrek fonikoki “eruan /eruen /iruan /iruen /erun /irun” (kom. “eroan”, “eraman”) aditzarekin antz handia dauka. Gainera, polifonismoa aberatsagoa da goranzko eta beheranzko diptongoak sortzen direla kontuan hartzen bada. Dena dela, aldaera guztiak Eibarren bizirik dauden arren, gutxi dira aldaera guztiak darabiltzaten lekukoak; arrunki, lekukoek aldaera bi edo hiru darabiltzate, eta ez dute onartzen bestek egiten duten guztia euren idiolektorako. Arrunki, baserrietan dago aberastasun handiena. Honela diosku *kgg* gazteak:

kgg órre-gausok e básarrikúa-díra, es? · “juen” da “eruen” da... [“eruen /iruan /erun” formez dio, hain zuzen] ... ta-adítzetan be bai... ...: órre-gauso-bákarri-básarritxarrei entzu-étzet

“Etzin /etzan /etzun” aditzari dagokionez, Eibarren arruntenak lehen biak dira, baina hirugarrena, “-u-” bokal belareduna kalean izan ezik, baserri auzoetan oso bizirik dago. Izan ere, ez *kmz* ez *kgg* kaletarrek ez dute onartzen “etzun” aldaera (*kmz*-k “etzin” bakarrik onartzen du bere idiolektorako, besteak Eibarren entzun egiten direla aitortu arren), baina gure lekuko nagusi baserritar guztiek onartu eta arrunki darabilte. Beste era batera esanda, baserrietan hiru aldaerak oso bizirik daude. Adibide batzuk:

S.B. etzan ein biou danok ortxé

kmz bédartzan · etzin gaitxuk

raz1 antxé-etzum-biou, ántxe!, · dána-leku baten, ántxe

“Jan” aditzak forma aldetik ez duen aberastasuna, esangura aldetik dauka. Izan ere, funtzio fisiologikoaz gain (jatea, generikoki, eta “bazkaldu” zehazki), esangura “metaforikoagoak” ere baditu. Esate baterako, adibide batzuk:

kaz2 °... babía jate-gendúaan... · da, patatía ta babía ta... · úrdexa ta, txorísua ta, <nostalgjaz> ah...! · áre-sitxuan lapíkokak!...: gaur esin jan!

kaz2 °... da · kafíetésnia sópekiñ · frailekatillua béte jan!, afarixa-áxe

kmz10 "...esaten neban, lau bat bost bat urte egin biharko nittuala*** estranjeruan. Ixa jan egitten ninduen lagunak: "Zelan! Pesimista! Hi derrotista bat haiz!". Eta: "Nik pentsatzen juat horrenbeste urte egingo dittugula hamen, estranjeruan". Eta, 30. 30 urte egin nittuan Franzian" (zentzu figuratiboa du, gaztelerazko egituraren parekoa)

kmz °bai!, na- naikúa jo!: · bateri esaetzen- esaetzen e · -"jóé!, súa-(?)... Álfa gustía jan- jan dosúa tá!", -"etxúau jan, súrrut ein juau guk!" // *kmz* °... píso askoon e, uésaba san, · da · -"éne!, Kaporála!: baña-aimbéste · diru ékassen!, dirú ta písua-sé-ekasen, da..., · séietze-ján!: sélan jan leikias bá!", -<Kaporala imitatuz, zahar eta mozkor ahotsarekin> "nik etixúaras ján!, nik éran! eitxúaras"... -*kaz2* °... esate-eba-nere amak · · aberátza · · kámixu- · kámixutzien... · gelditxu salá: juésak etaa · jan setzela dirua · da ...

kmz1 °... fransésa-pe daká dee beran sónan · be- béste aixé bat emóttetzá... Andalúsia-morúan!: Andalus es kastellano, ta, · esátin dábe axé dala ónena: sélan isángo-ra bá!?, berbá-asko estau ba- berb'ásko jan- ján eitxen dau berbía-árek... <murizketa fonetikoetaz dio "jan" hori, noski>

rmz °formóya eee... · mallukiain [sic] jota ee sértzekua!, kantóyok e artú ta ítxeko tá... · formóya! Burdíxa ítxeko bee aa (?)errellía sartzekó, áre-kanto- kuadráuak e formoyakin etá bi-juek: lélengo sulua in da geróó... jan!, glá-glá ta trást!... ("desgastar")

"Entzun" nahikoa aditz soila da esangurei dagokionez, baina "esana entzun" egituran "obeditu" esanahi dauka.

"Eiñ /iñ" (kom. "egin") aditzak esangura ñabardura mordoa dauka. "Hacer" orokorrak dituenaz gain, "esan; berba egin" ere esan gura du.

kmz °í <tartak> éin bai!, da- da ján be bai!

ñaz1 °basúak, eta geró · seláixek in sian an!

kmz °"áu esáten da" ess!-séuen esáten!: eiñ eitxe-júen da · ík ártu!

"Eiñ /iñ" orokor horrekin osatzen diren hainbat perifrastan ahoskerak aditz bakararra dagoela iradokitzen du: "loiñ, irakiñ /irakeiñ", bokalen sekuentzia dipton- goz osatzen delako. Dena dela, osagaien hurrenkera aldatuz gero edo beste osagaien bat tartekatuz gero perifrasiá bistaratzen da. Esate baterako:

nme2 naikúe loin dot -*f.a.* bengal!, loisu

/raz1 nik e ló naikua in dot -*S.B.* eisu lo, beingos

kmz írakeiñ eiók? // *kmz* esniák e írak eiñ eiók -*kgg* irakiñ ein dau

/naz ura-pe ... írak in ddau

/raz1 urák i- irakin dau, e?, írakin dau-urák! ... esniá be ígual -*f.a.* urak irakin dau

Morfosintaktikoki ere aberatsa da aditz hau, baina ez dugu uste gai hori hemen zehatz garatzekoa denik. Izan ere, aditz nagusi - aditz laguntzaile harremanaren berri eman beharko litzateke, alde batetik. Beste alde batetik, diskurtsoaren azterketari dagokion galdegaiaren sintaxizko gaia ere garatu egin beharko litzateke, besteak beste. Zenbait adibide:

nme2 etorri-im-bie-dau!

f.a. arék e aimbeste kontu bárik ekárrí ei-ban

"Iraun" aditza baseritarren artean dago bizirik batez ere: *f.a.*-k eta *naz*-k arrunki darabilte, eta beste lekukoengandik zuzenean galdetuta jaso behar izan

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

dugu. Galdetuz gero, hauek onartzen dute, *raz1*-ek eta *nme2*-k; *kmz* lekukoak, ostera, zuzenean galdetuta Eibarrerako ez du onartzen.

Orokorrean, fonetika sintaktikoz kate fonikoan partizipio horien amaierako kontsonante sudurkaria ez da ahoskatzen sarritan, murrizketa handiak gertatzen direlako batez ere aditz laguntzailearekin bat egiterakoan, baina horiek aztertzea ere ez da ikerlan honen helburua. Adibiderako:

kmz nun eoítxuk?
kmz °asiñó gustia-pe, já-esküesen-dá!
kaz2 °selakó · medállia ·· emon séskuen · au, au emoébeniam-bai!: dáneri, ee?,
neri bákarrik es ee? dáneri! // *kaz2* °... se afari emo-setzuem-ba? -*kaz3* °...
Eskól'armerirako be diru assko emo-éban -*f.a.* karameluak emouskue
f.a. eruaitxesu errekauek etxera?
rmz °núndik eki-léikien...

Bizkai inguruko alderantzizko gertakaria ez da arrunki Eibarren gertatzen, “igon /iyon” aditzean izan ezik; hau da, partizipioaren amaieran “-n” kontsonante sudurkaria eranstea. Ez da, beraz, “eukin, eutsin” eta halakorik entzuten eibartar jatorrean, esate baterako.

1.2.2.2. -I /-II amaieradunak

Atal honetan aditz bakarra jaso dugu: “il(l)”. Pertsonentzat eta animalientzat erabiltzen da, bai berezko heriotza adierazteko, bai ekintzaren baten eraginez. “Otzak ill” egitura “morir de frío” aitzen emateko erabiltzen da. Adibiderako:

kmz °sárrak e · il sían dának · órrek sekixénak
raz1 °<”katua akabau da”> -en jeneralian ... “ill” be bai: “ill- ill” pertsonai pertsonai esate-ako, lén! ... bixetara dao-ondo, bíxetara esaten da: ... “katua il da”, “katua-akabau da” -*kaz3* °áutza! · da-a urari bota ta-artu ta bísixuak ill...
nme2 °[“katua ill ein da” zuzenean galdetutakoan] ess!: ganaua, · “akabau” esaten da, ta persónia “ill”... Da erlía bé, · erlía!, “ill” esaten da: “una kolmena · se a muerto”: “ill ein dá”, erlía ill... erlía da-animalixa bákarra, “ill” esaten dana, béste ganau danai, éuskeras “akabau” esate-ako
/naz arek, beran ee ... ausua ill eban (norbaitek beste bat akabatu)
kmz txarríxa il bia-juau
kmz10 “Hárek guk euskeraz gaizki egitten genduala, hill egitten genduala, asesi-nau egitten genduala Eibarko euskeriagaz euskera benetakua ...”
naz °ésin dutxau!: es oixe!, ené! otzak ill! bueno!...

2. ONDORIOAK

Lan hau ikerketa helburuz burutu denez, berriro azpimarratuko genuke asmo nagusia ez dela izan argitalpen baterako goitik behera moldatzea, oinarri tinkoak dituen metodo eta corpora baliatuz Eibarko ahozko euskararen ikerketan beste urrats bat egitea baino. Argi utzi nahi dugu hemen ez dugula jo ikerlan honen oinarriko tesian aurkeztutako metodo eta teknika guztiak azaltzera, ezta landu ditugun adibide guzti-guztiak ikerlan honetan ezartzera ere (hori eginez gero lana-

ren luzera ere handitu egingo litzateke, besteak beste, milaka adibide ezarri beharko genituzkeelako). Beraz, noizbait lan hau monografikok argitara ematekotan beste ikuspegi dibulгатiboago batetik metodologia atala apur bat aberastu egin beharko litzateke (lekuko guztien izen-abizenak ezarri kodeen ondoan, transkripzio irizpideak zehazki aitzen eman eta abar). Partizipioen corpusa – adibidetegia eta horretarako erabili den galdekizuna ere osorik argitaratu beharko litzatekeen aztertu egin beharko litzateke. Amaieran lan honetan ezarritako partizipio guztien aurkibidea ere ezar liteke, irakurleari aditz bakoitza bilatzen laguntzeko. Alderdi fonetikoa azpimarratuz, aditz partizipioak azterkizun duten espektrograma batzuen irudia eta iruzkina ere gehi dakizkioke lan honen gorputzari, eranskin aberasgarri gisa. Baina hauek iradokizunak baino ez dira, eta berez ikerketa fasearen ostean egitekoak.

Ikerlanari dagozkion ondorio zehatzagoetara joko dugu, beraz, hemendik aurrera. Hainbat ezaugarri, gertakari, berezitasun eta abar jaso ditugu aurreko orrietan. Hor aurkeztutakoak laburbilduz, hasieratik erakutsi dugu polimorfismoa aditz partizipio gehienetan dagoela, hainbat gertakari foniko tartean direla. Gertakari foniko arruntenak soinu galerak dira, eta ondorioz, maila askotako murrizketak. Bokal galerak gertatzen dira, batzuetan, aferesia hain zuzen, hasiera-hasierako posizioan adibidez (gogoan izan “karri, torri, kasi” aditzak), edo bokal sekuentzien murriztapenak, hala nola “juan /jun”, “eruan /erun //iruan /irun” eta abar. Bestetan, kontsonanteak galtzen dira, batez ere bokal artean. Sarritan kontsonante galera hauen ondoan silaba osoen galerak ere gertatzen dira: “etara /etaa /eta” eta “laga / laa /la” horren adibide garbiak izan daitezke. Gai horrekin lotuta dago berez edo soinu galeraz, bokal sekuentziak gertatzean diptongoak sortzea. Lekukorik murriztaileek zaharrak dira orokorrean, Eibarko edozein auzotakoak, bai baserri bai kalekoak. Bestalde, gaztetasunak ia “berez” dakar lotuta alfabetizazioaren faktorea, eta azken hori ere garrantzitsua da aditzen forma eta egitura fonikoari dagokionez: zenbat eta euskaraz alfabetatuagoa lekukoa (gazte zein zahar), forma osoagoak-osotuagoak darabiltza, eta sarritan eskolan ikasitakoak, Eibarko forma jatorren orde. Deklinabidean gertatzen den moduan, agian murriztaileentzat Aginagako lekukoak har daitezke, baina arestian esan denez, edonongoek darabiltzate forma laburtuak. Beste batzuetan, ostera, kontsonanteak “gehitu” egiten dira, “bigurritu”-ren kasuan leintxe; edo gehienek ahoskatzen ez duten kontsonante etimologikoak gorde, “ebagi”-ren kasuan gertatzen denez. Azken gertakari hauek ere ez dira alfabetatuen ahotan jasotakoak, Eibarko euskara jatorra darabiltenenean baino.

Bokal eta kontsonante alternantziak gertatzea ere oso arrunta da, bai hasierako posizioan (“eruan /erun //iruan /irun” adibidez), bai barruan (“etzin /etzan /etzun”, esate baterako). Kontsonante alternantziak ere gertatzen dira, dela erroan (“irabasi /irebasi //idabasi /idebasi”, kasu baterako); dela atzizkietan, eta nabarmenena “-du /-ru” da, ez dagoelako gertakari automatikoen menpe, hiztunaren aukera kontua delako hain zuzen. Horrekin nabarmendu nahi dugu partizipioak sortzeko atzizkietan ere polimorfismo handia dagoela, “polifonismoa” ere esan dakioke, sarritan inguru fonikoaren eraginaren menpe dagoelako, idatziz islatuz gero (errealizazio fonetikoak asko gehiago dira, jakina): “-du /ddu /-ru // -tu /-ttu /-txu // -u” jaso dugu, zazpi aldaera denera, aditz batzuetan alternantziaz ezarrita ere bai. Are gehiago, aditz erroa beretsua izanik ere, bilakaera fonetiko ezberdinen aztarnak ere badaude (agian gakoa da formak Eibarren noiz sartu

diren, estratifikazio diakroniko kontua), “ja(g)i /jaiki” bikotean gertatzen den legez. Alderdi fonikoari dagozkion iruzkin hauek espektrogrametako emaitzak eta iruzkinak kontuan hartu gabe egin ditugu oro har, baita fonetika sintaktikoaren eremuan murgiltzeke ere.

Alderdi morfologikora (eta bide batez sintaktikora) jauzi egiterakoan ere, alternantzia aberatsa dela ikus daiteke, azpian osterantzeko gertakariak izan arren ere. Besteak beste, honako azalpenak egin litezke: analogiaz atzizkiz sortutako formak, denboraren joanean galdutako jatorriko forma etimologikoen azternak, mendebalde osorako balio duten banaketa diatopiko zabalak, maileguz sartu eta bertakotutako formak forma zaharragoen ondoan, eta abar. Esate baterako, nabarmena da partizipio trinkoak / eratorritako partizipio bikoteak izatea, esangura ñabardurak ñabardura (“ausi //austu”, “eskiñi //eskindu” adibidez); eta hori areagoko maila baten, partizipioa (gehienetan atzizkiduna) / aditz perfrasia alternantzia izatea: “txikitxu //txiki-txiki eĩñ”, adibide bat ipintzearren.

Izan ere, aberastasuna ez da fonikoa bakarrik; “Eibarko partizipioak” entzutean hasiera batean uste izan daitekeen baino askoz ere mundu oparagoa dago: dela aipatutako era askotako alternantziak, dela atzizki metaketak (“-stau” atzizkiz sortutakoak, adibidez), edo aditzoina espero ez den modukoa izatea (aditzoineko jatorriko osagaiak ez duen soinuak gehituta, adibidez, nola “baltzixu” eta tankerako partizipioetan).

Bide horretatik, normalizatutako euskararekin alderatuz gero, gertakari anitz aurki daitezke: batetik, Eibarko aldaera fonetikoki bestelakoa izatea (batez ere ahostun – ahoskabe jokoari gagozkio); adibidez, “ebagi” Eibarren, “ebaki” batuan eta beste hizkera batzuetan; *idem* “eseği //eseki”. Bestetan, Eibarren eratorritako formak gailendu dira, normalizatuko forma trinkoaren orde; esate baterako, Eibarren “bialdu” da erabateko forma bakarra, kom. “bidali” denean. Beste zenbaitetan, Eibarko aditzak esangurarengatik dira nolabait bereziak, “jari”, esate baterako, “sentarse” aitzen emateko erabiltzen da nagusiki (ez da esangura bakarra, erakutsi denez).

Bizitasunari dagokionez, argi dago gazteek ez dutela zaharrengandik euren altxor guztia jaso eta erabiltzen, eta hainbat forma galbidean daude, lekukoak hil ahala ahozko jardun jatorrean apenas gehiago entzungo diren. Bestalde, hori bizimodu eta lanbide aldaketekin zeharo lotuta dago, eta baserri eta lantegi giroko partizipioak, esate baterako, euren esangura ñabardura berezi eta sotilekin batera, galtzen doaz. Esate baterako, “jatxi”, non erabiltzen den, esangura bat ala beste izan dezake: baserrietan, ganadu munduan, “ordeñar” esan gura du; eta homofonismoz, “jaitsi” ere esan gura izan dezake. Bestalde, esangura eremu zabaleko aditz partizipioak eta erderatik mailegatutakoak bertako forma jator berezien erabilera murrizten doaz, eta bizirik iraungo duten partizipioen kopurua ere gutxitu egingo da, ezinbestez. Kopuruz ere, atzizkiz sortutakoak partizipio trinkoak baino askoz ere ugariagoak dira; eratorbide aberatsa dago alor horretan. Aditzoinaren jatorriko kategoriari dagokionez, denetik dago, baina harrobi jorienean izenena eta izenondoena da. Izenondoek “generoa” dutenean partizipioetaraino ere iragazten da, “mosolotu /mosolatu”-ren kasuan bezala. Bestalde, kategoria “iluneko” aditzoinak ere badaude, hala nola “ikutu”-ren kasuan.

Dena dela ere, gaztelaniatik hartutako formak nahikoa jator moldatuta dau-de eguneroko hizkeran, eta azentuak berak ere eragin handia du horretan. Gainera, sistematizazio handia dago nola moldatu, zein osagai euskaratzen den: “-ar” amaieradunak “-au” egiten dira, “-er” eta “-ir” amaierakoak “-idu /-iru”; eta are gehiago, gaztelaniaz aditzak ez diren osagaiak (gehienetan izen kategoriako-ak) ere aditz bihurtzen dira erraz asko atzizkia ezarrita. Beste zenbait kasutan, euskarazko partizipioaren esangura jatorrikoarengandik aldatuta geratu da, nola “sangrau”, “desangrar” aitzen emateko; edo euskaraz ere, oso esangura tinkoz (“aratu”, lurra azaletik lantzea, adibidez). Oso mailegu zaharrak ere jaso ditugu, inorena geureganatzeko bide hori ez delako gaur egungo ezaugarri berezia (“arrapau”, “suertau” eta abar).

Aurreko horren alderantzizkoa erakusten digute hainbat aditz zaharrek, “kla-sikoak” esan dezakegu, zein euren aztarnak: “ebate-“ aditz izena, “*eban” parti-zipio zaharraren arrasto, “euko” geroaldiko partizipioa “*edun” zaharraren oihar-tzun, “ja(g)i” galtzen doan partizipioa, esate baterako.

Beste maila bateko erabilerari dagokionez, argi dago Eibarren, mendebaldean legez, partizipioaren erabilera nagusi dela beste leku eta euskara eredu batzuetan aditzoina erabiliko litzatekeen kasuetan ere. Hala ere, aditzoinaren hainbat erabile-ra berezi ere jaso ditugu, baina beti ere jakineko aditz batzuen kasuan (“tira /tiratu”, “pasa /pasau”, “altza /altzau”...). Osterantzean, partizipioaren erabilera eguneroko jardun askean ikaragarria da, dela aginteetan, dela diskurtsoaren antolaketaren baitan, dela era askotako egituretan eta lexikalizatutako esaeretan... azken finean, jokatu gabeko aditz sintagmak indar komunikatibo eta pragmatiko handia du.

Horrez gain, partizipioa ez da aditz kategoriara mugatzen, hainbat morfosin-taxizko bide daudelako izen gisa, adjektibo gisa eta adberbio gisa erabiltzeko.

Amaitzeko, esan dezadan nik neuk ere espero ez nuen lako lan zabal eta naroa aurkitu dudala Eibarko partizipioen esparruan. Izan ere, ez dut oraindik honen tankerako lanik aurkitu beste ingongo gramatika eta monografiatan, eta nahiko nuke hemendik aurrera hainbat izkutuko berezitasun agerian uzteko balioko balu, edo etorkizuneko lanei argi egingo balie behintzat. Eibarko euskara jaso eta aztertzekeo proiektu orokor hau egiterakoan joan zaizkidan pertsonaei eta lekukoei opa diet lan hau (†Pax), baita harrezkero etorri direnei ere.

BIBLIOGRAFIA

ARETA AZPIRI, Nerea. *Eibarko euskara. Izen sintagmaren deklinabidea: izen sintagmaren deklinabidea, adjektibo sintagma eta adberbio sintagma*, argitaratu gabeko Doktorego Tesia: Deustuko Unibertsitatea, 2002.

ARETA AZPIRI, Nerea. *Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea*, Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, “Euskal Herria Saila, 21”, 2003.

ELHUYAR. *Hiztegi elektronikoa euskara – gaztelania. Diccionario electrónico castellano – vasco*, CD-ROM disko konpaktua, Usurbil: Elhuyar (Diskoan: *Elhuyar hiztegia*), 1996.

EUSKALTZAINDIA. *Hiztegi batua*, Bilbo: Euskaltzaindia, “Euskera XLV 2”, 2000.

Areta Azpiri, Nerea: Eibarko aditzaren zenbait berezitasun: partizipioen forma eta zenbait erabilera

MUGICA BERRONDO, Plácido. *Diccionario vasco-castellano*, Bilbo: Mensajero (ale bi: I.an A-I; II.lean J-Z), 1981.

MUGICA BERRONDO, Plácido. *Diccionario castellano-vasco*, 4. arg., zuzendua eta laburtua, Bilbo: Editorial Mensajero, 1987.

SEGURA MUNGUÍA, Santiago; ETXEBARRIA AYESTA, Juan M. *Del latín al euskara = Latinetik euskarara*, Bilbao: Universidad de Deusto, "Serie Letras, vol. 29", 1996.

URIARTE GARAI, J.A. *Fruizko hizkera: azterketa linguistikoa*, argitaratu gabeko Doktorego Tesia, Deustuko Unibertsitatea (ale bi), 1995.

ZUAZO, Koldo. *Deba ibarreko euskeria*, Oñati: Antzuolako, Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eibarko, Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako, Oñatiko eta Soralezeko Udalak, 1999.